





IRATXE ORMATZA IMATZ

*Hegoak*



**IRATXE ORMATZA IMATZ**

*Hegoak*

LABAYRU IKASTEGIA  
BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDAZIOA  
BILBAO  
2007

Argitalpen honen moldaketak eta prestakuntzak Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza izan dau.

© Iratxe Ormatza Imatz  
© Labayru Ikastegia - Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa  
Aretxabaleta, 1-1.a  
48010 BILBAO  
Tel.: 94 443 76 84 - Fax: 94 443 77 58  
Posta elektronikoa: labayru@labayru.org

Diseinua: Ikeder, S. L.  
Fotokonposizioa: Ikur, S. A.  
Silutegia: Baster, S. L. L.

Lege Gordailua: BI-3488-07  
ISBN: 978-84-86833-20-6

Eskubide guztiak jabearen dira. Ez da zilegi liburu hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoa edo mekanikoa, fotokimikoa, magnetikoa, elektrooptikoa, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz beraz transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen aldez aurreko eta idatzizko baimen barik.

Zeuri, Ekaitz:  
hegoak emon deustazuzalako





# AURKIBIDEA

|   |     |
|---|-----|
| Bakioko hareatzan . . . . .                               | 11  |
| Peru, bihotza lehertzeaz . . . . .                        | 15  |
| Peru: Andeetako jaunak . . . . .                          | 23  |
| Qusqo, munduaren zila . . . . .                           | 27  |
| Machu Picchu . . . . .                                    | 33  |
| Bolivia: Titikaka lakua . . . . .                         | 39  |
| La Paz . . . . .  | 45  |
| Kokea, Boliviako ikurra . . . . .                         | 51  |
| Uyuniko gatz-lautadea . . . . .                           | 55  |
| Uyuniko gatz-lautadearen inguruak . . . . .               | 59  |
| Argentina: ahots doinu gozoen herria ete da? . . . . .    | 63  |
| Iguazuko ur-jauzietan . . . . .                           | 67  |
| Buenos Aires, haize korronteak . . . . .                  | 71  |
| Uruguai: abenturatu bat . . . . .                         | 75  |
| Di-da baten hippy barrien mundura . . . . .               | 79  |
| Txoberne, Buenos Airesen . . . . .                        | 83  |
| Udatiarren antzean . . . . .                              | 85  |
| Patagonia: hondartzea, zinea eta ur bako portua . . . . . | 89  |
| Itasoko pizti zoragarriak . . . . .                       | 93  |
| Ushuaiarantz . . . . .                                    | 97  |
| Suaren lurraldearen ganean . . . . .                      | 101 |
| Suaren lurraldearen barruan . . . . .                     | 105 |
| Izotzaren barbaroa . . . . .                              | 109 |
| Andeetako mendietan barrena . . . . .                     | 113 |
| Aitita diran arbolak . . . . .                            | 117 |
| Maputxeak. Hippyak eta artisauak . . . . .                | 121 |
| Andeetako Suitza txikia . . . . .                         | 125 |

|   |     |
|---|-----|
| Azken egunak, <i>che!</i> .....             | 129 |
| Brasil: <i>aspirando as cataratas</i> ..... | 133 |
| Paraguai: hiru egun .....                   | 139 |
| Mundu osoa, uri bakarrean .....             | 145 |
| Rio de Janeiro, <i>beleza!!!</i> .....      | 151 |
| Iparralderantz .....                        | 157 |
| Azken geltokia: Salvador de Bahia .....     | 161 |
| <i>Saudade</i> .....                        | 165 |
| Etiketk .....                               | 171 |

## BAKIOKO HAREATZAN

Iraila da, udagoiena ate-joka dago. Bakioko hondartzan nago, itsasoari begira. Itsasoaren beste aldean, beste lur baten Ekaitz nebea dago. Badira bederatzi hilebete azkenengoz Kuban ikusi nebala. Gogoa daukat bera ikusteko. Eta gogoa daukat Euskal Herritik urten eta munduan barrena ibilteko. Ekaitzek ia urtea bete dau kanpoan, herriz herri ibili da Ameriketara, entzuten dozuzan biaje horreetariko bat egiten, telebisinoan ikusten dozuna, irratian baten bati entzun deutzazuna, liburuetan irakurri dozuna. Lagunen lagun bat, ezagutzen ez dozuna, munduan barrena dabilela entzun dozu. Urrinekoa izan dodana, gero eta parajeago daukat, eta ia ezin dot sinistu.

Hilebete daukat dana prest eukiteko. Nahikoa denpora daukat. Zerrendea egin dot egin behar dodanagaz: biaje agentzietara joan, zein bakuna hartu behar dodan itaundu eta imini, motxilea erosi, erropetarako zerrenda bat eta nezeserra egiteko beste zerrenda bat...

Beharrea nago, eta, halan ba, beharretik kanpo egin behar dodaz horreek guztiak, eta pentsetan dan baino denpora gehiago eskatzen dabe. Abioiarena egin dot, agentzietan eta sarean begiratu eta gero. Joanekoa baino ez dot erosi, joan-etorrikoa karua goa da, bueltakoa zabalik izatea gura izan dot-eta. Ez dot gura izan amesetei atea zarratu. Dana dala, seguruenik lau hilebete barru hemen egongo naz.

Bakunena be pentsau dodan baino luzeagoa da. Osasun Ministeriora joan, galdetu, bakunak erosi (bape merkeak ez diranak) eta imini, baina imini be ezin da segiduan imini, bat jarri, handik aste bira beste bat... Astero daukat bakunaren bat iminteko.

Erropak be danetarikoak sartu behar dodaz: udakoak, negukoak, oso handia ez dan emakumezko baten motxilan, hau da, handia ez dana. Dana ezin da sartu, ez. Jantzi polarra eta trekking-eko zapatilak be erosi behar izan dodaz; horreek barik dagoan euskaldun bakarretakoa izango naz!

Urduri ibili naz, gauzak gertu izateko dana preparentan nabilela, lagunai joango nazala esaten, agur esaten. Arazo asko eta hilebete bakarrik. Zerrendea egiten dozunean, uste dozu denpora gitxiago behar izango dozula dana egiteko. Baina egiten hasten zaranean, danak pentsau baino asti gehiago behar dau.

Gogoia daukat han egoteko, Ekaitz ikusteko. Europan bakarrik ibili izan naz, Marokora behin joan nintzan eta sano gustau jatan; antzik ete dabe Marokok eta Peruk? Zelangoa ete da Peru? eta Bolivia? eta Argentina? Gogoan dot aitak etxera ekarten eballa Iberia enpresako Ronda aldizkaria. Han behinola, txikia nintzala, Patagoniaren ganeko artikulu bat irakurri neban, hango argazkiak ikusi eta neure kolkorako esan neban egunen baten hara joan gurako neukela. Urrinekotzat izan dot beti, nigandik aparte. Ez gogo faltaz, baina beti pentsetan dozu karua dala, ezinezkoa dala, gauza asko beharko dozula. Eta zer eta, hemen nabil gauzak preparentan, nora eta Hego Ameriketara joateko, nora eta umezaroan argazkietan ikusitako Patagoniara. Nik neuk be batzuetan pentsetan dot ezinezkoa dala, hau guztiau ez dala niretzat.

Ekaitz han dago, eta egia esanda ez dot pentsau lar zehatz nora joango garan. Egun batetik bestera erabagi dot hara joatea, eta ez daukat ia astirik pentsetako zer gura dodan ikusi, nora joan. Ganera, batez be, Ekaitzegaz berba egiteko gogoia daukat, beragaz egoteko. Han egoteko, hango giroan murgiltzeko gogoia daukat. Horregaitik ba, pentsau dot ez irakurtea ezer, hara joan

eta han nagoala jenteagaz berba egin, gauzak irakurri bertan nagoala, eta holan, bertako giroa, haizea azalean ezarri eta gitxi-gitxika barrura sartu daiten.

Heldu jat joateko eguna. Lagunakaz egin behar nebazan afa-riak eginda, agur esanda. Familiari be agur esan deutsat, eta urduri Loiuko Ameriketarako atea zeharkatu dot. Beste aldean, Ekaitz daukat begira.

Hegaldirik merkeena dala sentidu dot, Madrilen itsasoa zeharkatuko dauen hegazkinean sartu nazanean. Jesarlekuak txikiak dira, jesarlekuen artean ez dago ia lekurik. Estu, eskerrak handia ez nazana.

Hego Ameriketako nahiko jente dago. Nongoa nazen esatean, itauntzen deuste: zuok laster independente izango zarie? Hori da ailegau jakena Ibarretxeren planaren inguruan... Independentzia hortik urrin dagoala esan deutset.

Ondoan Venezuelako neska bat daukat. Biajearen ganera berba egin dogu, bera Perun egonda dago eta haren ganera egon gara berbetan. Katalunian bizi da, antza sare bidez kataluniar bat eza-gutu eban, eta New Yorken alkartu eta gero, erabagi eben, Kataluniara joatea. Eta han dago, pozik, maiteminduta.

Caracasen abioia aldatu behar izan dogu. Europako hegaldi merke batetik Venezuelako hegaldi merke batera. Aeropostalekoa da hegazkina, txikitxua eta zaharra. Barruan hamar bat persona gagoz. "Ailegauko ete gara!" pentsau dot. Gu heldu gara Limara, baina maletak bidean geratu dira. Itauntzen, paperak beteten, batagaz berba egiten, besteagaz be... ordu bi emon dodaz, Ekaitz ikusi arte. Hain paraje, eta ezin ikusi. Azkenean, bai, han ikusi dot: altu, guapo eta irribarretsu; ni, ostera, negarrez hasteko puntuan. Munduko personarik zoriontsuena naz.



## PERU, BIHOTZA LEHERTZEAR

Limako aireportuko atetik kanpora urten orduko igarten dozun lehenengo gauzea usaina da. Usain berezia. Taxi gidariaren berbakerea be gozoa da, errez entzutekoa. Doinu berezia dauka eta darabilzan berbek liburu batetik ateratakoen antza dabe. Euskal Herrian gaztelaniaz lagun artean nekez entzuten diranak, hemen barra-barra erabilten dabez eguneroko jardunean, helduek zein umeek.

Trafikoa zoratzeko modukoa da: kotxeak, autobusak eta furgonetak. Autobusak eta furgonetak ganezka doaz. Bide zabalak dagoz, norabide berean doazan kotxe bi sartzeko modukoak. Kotxeak ezkerretik zein eskoitik sartzen dira. Gure begiakaz ikusita, kaos antza euki arren, hemengo arauak agintzen dabe: ez dago kaosik. Bozinak ez dira inoiz isiltzen: non dagozan jakinarazoteko, oinezkoak ez zapaltzeko, turistai taxia eskaintzeko, bidekurutzeetan inork baino lehenago aurrera egiteko...

Uriaren erdialdea polita da, estilo kolonialeko hainbat etxe eder dago. Ezin dozu burutik kendu orduko sasoian zenbat aberastasun kendu eutseezan herritarrei ikusten dozuna eregiteko. Etxe gehienak, baina, pobreak dira. Hegoko uriak ekarten deusuez akordura: txikiak, teilatu leunekoak, kolore askotakoak, eskuz egindako kartelak...

Ia astebete emon dogu Liman, motxilearen zain. Aterpetxea nahiko ondo dago, auzo trankil baten. Ekaitzek eta biok hamaika kontu daukagu alkarri esateko eta jardun eta jardun gabilz egun



Limako txabolak eta kaleak (Peru).

osoan. Badago zer kontau, ia urtebete alkar ikusi barik egon eta gero. Berezia. Etxetik hain urrin, ezagututakoagandik urrin-urrit. Eta, aldi berean, alkar batzen gaituana are eta nabarmenagoa egiten da leku ezezagunean. Lekua are eta bereziagoa da.

Niretzat, bizimodu barri bat lau hilebeterako. Dana ikasteko, dana ikusteko. Ekaitzentzat, ordura arte izan dauen bizimoduari ekin, baina konpainian. Eta horrek dana baldintzatu eta aldatzen dau. Lagun bat berba egiteko, erabagiak hartzeko. Lekuak ederresteko lagun bat.

Gogo biziz nago bideari ekiteko, lekuak ikusi eta ikasteko neure baitan ezin egon. Jenteari berba egiten entzuteko, esateko zer daukien entzuteko. Herrialdeetan barrena ibilteko. Orain arte asagotik ikusi eta sentidu izan dodana azalean igarteko. Begiakaz ikusteko liburuek eta komunikabideek eskaini deustena.



Eta, batez be, Ekaitzegaz egoteko, berari entzuteko, etorriko dana alkarregaz ikusteko, ondoan sentiduteko, horrenbeste denpora asago izan eta gero. *Odolak berbetan dihardu.*

Autobusa hartu dogu Amazonasera joateko: hogeta lau orduko jesarraldia, baina ailegau arte bentanearen bestaldetik agerten jatzuna gozeteaz ganera, badago zereginik: afalduten emon deuskue, bideo bat imini, goizeko bostetan gelditu komunera joateko. Eta goizeko zortziretan armozua jateko gelditu: arroza, okelea eta ensaladea, lar gogorra ohituta ez dagoan batentzat. Frutea jan dogu.

Bingoan jokatu dogu. Autobusean azafatea izan dogu: uniforme eta guzti. Berbalduna eta alaia da, nahikoa barre egin dogu beragaz. Irabazi irabazi, ez dogu ezer egin. Katilua, txubaskeroa eta boltsea izan dira sariak. Sari nagusia boltsea izan da. Gizon batek irabazi dau, eta azafateak eskatuta, altzau eta mikrofonoa eskuan dala eskerrak emoten hasi da: azafateari, autobus enpresari... baita Jaungoikoari be. Eta dana berba gozoakaz. Beste berbakera bat, beste bizimodu bat.

Barre-algarak be entzun izan doguz. Bihurguneetan autobusagaz batera boltsak batetik eta bestera ibili dira. Eta horren kontura, autobusekoak barreka, baita geu be.

Limatik Amazonasera bidean asko aldatzen da ingurua. Limako parajeak siku-sikuak dira, ez dago ia berderik. Dana da harria, harea, eta arbola solteren bat. Iparraldera zoazela, berdea gero eta ugariagoa da.

Azkenean, Tarapotora ailegau gara. Amazonasek herria ingurutzen dau, basoak dana hartzen dau, geu be bai. Beroa, izerdia eta hezetasuna azalean ezarri jakuz. Herriko talaiatik ikuspegia ederra da: etxeen artean be, arbolak, etxeak eta landarak; harago basoak, eta atzean, basoz beteriko mendiak. Berdez beteten dabez begiak.

Batetik eta bestera leku merke baten bila ibili gara. Bata sano merkea izan da. Atariaren barruan patio bat dago, eta, beste aldean, gelak dagoz. Lekua ondo-ondo ikusi barik baietz esan

deutsagu ugazabandreaki. Motxilak ohe txiki bakarraren ganean ixteagaz batera, kuartuko hezetasun lodia ganera etorri jaku, kanpoko baino askoz be astunagoa, gure arnasan eta azalean sartzen. Hormek porlanaren grisa daukie agirian, eta ilunagoa egiten dabe hondino bentana bako gelea. Behearen ganeak eta hormek bat egiten dabe, ezin jakin non hasten dan bat eta non amaitzen dan bestea. Goiak berak be buruan jo behar gaituala esan lei. Itogarria da gelako giroa. Dutxa eta komuna kuartuan dagoz. Ekaitz dutxea baino altuagoa da, eta komunean ezin naz makurtu, aurreko hormea jotzen dot-eta. Sartu-urtena egin dogu, bihar lo egiteko beste leku bat behar dogu.

Goizaldean altzau garanean, bertan egosi beharrean egon gara labe lako horma grisen barruan. Semeak ei diranak mahai inguruan jesarrita ikusi doguz patioan, telebisinoa ikusten. Behearen ganean ugazabandreak sua biztu dau eta ganean lapikoa imini, eta garren artean, platanoak. Itzaroteko esan deusku platanoak probau daiguzan. Euskal Herritik orain aste-bete pasautxu etorri dan batentzat, arrotza da egoerea. Ordura arte, telebisinoko bentanatik ikusi izan dodana kristal barik ikusteak barrua bete deust. Eta burua, zorabiatu. Neuronak ez dagoz ohituta.

Herrian ibilteko moto-taxia hartu dogu: aurrean motorra eta gidaria, atzean gupil biren ganean jesarlekoa, eta eguzkitik eta euritik babesteko estalpea. Batetik bestera ibilteko modu benetan ederra: haizetxuak gure arpegi irribarretsuak laztandu dauz.

Hurrengo egunean, Moyobambara joan gara. Herri txikerragoa da: baketsua. Ur bero terapeutikoak dagoz bertan, eta ez dogu huts egin. Ez gara izan bakarrak. Jaieguna da eta bertoko ume, gazte eta familiak hara joan dira egun-pasa egiten. *Gringito* bakarrak gara. Ezin hobeto egon gara, txorroen azpian eta ur beraz betetako pozuetan.

Arratsaldean ur sufretsuetara joan gara. Taxiz. Ailegau garanean, taxi gidariak esan deusku gura badogu osteratxu bat egingo dauela gugaz ingurua erakusteko. Ibilten hasi gara. Ekaitz

Amazonasen egonda dago, Amazonas errekatik behera egin eban barkuz, bost egunez, eta basoan bertan be egonda dago. Niretzat, barriz, lehenengo aldia da. Ezin sinisturik nabil, Amazonasen nagoala, perutar bategaz arbolen eta bizimoduaren ganera berba egiten gabiltzala, txikitan basoan ibiltzen zirala esan deusku, ezkutaketan-eta. Ederto ibiltzen zirala arbola artean. Inurriak ikusi doguz, eta esan deusku inurri moeta jakin bat eurek jan egiten dabela, baina handiagoak.

Baso barrura sartu gara. Paraje ederra. Ur-jauzi benetan dotorea ikusi dogu. Landarak ezin ederragoak. Izadiak emonkor erakusten dau bere burua. Harro. Bedarra, landarak, arbolak, orriak, eta dan-danak berde-berdeak. Han eta hemen loratxuak dagoz, bide-bazterrean baltsamina lorak dagoz, lorontzietan barik, aske. Basoan apur bat baino ez gara sartu, gogoia daukat baso barrenera sartzeko. Hil baino lehen gurako neuke jakin zer dan holako baso batez inguraturik egotea ordu batzuk baino gehiago. Ez dot sekula izan holako baso baten sartzeko aukerarik, nigandik urrun egon da. Basoa, baina, gorputzean sartu jat. Gorputzak isilik esan deust ostera holako baso batera etorri behar nazala.

Gidariagaz maitaleen kobara joan gara. Errekearen ondoan koba, eta ezinbestean, apur bat gordeta. Lekua sorgindu antzean dagoala iruditu jat, eta burura etorri jat zenbat eta zenbat neska-mutil, andra-gizon, andrazko eta gizonezko etorri izango diran hona, gorputzen usainak koba beteteko asmoagaz. Gura izan dot pentsau mundua mundu danetik zuriak hona etorri baino lehen bertokoak etorten zirala, eta bihotza bete deust han bikote bat ikusteak, kobearen babesean.

Zugatzen artetik urten, baso oparoa atzean itxi, eta bueltako bidea hartu dogu. Ibilaldiaren ostean, ur sufretsuetara sartu gara: hatsa darie. Arrautza egosien hatsa sortzen dau ur sufretsua, baina bainua ederra izan da. Hatsa bai, eta turkesa kolorea bere eragiten dau urak. Eta ikusteko ederra da. Hona be bertako jentea etorten da egun-pasan. Uretatik urten eta hangoakaz berba

egin dogu. Kitxuaz egiten dabe, baina guk euskereagaz daukaguzan arazoak daukiez. Prestigio gitxi daukala esan deuskue, gazteek ez dabe euren gurasoek beste egiten, eta euren berbakerea bere ez dala horren aberats. Hitzun gitxi daukien hizkuntzetako txakurrak ortozik beti.

Tarapoton gauetz freskatu egin dau eta urten egin dogu. Urrinean, asago, musikea entzun dogu eta hara jo dogu. Kalean jentea ugari dabil; taberna baten zerbeza pare bat eskatu eta kanpokaldean jesarri gara. Gero eta jente gehiago dabil, dotore jantzita, jairako prest. Gazteak, zaharrak, familiak, egon dira berbetan, ligetan, olgetan. Tabernakoak esan deusku kalea barriztu dabela, asfaltoa bota, eta horregaitik udalak jaia antolatu dauela.

Edadeko andra batzuek jantzi zuria daukie soinean, belauneraino, garrian lotuta, goiko aldea kanezu antzeko bategaz, eta ulea txirinkorda bitan batuta. Apur bat umetako neure jantziak akordau eragin deuskuez. Pentsau dogu beharbada antxina eroaten eben jantzia izango dala.

Errepidean eszenatokia dago eta hara hurreratu gara. Bakarika eta taldeka igon eta kantau dabe, bertako kantuak zein irrati-etan entzuten diranak. Danak gaztelaniaz. Gazteek antolatzaileai eskerrak emoteaz ganera, soinean daroezan erropen eta zapaten barri emon dabe: zein dendak itxitakoak diran. Umeek eta gazteek eszenatokian kantau eta dantzan pozez, umiltasun handiz, egin dabe, egiten dakiena erakusten. Behean dagozanek bat egin dabe, baita dakiezan abestiak kantau be.

Hurrengo egunean, basoan sartu gara barriro be. Lamasera joan gara, herri txiki eta nasaia. Ez dago gringitorik, Tarapoton be ez dogu ikusi gringitorik. Udagoiena da, eta, antza, sasoia igarota dago. Lamasen jakin dogu Peruko indigenen komunidadetik handiena herritik hur bizi dala. Waiko dauka izena. Euren ohituren arabera bizi dira, modu nahikoa autonomoan. Abuztuan komunidadetik indigenen lehen batzarra egin eben: alkarrak euren barri emoteko eta euren bizimoduagaz aurrera egiten laguntzeko helburuagaz. Eskolea be badago, eta kitxuaz eta gaztelaniaz irakas-

ten dabe. Herri ezin politagoa da: etxe guztiak beilegiz pintauta, teilatuak abarrakaz eginda. Arrantza, lurra eta artisautzea da euren ogibidea, eta jatzera tradizionala gordetan dabe. Irri-barreak eta ezpanak lotuta daukiez. Guk hori ikusi dogu.

Etxe beilegien artean sartu gara, etheen arteko tartea zabala da. Gringitoenak egiten: geu gabiliz bakarrik kaleetan zehar. Denda batera sartu gara, gizonak eta andrak geuri begira: beste gringito batzuk gara hareen begietarako, joan-etorrian dabilzanak. Sartu nazanean, sentsazioa euki dot neure ganera neuk baino gehiago dakiela. Badakie zer galdetuko dodan, gitxi gorabehera zer erosi neikean. Zaila da zeu zaranetik aldentzea. Ez zaitue ezagutzen. Eta, bestela be, garana onartu behar dogu. Dendan dagozanak, halanda be, prest agertu jakuz berba egiteko eta dakiena azaltzeko. Halako baten, komunera joateko gogoia etorri jat. Dendearen atzetik urtenda, txabola baten daukie komuna. Bidean, bizi diran etxea izan leitekena ikusi dot. Lotsa sentidu dot, ikusi behar ez dodanari begiratzen banenbil lez, eta, aldi berean, poz handia sentidu dot, halako zeozer ikusteko aukerea daukadalako. Etxe bat. Barruan hamakea, erropea eta ohialak eskina baten. Kanpoan, sua eta lapikoak.

Erosi beharrekoa erosita, urten dogu. Bero egiten dau, beherantz jo dogu. Beste denda bat dago eta hara joan gara. Arrotzentzako sarbide bakarra. Jaubea ezaguna da, eta Lamasen be bere ganera egin deuskue berba. Gauzei begiratzen gabilizala, dendako atzeko atetik sartu da neskea. Berbetan hasi gara, eta handik gitxira jesarri eta bizitzaz jardun dogu. Tarapototik etorri garala esan deusagunean, esan deusku sekula ez dala han egon. Harrigarri egin jaku. Norbera batetik bestera dabilenean, espazioaren neurria aldatu egiten da.

Edadea be berbabide izan da. Adin berekoak gara neskea eta biok. Zarradea sentidu izan dot. Orain astebete-edo etorri naz, Euskal Herriko zurrunbilotik, eta hemen nago inguru honetatik urten ez dauen neska bategaz berbetan, bizirik nik beste denpora igaro dauena. Zortzi urteko semea dauka. Neskeak ez eban gura

soloan eta etxean behar egin, beste zeozer gura eban. Mutilak, oster, ez. Umea bakarrik ekartea erabagi eban. Esan deuskuz gogor egin jakola. Umea bakarrik hazi behar izatea, eta, horregaz batera, bestelako bizimodu bat gura izatea, bidea latzago egin jako. Sasoi gogorrek izan dira berarentzat. Umea izateaz ganera, ikasteko gogoia izan dau. Nebeagaz batera artisautzan hasi zan beharrean. Eta pozik dago orain daukan bizimoduagaz. Mutil bat gurako leuke daukana konpartiduteko.

Gauza asko kontau deuskuz neskeak. Esaterako, loak hartzen gaituanean, arimak gorputzetik urteten dauela. Orduan amesetan egiten dogu arimea kanpoan dala. Eta arimea atzera gorputzean sartzen jakuanean, izartu egiten gara.

Umeak etorri dira baloi bategaz eta Ekaitz eurakaz hasi da berbetan. Neskatoak gure inguruan jesarri dira, eta han ibili gara ulea eta azala ikutzen... Berezi-berezia izan da. Eurentzat eta neskearentzat ni beste gringita bat baino ez naz izango. Baina niri barru-barruan sartu jat esan deusten gutzia.

Waikotarren zati bat aldean eroan dogu, herriko talaiara joan garanean. Handik Amazonasen handitasuna ikusi dogu, eta ekatx elektrikoa: asago inizituek zerua hodei artean argitu dabe. Benetan ederra! Euria goian, eta behean berdea, jaun eta jaube. Eta gu, gu ez gara orritxu txiker bi baino. Ia ez gara ezer hango handitasunaren erdian. Barruan sartu jaku handitasuna, igarri egin ahal izan dogu gure txikitasunean. Zelan ez sinistu zeruan, basoan eta lurtean ahalmen bereziko izakiak egon badagozala? Geuk be sinisten genduan sasoi baten.

## PERU: ANDEETAKO JAUNAK

Tarapototik urten, hogeta lau ordu Limara ailegetako eta beste hamalau ordu hegoaldera heltzeko, Arequipara. Hemen distantziak handiak dira eta autopistarik ez da agiri errepede mapetan. Halan, autobusetan denpora piloa egin dogu. Ona da denporeari neurria hartzeko. Askotan kontrakoa pasetan da eta denporeak jan egiten gaitu. Hortik jatorkuz ardurak eta estresak. *Hemen ez dago astirik estresetako*, estresak ez zaitu-eta inora eroaten. Bakarrik zagoz, estresa lagun dozula. Ikasi be egiten da ardurea behar diran gauzetan eta gaietan iminten.

Peruko uririk aberatsena da Arequipa, eta igarten da kaleetan zabilzala. Pobrezia ez da hain handia, danean igarten da: jazkeran, tabernetan, azoketan... Herriko plazan, etxe kolonialetako arkupeen ganean tabernak zabaldu dabez, eta turistek pare bako ikuspegia daukie handik. Turista asko dabil, Nazca eta Colca hur dagoz, eta asko hemendik Machu Picchura joaten dira, guk egingo dogun lez. Herriko alde zaharreko bideak harriz eginda dagoz, eta denporan atzera eroaten zaitue. Kotxeak barik, zaldiak eta gurdiak ibiltzen ziran sasoir.

Mendiek herri osoa inguratzen dabe. Mendietariko bat sumendia da, Misti, inguruko handiena. Herriari babesa emoten deutsala esan leiteke. Mendizaleak hara joaten dira, eta zer esanik ez euskaldunak. Hostalean euskaldun bigaz egon gara, eta eurak be hara joateko amesa daukie.

Arequipatik paraje Colca zintzurra dago, Coloradokoa baino sakonagoa da. Ikusgarria ei da eta kondorrak han ikusiko doguzalata, gogotsu urten dogu goizeko ordu batetan autobusa hartu eta bertara joateko.

Herritik urten eta gitxira, bidea harrizkoa egin jaku. Atzeko aldean jesarri gara, justu-justu autobusaren atzeko ardatzaren ganean. Zuloak eta harriak gurpilen azpian sartzen izan dira, eten barik, eta, halan ba, saltoka joan gara, barreari eutsi ezinda.

Goizaldean, bide bazterrean andrak ikusi doguz, soineko trazidionalaz jantzita eta eskulanak saltzeko lekua preparentan.



Umeak Kondorraren kurutzean, Colca arroan (Peru).

Zazpiretarako Colcara ailegau gara. Kondorraren kurutzea deritxe. Ez gara izan bakarrak, autobus bi badagoz han, eta laster autobusez eta turistaz bete da talaia. Goiza ei da unerik onena kondorrak ikusteko. Ordu bi baino gehiago emon doguz kondorrai itxaroten. Ez dogu, baina, kondorrik ikusi. Ez da harrizkoa.



Jentea jardunean ibili da, itzelezko zaratea egiten. Kondorrek, baina, ezer baino gehiago isiltasuna maite dabe. Belarrietan ikaragarrizko mina sentidu behar izan dabe hango berbaroa entzutean. Kondorrik ikusi ez arren, mendiek eta inguruak eskaintzen deuskuen ikuspegiak gozau dogu. Talaietan idatzitakoaren arabera, hiru mila metro baino gehiagoko sakonerea dauka zintzurak. Mendiak behetik igaroten dan errekatik bertatik altzetan dira, zuzen-zuzenean, han behean irazko hari fina ixten dabela. Mendi-etan harria franko agiri da, baina landarak be edonon hazten dira. Zintzuraren barrenean sartu gara, haren handitasunean. Mendiz inguratuta gagoz, baina aldi berean leku zabala da. Ederra benetan. Orduak emon doguz hara eta hona, ha guztia ederresten. Astiro, geldiro. Natureak eskatzen dauen neurrira egokitzen, zeruko jaubeek etxetat daukiena inguruan dogula, gozetan. Bai, jakinaren ganean gagoz: hau pribilegio hutsa da.

Atzera Kondorraren Kurutzera joan garanean, bakarrik egon gara eta hango isiltasunaz gozetako moduan. Bakean egon gara.

Ume bi ikusi doguz bidetik etorten, aldean egurra daroela. Heldu diranean, berbetan egon gara eurakaz. Ume bat handik paraje dagoan herri handi batekoa da, eta bestea, mendien atzean dagoan ibar batekoa. Biak beharrean dabilz, egurretan eta soloan be behar egiten dabe. Gurean be aspaldi barik behar egiten eben umeek. Ahaztu egiten jaku. Eginbeharra zan. Halanda be, norberari gogor egiten jako. Umetan eta gazterik behar egiteak mundua ikusteko erea aldatzen deus. Eguna ez da bakarrik olgetako edo eskolan egoteko. Eguna behar egiteko be bada, eginkizuna beteteko. Denporea izoztu egiten da, beharrean zagozan bitartean: ez zara olgetan edo eskolan dabilen umea. Ez. Beharreko denporan, ezinbestean helduagoa zara.

Hamar urte daukaz ondoko ibarretik etorri danak, eta aste batzuetarako etxea itxi eta artoa ereiten etorri behar izan dau, dirua irabazteko. Ume biak han ibili dira olgetan, musker bat harrapau guran. Hoge berba baino gehiago erabili dabez gaztelaniaz “hartu” esateko. Hori berbakerearen aberatsa!

Umeakaz berbetan egon garanean, kondor bat azaldu jaku zeruan. Handia, dotorea, hegoak ia mobidu barik hegaz. Neskato bat berbetan hasi, eta “jentila” entzun deusagu berben artean. Harrituta itaundu deusagu ea zer dan “jentila”. “Arranoa”, esan deusku. Zur eta lur geratu gara. Handik denpora batera beste kondor bat ikusi dogu. Pozarren egon gara. Ordurako ez dogu izan itxaropenik kondorrek ikusteko-ta. Goiza ei da momenturik onena, eta eguerdia da. Beste kondor bat be ikusi dogu, asago. Jaun eta jaube. Zeruaren jauna. Geroago kondor bat hurreratu jaku. Paraje-paraje ikusi dogu haren dotoretasuna eta handitasuna, gugandik metro batzuetara. Hegoak zabal-zabal. Kondorraren indarra ikusi eta sentidu dogu. Zoragarria izan da. Benezan. Bizitzan bakan izaten dan esperientzia.

Munduan ez gagoz bakarrik. Eta Kondorraren kurutzean be lagun egiten etorri dira Jesukristoren lagunak gitarra eta guzti. Asko dira Lehen Munduan Jainkoaren argia ikusi dabenak eta euren mundua nahikoa ez, eta inoren mundua konkistetan –argia eroaten esango eben– joaten diranak. Azal zuria, kaukasiarren ondorengoak: AEBetako 50eko hamarkadako familia zorionsua etorri jaku, furgonetaz. Aita, furgonetearen gidari; ama, maitagarri, eta semea eta alabea. Irudi ezin ederragoa. Eurakaz batera, Hego Amerikarrak, azal ilunagokoak, danak mutilak. Kurutzea, ingurua, hareei be parebakoa iruditu jake argitasuna zabaltzeko. Inori itaundu barik, gizonezko gidariak gitarrea eskuan daukala, kantetan hasi dira, 70eko hamarkadako aldare-hippyen kantu gaurkotuak.

Kondorrek ez dira barrero etorri.

## QUSQO, MUNDUAREN ZILA

Pentsau dogun baino denpora gehiago geratu gara Arequipan. Ederra da. Harrizko bideetan barrena ibili gara. Azokan jan dogu. Ostatuaren goiko terrazatik herria ikusi dogu. Indiako irudiakaz apaindutako begetarianoan jan dogu. Perun, antza, jatetxe begetarianoak holan apaintzen dabez. Hinduak begetarianoak izateak izango dau zerikusia.

Perutarrak manifestazinoetan ikusi doguz. Irakasleen manifestazinoa be ikusi dogu Arequipan: lan baldintzak hobetzeko. Egunotan beste manifestazino batzuk be egin dabez, beti be politika neoliberalen aurka eta beharreko baldintza hobeak aldarrikatzeko.

Goizaldean heldu gara Cuzcora. Herriaren erdigunetik kanpo hartu dogu ostatua. Bentanatik mendia ikusten dogu, lehorra, arbola barik, bertan txabolek hartu dabez zugutzen erroak. Biaje-agentzietan eta antropologia dokumentaletan ikusten ez diran txabolak aurrez aurre doguz, ahaztu ez daiguzan. Ustez sentibera garanoi be ahaztu egiten jaku-ta.

Herri barrura joan gara, plazatik urrin mendiak ikusten dira, eta paraje plazea inguratzen daben etxeak, arkupeak, dotore, kolonialak, eta eleizak, eraikinik handienak. Plazan zagozala zirkulu zentrokideen antza dauke etxeek eta mendiek, zelanbait babesturik, Andetako bihotzean, hiru mila eta laurehun metrora. Erdialdea ederra da, benetako dala sinisten be kosta egiten da.

Inken inperioaren uriburu eta erdigunea izan zan Cuzco. Munduaren zila. Herri sakratua. Eguzkiaren seme-alabak ziran inkak. Hainbat istoriok azaltzen dabe inken etorrerea eta zelan zabaldu eben inperioa. Euretarike batek haxe dino: lehen inkak Manco Capac eta Mama Oclo izan ziran eta Titikakan sortu ziran. Hareekandik jaiu ziran inka guztiak. Bikotearen helburua erreinu handiaren erdigunea topetea zan. Cuzcora ailegau eta jakin eben munduaren zila zala. Han geratu ziran, bertako biztanleakaz batera, eta haxe izan zan inperioaren hasierea.

Inken inperioa munduko inperio guztiak lakoa izan zan. Desbardintasun handiak: goian, gitxi batzuk, eta behean, gehienak. Inkak herri konkistatzailea izan ziran eta euren mugak, geldirogeldiro, zabalduz joan ziran. Gaur eguneko Txile erdialderaino ailegau ziran. Argentinako aldean sartu ziran, eta Bolivian, Ekuadorren eta Kolonbiaraino be heldu ziran. Peru ia osoa euren mugen barruan egon zan. Menpean hartzen ebezan herriak eta herritarrak euren hizkuntza (kitxua) egitera behartzen ebezan. Berbarako, Amazonasen ikusi genduan waikotarren herria Andean bizi ziran antxina. Inken kontrako gerrea galdu ostean, barriz, Amazonasera iges egin behar izan eben. Han, geroago barriri be gerrea galdu eben espainolen kontra. Halaxe kontau euskun Waikon ezagutu genduan neskeak.

Espainolak Hego Ameriketara sartu eta konkistatu ebenean, Cuzco barriri sortu eben 1534an. Harrigarria bada be, gaur egun ez dago ia inken aztarnarik herrian. Ameriketara inbaditu ebezan ganerako herrietan legez, hemen be astakeri handiak eta asko egin ebezan. Agintariek herritarrak zapaldu eta morroi erabilten ebezan. Gehiegikeriak aurre egin guran, espainolen kontra altzau ziran inkak. Ezagunena Jose Gabriel Condorcanqui izan zan, Tupac Amaru II.a. Bera buru zala, 1780an matxinatu ziran. Handik berrogei urtera, 1822an Jose de San Martinek Cuzco departamentua sortu eban, eta independentzia aldarrikatu. Baina Simon Bolibar izan zan burujabetasuna ekarri ebana.

Cuzco uri ederra da, harrizko bideak, etxe kolonialak. Burua jaso eta mendiak etxeen atzekaldetik agiri dira. Herri benetan polita da. Etxe kolonialek herriaren alderdi handi bat hartzen dabe. Herri nasaia da, trafiko gitxigaz. Plazan umeak etorten jatzuz postalak saltzen, eta baten bategaz berba be egin dogu, nahiz eta eurek saldu gura izan. Han zagoz, eta gura dozu hareen ganera zeozer jakin, zelan moldatzen diran jakin, bizimodua zelakoa dan, zer pentsetan daben postalak saltzeaz ganera. Zilegi da inoren barrenean holan sartu gura izatea? Azken baten gu hemendik joango gara, ez gara geratuko, zilegi ete da azalean azkura egitea?

Arkupe baten, andra bat *choclo* (artoa) saltzen dago. Bana erosi dogu eta ondoan jesarri gara, isil-isilik. Benetan gozo dagoala esanda alde egin dogu. Begirunea da bidaiarien artean askotan falta dana. Begirunea, baina, beharrezkoa, derri-gorrezkoa da, legezkoa. Begirunea.

Orain dala hamar bat urte, gringitoak hemen bizimodua egiten hasi ziran, herriaren edertasunak eta Machu Picchutik hur egoteak erakarrita. Turismoak ez eukan gaur egungoaren antzik be, baina hortxe hasi zan gaurko hazkundea. Herrian kafetegia eta jantokia franko zabaldu dabe gringitoentzat. Kartelak ingelesez dagoz askotan, gaztelaniaz barik. Sarri hebreeraz dagoz, hebreeraz bakarrik. Israeldarrak, israeldarrentzat bakarrik. Joan-etorrian dabilzanentzat. Cuzcon dagoz, bertan egon barik. Kitxua bertokoen aho batzuetan entzuten da. Besterik ez.

Giro aldrebesa dago herrian. Cuzco bi: perutarrena eta gringitoena. Gringitoen leku baten sartzen zaranean, Cuzcon barik Europako edozein tabernatan egon zeintekez. Ugarteak dira, baina argi dago turismoak indar handia daukana. Artxipelagoak sortu dabez, eta ezkutuko istmoek batzen dabez ugarteak. Gatx egiten da norbera ez ikustea minbiziaren zelula baten moduan.

Herriko merkadua herrikoa da, herritarrena. Bizi-bizia da eta danetarik topau leiteke. Azokan ortuariak eta frutak saltzeaz ganera, liburuak, osabedarrak, erropak, eta etxean behar dan guztia

saltzen dabe. Askok betiko jazkerak darabilez; andrek, batez be; alkondarea eta jersea, behe aldean, hiru gona, bata bestearen ganean, eta hiru-lau bolantegaz apainduta; hotz egiten dauenean, manta bat lepotik jarrita eta aurrean lotuta. Burua estalita eroaten dabe, kapela bategaz: pamela antzekoa zein hondo erakoa. Ulea txirikorda bigaz lotuta, eta zaharrek be ulea luze-luzea daukie. Ume txikiak daukiezanek atzean eroaten dabez, “aguayo” bategaz lotuta, manta antzeko bat. Umeak isil-isil joaten dira. Gustura.

Kanpotarrak gara, kanpoan gagoz, bertan gagozan arren. Begiek eta belarriek esaten deuskuenari kasu egin behar. Aldeak ikusi doguz andren eta gizonen artean. Andrek jazkerea gorde dabe, gatxa da jantzi tradizionalagaz dabilen gizonik ikustea. Kanpotik ikusita be, andrak askotan ikusi doguz zama handiak lepoan eroaten. Gizonak baino gehiagotan ikusi doguzalakoa gagoz, eta, halan ba, eurei itaundu deutsegu, andrek gizonek beste eroan leikiela esaten dabe, sarritan euren pisuaren bikotxa. Gure susmoa da andrek behar handiagoa egiten dabela.

Kokearen tea saltzen dabe tabernetan, eta gozoa da. Altuerara ohitzen lagunduten ei dauela-ta, edaten nabil, perutarren tabernetan. Jatordu gozoak egiten doguz, goizaldetik gauera arte. Goizean azokan hartzen doguzan zumoak ezin hobeak dira. Aurretik Ekaitz hemen egonda dago, eta ilaran dagozan zumo saltzaileetariko bat ezagutzen dau. Haregana joan gara. Inguruko saltzaileek dei egin deuskue eurakana joateko. Zumoak saltzen dabezan andrek polito apaintzen dabe mahaia: aguakatea, meloiak, platanoak, aloea, papaia, piñea, sandia... Leku txikerrean fruta ugari iminten dabe, koloretsu. Gogoa emoten deustu bertan dana jan eta edan arte geratzeko.

Azokako andrea berba egiteko gogoagaz egon da, eta luzaroan jardun dogu. Beste askok lez pentsau izan dau Ekaitz nebea barik mutil-laguna dala. Eta sarritan pasau jakun lez, arraro egin jako neba-arrebak izanda batetik bestera ibiltea. Betiko itaunak be agertu dira: ea Peru gustetan jakun, eta Cuzco,

eta gure herria zelakoa dan, mendiak dituan, non dagoan, haren antzik daukan. Urte biko lobeia fruta artean dauka, eta halan, familia be berbabide izan da. Lobearen irribarrea ikusita argi dago izekoagaz pozik dagoana.

Kanpoko azokan, kolore biziko oihalak daukiez alderik alde eskegita. Ohialek eta koloreek euren baitan hartuko baginduez legez sentidu gara. Saltzaileen oihuek izartu eta esaten deuskue parajetik ikusteko, ikutzeko, erosteko. Guri ikusgarri egiten jakuz tinte naturalez egindako telak, llaenen eta alpaken uleagaz egindakoak.





## MACHU PICCHU

Goizean goiz urten dogu Cuzcotik Machu Picchura joateko. Urubamba izan dogu lehen geltokia. Etxeak basaz eginda dagoz, zuriz pintauta batzuk. Herri txikia izan arren, makina bat persona, autobus, gurdi, asto-eta dabil hara-hona. Bideak batzen eta banatzen dauzan herria da. Autobus txiki baten sartu eta Ollantaytambora joan gara. Bertan dago Machu Picchura eroango gaituan trena. Herria bidaiariak hartzeko prest dago: artisau-dendak, lo egiteko etxeak, bidaiariei begirako dendak...

Plazan gagozala Galeanoren ipuin batez akordau gara: Ollantaytambon fantasia ospatu eban Eduardo Galeanok. Umeek boligrafoa eskatu eutsen, eta berak bati eskuan txarritxua marraztu eutsan. Handik gitxira umez inguratuta: marrazkiak egiteko eskatu eutsien. Halako baten, ume batek eskuan marraztuta eukan erlojua erakutsi eutsan: “Osabak bialdu deust, Liman bizi da”. Eta Galeanok: “Eta ondo dabil?”. “Atzeratu egiten da apur bat”, umeak.

Mendietan ehunka urte lehenago eregi ebezan etxeak ikusi doguz, herritik. Kanean, umeak, andrak eta gizonak dabilz. Eta gringitoak, motxilakaz. Tren geltokia nasai egon da, joan garanean. Luzaro itxaron dogu: berba egin, jan, bertako umeak errekan olgetan ikusi, eta dendako andrea artoa egosten eta den-dea atontzen ikusi dogu. Urtetako ordua hurrean izan dogunean, ilara bi egin doguz: gringitoak eta bertokoak.

Trena bera be zatituta dago: perutarrena, merkeagoa; bestea, atzerritarrentzat, karuagoa, jakina. Bidezkoa begitandu jaku. Atzerritarrok gehiago gara: astebete, hamabost egun, hilebete edo gehiago igaroten etorri garanok danok batera joan gara Peruko lekurik turistikoenera. Atzerritarrentzat gordetako bagoian: ule argia, ia ule baltzik ez, eta danak nahiko zuritxuak.

Gauetz ailegau gara Aguscalientesera, Machu Picchuren mendi pean dagoan herrira. Makina bat atzerritar lo egiteko leku baten bila, dana nahikoa karua. Kostau jaku zeozer merkeago topetea, baina topau dogu; ganera, plazan bertan.

Herria turistai begira eginda dago. Sasoi baten txikitxua izango zan, baina orain etxeak eta etxeak eregiten dabilz, harrizko bideak egiten, dana txukun-txukun atzerritarrak gustura egon daitezana. Gauean futbol partidua egon da telebisinoan, inportantea da, antza. Izan be, plazan pantaila handi bat imini dabe, eta jente asko batu da.

Hiru ordu eta erdi lo egin eta gero, gora. Lauretarako bidean egon gara. Cuzcon ogia, aguakatea eta frutea erosi genduzan, eta ondo beterik eroan dogu motxilea. Iretargia nahiko handi dago eta argi egiten deusku. Ekaitz lehenago egonda dago eta bidea badaiki. Errekearen ondotik joan gara, ikusi ez arren entzun dogu, nasaigarria da. Belarrientzat ibilaldi ederra. Ez gara bakarrak, eta ule horidun jentea be altzau da. Guztira ez gara dozena bat arpegi zuri baino gehiago.

Errekea atzean itxi eta mendian gora hasi gara. Bide bi dagoz, bata eskailerakaz, eta errepidea, kotxeentzat. Lehenengoa hartu dogu. Eskailerak nekagarriak dira eta sarritan atsedentxua egin behar izan dot: arnasea eta indarra hartzeko. Bidea gogorra da, baina goian dagoanagaz akordau eta indarra daukat aurrera egiteko. Ordubete eta erdiko ibilbidea egin eta heldu gara. Eguzkiak ez dau urten baina txoriak kantari jabilkuz. Machu Picchuko sarrerara ailegau garanean, irribarretsu daukaguz arpegiak. Ni neu pozarren nago. Eta jan egin dogu: mangoa eta ogia. Seiretarako eguzkiak urten dau eta berotzen hasi da. Sarrerea erosi eta banoa barrura.

Machu Picchuk mendi zaharra esan gura dau. Leku berezia da. Mendian gora zoazela be esan leiteke arnasearen bidez haizeagaz batera, beste zeozer sartzen jatzula, indarra emoten deusuna. Eta inkak hona etorri ziranean, horixe bera topauko ebela jatortzu burura.

Mendiak behetik gora altzetan dira landaraz beteriko hormen antzera. Machu Picchutik ibarra ikusten da: lehenago ondoan izan dogun errekea han behean, eta inguruan mendiak eta mendiak. Mendi tontorrek euren mendia daukiela dirudi, behetik gora altzetan dan mendi bakarra eurentzat. Hatxak lez altzetan dira, eta dana landaraz beterik.

Sartu nazanetik ezin dot irribarrea arpegitik kendu, neu baino indartsuagoa da. Lekuak zeozer berezia ernaltzen deust barruan, eta arpegitik urtetten deust.



Machu Picchu (Peru).

Herriak bi alderdi daukaz: batetik, herria bera; eta bestetik, nekazaritza lantzeko lur sailak. Mendiaren altzoan terrazak egin ebezan ortuariak ereiteko. Batzuk lau metrokoak dira, nahikoa handiak. Etxeak eta terrazai eusteko hormak harriz eginda dagoz. Behar itzela egin eben ha guztia altzetan eta harriak ekarten. Gainera, harrien artean ez dago zementurik, ez ezer. Batak besteari eusten deuto. Itxura danez, inkek harriak lotzeko bedar batzuk erabili ebezan.

Barruan ez dago ia jenterik, hamar bat lagun. Lekua nasai-nasai ikusteko aukerea. Bakarrik egongo banintz lez. Talaia ezin hobea da ibarra ikusteko. Indartsu sentidu naz, mendien antzera. Badakigu zergaitik etorri ziran inkak hona! Leku ikusgarria, eder-ederra eta indartsua. Zorionsu.

Herria atzean itxi eta ondoko mendirantz joan naz: Wayna Picchu, esanguraz, mendi barria. Torre bat lez agiri da aurrean, eta erakargarria da benetan. Oraindino goizeko zazpirak baino ez dira, jente gitxi dago eta aukera parebakoa da ha dana nasaitasunean ederresteko. Wayna Picchurako sarreran itxaron egin behar izan dot; zabaldu barik dago eta behargina ez da oraindino etorri.

Wayna Picchurako ibilbidearen hasikerea ez da izan gatxa, baina gorantz joan ahala, arnasea hartzeko geldialditxuak egin behar izan dodaz. Azkenengo zatiak horma baten antza dauka, eta eskuak be behar izan dodaz igoteko. Beharantza begiratu, eta bildurra sartu jat, zorabioa. Polita, eta bildurgarria. Ailegau nazeanean, ha izan da plazera! ha ikuspegia! ederra, hainbat eta hainbat mendi nire begien aurrean. Lekua zoragarria da. Han egon naz luzaro, ha guztia miresten. Eta bakean, nasai. Tontorrean hatxak baino ez dagoz. Baten jesarri naz eta inguruan daukadanagaz ezin sinisturik nago. Mendi berdeak. Hau edertasuna, hau!

Jentea hasi da etorten, zarataka. Bakea apurtu dabe. Baina ezinezkoa jat handik alde egitea. Hain da erakargarria lekua! Barrua bete-beterik sentidu izan dodanean, beheranzko bidean

hasi naz. Geldiro, beherantz joatea errazago da. Daborduko bertigoa bera be joan jat. Astiro, ikuspegiak gozetako, gorantz doazan batzukaz berba egiteko. Astiro, ikusten dodan guztia barruratu ahal izateko.

Iretargiaren tenplurantz joan naz. Basoaren barruan sartu naz, bide estuan behera. Esan deuste euli piloa dabilela-ta kontuz ibilteko. Halan ba, fraka luzeak eta manga luzedun nikia imini dodaz. Gero eta landara gehiago dago bidean, gero eta arbola gehiago, eta hezetasuna gero eta handiagoa. Tximeletak ikusi dodaz. Bata eskua baino handiagoa, urdin-urdina.

Bideak estua izateari itxi deutsanean, aurrean zabalgunek ederra agertu jat. Ailegau naz. Iretargiaren kobearen sarrerea handia da, sakona izan barik. Aurrean zelai txiki bat dago, eta bost bat mendi begien aurrez aurre. Horma zabal bat dirudie, bakotxak tontor bat dauela. Eta tartean, ibarra, han behean errekea egongo da, ezin ikusi baina. Lekuaren edertasuna ikuspegiak datza. Edertasunak indarra emoten deutso; ezin zara handik joan ha guztia barruan sartu jatzula sentidu arte. Eta han geratu naz luzaroan. Inguruak hartu egiten zaitu bere baitan, babestu, eta indartsu egin. Ganez egiten deutsu, era ederrean.

Atzera Machu Picchura joan nazanean, jentek bete-beterik egon da. Eguerdia da, eta daborduko autobusak ailegau dira, eta autobusakaz batera ikasleak, eta eguna pasetan etorri diranak. Edonora begiratu, eta jentea dago; behean, goian, etxeetan, barruan, kanpoan, terrazetan...; ganezka dago. Uri baten antza dauka. Halakoa ete zan hemen jentea bizi zanean? Beharbada. Halanda be, arraro egiten jatzu harri zaharrez inguratuta zagozala. Pentsau lei bakarrik egon behar zarala. Igual, argazkietan eta dokumentaletan halan ikusi dozulako, inor barik. Eta holantxe gura dozu gorde bihotzean. Postala gorde gura ete dogu?

Etxeak ikusten joan naz eta eskolako umeak eta irakasleak egon dira bertan. Irakasle bategaz egon naz berbetan, herri-aldearen egoeraz, Euskal Herrian dagoan aberastasunaz. Gero

neska-mutilak etorri jataz, eta han bakotxagaz argazki bat egin behar deustela-ta...

Sei ordu barruan egon eta gero urten dot. Ekaitz kanpoan egon da itxaroten, leiduten eta jentegaz berba egiten: motxileroak eta perutarrak. Euki dau zer kontau!

Gauean, afaltzen joan gara. Bidean bertoko andra bategaz hasi gara berbetan. Umeak inguruan euki dauz, eta seinak bizkarrean loturik. Eskolako kontuen inguruan jardun dogu; alabeak ez dauela ikasi gura eta berak ez dakiala zelan eragin... halako baten esan deust ea gura dodan umea atzean imini. Eta niri begiak iretargia lez imini jataz: zabal-zabal. Eta pozarren baietz esan dot.

Opari hori bihotzean jaso eta gero, jatetxera joan gara. Jatezteko mutila sano jatorra da. Aurretik hemen egon zanean ezagutu eban Ekaitzek. Ama Limakoa dau, eta aita, basakoa. Semeak txikiak ziranean, basora joan ziran biziten, baina amari lar gogor egin jakon, eta atzera urira joan zan. Orain mutilak Aguascalientesen egiten dau behar, dirua irabazi eta unibersidadera joateko. Medikuntza ikasi gura dau. Anaia txikia eskolan dabil eta beragaz bizi da, berak jagoten dau. Kitxuaz eta gaztelaniaz egiten dau. Beragaz zer afaldu pentsetan egon garan bitartean, australiar itxurako lau neska-mutil hurreratu dira. Mutil batek ingelesez itaundu deutso ea zer daukien afaltzeko, mutilak ez deutso ulertu. Australiarrak-edo mutilari barre egin deutso. Handik joan dira esanez ez dabela afaldu gura ingelesez egiten ez deutseen lekuan. Munduan zehar ibilteak ez dauz itsuaren begiak zabaltzen, sarri bestela pentsau arren.

Mutilagaz berbetan ekin deutsagu. "Jentilak" espirituak dirala esan deusku. Jentea hiltzen danean, espiritua, batzuetan, ez ei dala gorpuan geratzen eta urten egiten ei dau. Espirituak edozein gorputzen eitea hartu leikela. Gustura egon gara, eta nekerik be ez dogu igarri. Gero beste taberna batera joan gara. Hareek be Ekaitzen ezagunak, eta berba eta berba egon gara goizaldera arte, zerbeza artean.

## BOLIVIA: TITIKAKA LAKUA

Goizean mugara heldu gara. Ekaitzek arazoak euki dauz, Perun ahal ebazan baino egun gehiago igaro dauz-eta. Azkenean, itxi deuskue Perutik urteten. Oinez joan gara Boliviako mugaraino, eta taxiz Copacabanara, Titikaka lakuaren bazterrean. Arrantzale herria da. Moila txikian txalupatxuak dagoz, ederra da, pintauta dagoala esan lei. Hondartzea be badago, harrizkoa.

Boliviako ostatueta ur beroa izatea ez da normala, Ekaitzek esan deustanez. Antza gatxa da ur beroa daukan ostatu merkerik topetea, ur beroa esaten dabenean ur epela izaten da-ta. Bera egon danetan gitxitan izan dau. Freskotxu, eta, niri, sikeran, gogor egiten jat pentsetea ur bero barik dutxau behar nazala. Ostatuan esan deuskue ur beroa egon badagoala. Dutexau naz, ur epelagaz. Ekaitzek, ostera, ur hotza euki dau.

Copacabana nahikoa leku turistikoa da. Dirua daukien perutarrak eta boliviarrak etorten dira, gitxi batzuk. Uda sasoia da eta jentearen joan-etorria igarten da. Moilako tabernen kanpoko mahai baten jesarri eta arrain gozo-gozoa jan dogu, begien aurrean doguna ederretsi dogun bitartean. Itsasoa bare dago, olatu txikitxuakaz. Urdina da, baina kolore desbardinak agiri dauz korronteen eta haizearen arabera, ez dago inoiz bardin-bardin. Hain handia izanda, mareak be badagoz, eta haizeak gogor jotzen dauenean olatuak sano handiak izaten ei dira. “Hay infinito en este lago” entzun deutsagu esaten gizon bati. Halan da.

Eguzkia sartzen ikusi dogu eta zerua kolore gorritz jantzi da. Hodeiak naranjak, gorriak eta larrosak dira. Zeruak berak be urdintasuna galdu dau. Eguzkia joan danean, aztarnatxua itxi dau atzean, guri eskainita, guk gozetako.

Pobrezia Perun baino askoz be handiago eta nabarmenagoa da. Merkaduan be gauza gitxi daukie salgai: hiru patata, kipula bi... Azokan dagozan arraindegi eta harategiak euliz beterik dagoz, hiru-lau arrain eta okelearen ondoan. Gogorra da, eta ezinezko egiten jat enpagua ez hartzea. Kontraesanez beterik sentidu naz. Antojua hartu barik ikusi beharko neukez, baina ezinezko egiten jat. Ohitura faltea. Hainbat postu dago merkaduan: jatekoa bertan egiten dabe, eta inguruan mahaia daukie bezeroek bertan jan daien. Azokan jan dogu, boliviarrak jaten dabena: zopea eta arrain apur bat, merke eta gozo. Gurean andra bat jatekoa egiten, eta beste bat emoten eta kobretan dabil. Ingu-ratzen dagoan mahai estuan jesarri gara, gizonak, andrak eta umeak ondoan doguzala. Gustura egon gara eurei entzuten.

Osteratxua egin dogu, eta futboleant ikusi doguz txolitat, euren jantzi eta guzti. Antza, sano onak dira bertoko neskak futboleant. Eta egia esan, gonakaz futboleant ondo egiten badabe, frakakaz inork baino hobeto egingo dabe.

Ostatua parebakoa da. *Garbi* dago, baina gurago izan dot izara-zakuan lo egin, badaezpadan bere. Izarak mehe-meheak dira, erabiliaren erabiliaz. Boliviako bigarren hezkuntzako azken ikasturteko ikasleak Copacabanara etorten ei dira astebete. Olgetan, ligetan entzuten doguz, eskaileretatik gora eta behera arrapaladan doazela. Aterpetxeko beheko aldean diskotekea dago. Argibakoa, bentana bakoa, sarbidea eta atzeko atea, besterik ez. Behearen ganean, han eta hemen alfonbrak dagoz, kolorea urrinera joanda, iluntasunak janda eta hariak be iges eginda. Sofak eta butakak daukiez, sasoi bateko estalpeagaz, danak desbardinak, eta collage berezia osotzen dabe. Lekua iluna da, kolore ilunekoa, marroi eta gorri ilunen arteko nahastea. Usaina be iluna da. Hatsa dario lekuari. Gauaz, baina, *txow*-a hasten da:



musikea, barreak, kantuak, barbaroa. Horreek guztiak lekua argitzen dabe, eta aparteko giroa sortzen, nerabeen artean.

Copacabanan egun pare bat emon ostean, barkua hartu eta lurrezko mugak dituan itsasoan sartu gara. Eguzkiaren Ugartean barkutik bajatu garanoi itxaroten dago jentea. Txolitat, hemengo andrak, bidean dagoz: artisautzea eta gomutagarriak. Umeak llamakaz dagoz, beti argazkia aterateko prest. Hori bai, diruaren truke beti.

Gora eta gora joan gara, eta, azkenean, lo egiteko leku bat topau dogu. Ugazabagaz egon gara jarduten. Herrian turismoak emoten dauen diruagaz makina bat etxe egiten dabilz. Bertokoai turismoak dirua ekarten deutse. Batzuk lur zatiren bat gringitoai saldu deutsee, eta diruagaz etxea eregi dabe. Ugazabak arriskua ikusten dau herriak hartu dauen bideagaz. Gauza asko turismoari begira egiten ei dira, eta bisitariok urte gitxitan bizimodua aldatu deutsegu. Gringitoek be etxeak erosi dabez, baita jantokiak zabaldu be; baina ez daukie hartu-emonik bertokoakaz. Aparte bizi dira eta bertako jenteari gogor egiten jako hori. Kooperatibetan batzen ahalegintzen dira bertakoak, euren bizimodua egin ahal izateko, aurrera egiteko.

Herrian etxe gitxitan daukie ura, gurean be ez dago. Iturria ondoan dago eta gizonak, andrak eta umeak ikusi doguz uriragoten, batzuk astoa lagun dabela.

Hemengo iluntzeak eder-ederrak dira. Mendi tontorrera igon dogu eguzkia sartzen hobeto ikusteko. Ikusgarria, zoragarria da. Eguzkiak gorritz eta naranjaz pintau dauz hodeiak eta zerua. Isilik, lakuari eta zeruari begira egon gara luzaroan. Lakuaren alde batera aditu eta Boliviako mendi edurtuak ikusi doguz. Bestaldean, Peruko lurra. Gau egin danean, herrian dagoan argi eskasari esker zeruko izar guzti-guztiak ikusi doguz. Zeru osoa izarrez beterik. Gaua ez da hain iluna, eta argi txikitxu hareek guztiak giro ederra sortarazo dabe, eguna bera baino gehiago.

Hurrengo egunean, ugarteari bueltea egiten joan gara, eta egun osoa emon dogu horretan. Ibilaldia polita da: lakua ikusi



Umeak Eguzkiaren Ugartean, Titikaka (Bolivia).

dogu, Peru, Bolivia, lakuan agiri diran ugartetxuak...; hiru orduko paseoaren ostean bidean gizon bat ikusi dogu. Ugarteko museoa jagoten dauena. Ugartearen alde honetan zabaldurik dagozan aztarna guztiai museo esaten deusie. Tiwanakotarren eta inken sasoiko aztarnak dagoz. Gizonagaz berbaz egon gara eta euren historia kontau deusku. Orduan jaubetu naz zein desbardi-na dan bizitzearen ganean daukien ikuspegia. Sinismenek berezia eta aberatsa egiten dabe euren bizimodua. Lehen gurean izaten zan lez. Izan be, guk geuk daukaguna daukie, gauza materialak, eguneroko bizimodua; eta horrezaz ganera, beste mundu bat, eurakaz batera bizi dana. Gizonak itaundu deusku ea bidean inkearen oinatza ikusi dogun. Ez dogu ikusi, ondotik pasau arren. Azaldu deusku eurak tiwanakotarrak dirala. Inkak eguzkiaren seme-alabak baziran be, ugartera etorri ziranean tiwanakotarrek bota egin ebezan. Gero inkak Cuzco aldera joan ziran eta handik

Machu Picchura. Bertatik indarbarrituta etorri zirala, eta nagusi egin ziran ugartean.

Museoan sarbidearen ondoan harrizko mahai bat dago, inguruan hamabi jesarlekugaz, eta horreen inguruan lau harri: iparra, hegoa, sortaldea eta sartaldea. Bertan batzen ziran herrietako agintariak. Sakrifizioak be egiten ebezan bertan, eta llamak eskaintzen eutseezan jainkoai. Ohitureari oraindinokarren eusten deutsee: eta urtero-urtero llama bat hiltzen dabe Pachamamari eskaintzeko, hau da, ama lurrari.

Titikaka sakratua da. Mamakhota izeneko jainkoa da lakuko jainkoa, baina Wirakocha jainkoa be lakutik sortu zan. Museoaren zaindariak azaldu deusku unibersoa Titikakan sortu zala: eguzkia, Eguzkiaren Ugartean, eta iretargia, Iretargiaren Ugartean. Eta gizakia bera sorreran harrizkoa izan zala.

Iluntzean herrira ailegau gara, denda baten esan deuskue ordubete itxaroten badogu ugazabandreak jatekoa egingo deuskula. Arrautzak eta bertoko janaria egin deusku. Eta otordurik gozoena izan da. Etxearen teilatu lauan jan dogu, ingurua ederretsi dogun bitartean. Aurrean eskolea daukagu eta umeak olgetan dabilz. Gogoratu dogu aterpetzeko jaubeak esandakoa: aimaraz ikasten dabe, eta ahaleginak egiten dabilz hizkuntzeari eusteko.



## LA PAZ

Titikakatik La Pazerako autobusetik ikusten dogun ingurua zelakoa dan azaltzeko berba bat behar bagendu, hauxe esango neuke: gogorra. Itsasotik hiru mila metrora gagoz: lurra siku-sikua da, dana da hautsa eta harria, ez dago ia landararik, eta dagozanek berde kolorea nahiko galduta daukie. Harrigarria da zelako gaitasuna daukan personeak holako lekuetan biziteko, hain gitxi eskaintzen dauen lurrean biziteko. Gogorra da hemen bizi diranen bizimodua: negu hotza, haizea, udako sargoria... Pobrezia hain da handia, hain dago zabaldua! Ura bera be urregoria da. Handik etorrita norberari gatx egiten jako. Aldeak lar handiak dira, eta min eragiten dau. Mingarria da.

Bizimodu gogorra daukie eta eurak be gogorrek dira. Boli-viarrek eutsi egiten deutsie tradizinoari. Andrek betiko jazkerea eroaten dabe: gonea (hiru-lau gona bata bestearen ganean, eta ia orkatileraino, hemen Perun baino askoz be hotz handiagoa egiten dau), kapelea eta lepoan mantea umeak edo zamea eroatete. Hemen, Perun lez, andrak dira zamea eroaten dabenak. Atzean eroaten daben zamea ezeze, gizartearena be eroaten dabe.

La Paz Bilbo lez dago: ibar txiki-txiki baten sartuta. Etxeek aldasgora egiten dabe eta inguruko mendiak hartzen dabez. Gauean etxeetako argiak biztuta dagozala, La Pazeko izarrak esaten deutsee. Uria bera nahiko nasaia da, bi miloa lagun bizi dira, baina herri handi bat dirudi.

Goizean armozua jaten azokara joan gara. Hemen be zumoak on-onak dira. Danetarik daukie: platanoa, piñea, papaia, zanoria...; zumoak uragaz zein esneagaz edan ahal dozuz, eta benetan gozoak dira. Leku berera joaten gara goizero. Andrea jatorra da, eta zumoak, ahobetekoak. Hirugarren egunean, andreak: “Caserita, ¿vas a volver mañana?”. Daborduko bezerotzat gaitu: *caserita*. Barre eta baietz esan deutsagu.

La Pazeko kaleetan edozer erosi daiteke: erlojuak, erropea, jolasak, telebisinorako antenak, gozokiak, patata beteak, liburuak, koadernuak, pilak, kaltzetinak, kalkulagailuak....; inoz zinerako sarrerak be bai. Dendak nahiko urriak dira, eta kaleko postuetan daukazu behar dozun guztia. Jateko, janzteko, ikasteko eta behar egiteko tresnak... dana. Gauzentzat daukiezan izenak be ez dira edozelangoak. Gaztaia saltzen dauen gizon batek holako gaztaiak euki dauz: *manjar de dioses*, *queso de nuestra infancia*, *queso que tiempos aquellos...*

La Pazetik paraje tiwanakotarren etxeen hondarrak dagoz. Hara joateko, furgonetatxu bat hartu behar dogula esan deuskue. Bolivian eta Perun distantzia laburreko bidaiak furgonetan egiten dira, bai herri barruan bai herri artean. Furgonetan sartu, eta itxaroten egon gara jente gehiago sartzeko. Furgonetea beteteko, kobratzaileak bentanatik kanpora garrasika: “Tiwanako, Tiwanako, Tiwanako...”; arin eta doinu bereziagaz, batzuetan gatxa izaten da jakitea zer dinoan. Furgonetako jesarlekuen erdiak beteta egon diranean, La Pazetik urteten hasi gara: “Tiwanako, Tiwanako...”. Uriburuaaren goiko aldeko El Alto herrira ailegau, eta gidariak furgonetatik urtetako esan deusku, han geratuko dala. Kalean beste gizon batek azaldu deusku furgonetan ez dagoala nahikoa jente Tiwanakora joateko. Eta han geratu gara, kalean. Artean ezer ordaindu barik. Halan ba, doan izan dogu El Altorra egin dogun txangoa.

La Paz pobrea da, baina El Alto askozaz txiroagoa. Lehen uriburuko auzoa izan bazan be, altotarrek banatzearen alde egin eben. Indar eta eragin handia dauka La Pazen. La Pazeko atea da

El Alto, bertatik igaroten da uri barrura eta kanpora doan bidea. Herri txiroa da, baina duintasun handikoa. Bizi baldintzak eta beharrekoak hobetzeko egiten dabezan mobilizazioetan sarri bidea ixten dabe; eta, halan, eragiten dabezan ondorioak handiak dira ekonomian. Aspaldion gobernuaren kontrako mobilizazioak ugariak dira. Gobernuak hidrokarburuen kudeaketa kanpoko enpresai saldu eta hareen esku gura dabe itxi. Boliviarrak ez dabe holakorik onartu gura. Hidrokarburuena pil-pilean dago herrialdean, eta boliviarrak kudeaketa euren esku geratzea gura dabe, herritarrak hobeto bizi daitezcan. Euren da, eta ez dabe saldu gura. Izan be, ez dabe gura iraganeko akatsak barriro jazo daitezcan, ezta euren jagokezan erabagiak beste inork hartzerik be. Baliabiadeak gura dabez, bizimodua hobetzeko, euren zuztarrai eutsita.

La Pazen artean ez dogu sentidu guganako gogorik. Ez dogu sentidu kanpotarraganako miresmenik. Ez. Ondotik pasetan gara, baina euren mundutik kanpora gagoz. Halako duintasuna darie. Euron bizimodua egiten ikusi doguz, guri ia begiratu barik. Gatxa da azaltzea horrek eragiten dauan nasaitasuna. Miresmena sortu dabe gugan.

Hurrengo egunean barriro Tiwanakora joaten ahalegindu gara. Zorte hobea izan dogu. Kanpotar bakarrak izan gara. Lehenengo museora joan gara. Eta han bai, han kanpotar gehiago egon dira. Museoan jakin dogu tiwanakotarren erlijinoan natureagaz bat egitea bilatzen ebela. Egiten eben guztia erlijinoagaz loturik egoan, natureagaz bat egiteko asmotan. Erlijinoak indar handia eukan personakan, bizimoduan eta instituzinoetan. Abadeak ziran agintean egozanak, estadu teokratikoa zan. Halan ba, tiwanakotarren artean, zelan ez, elite bat egoan, eta herritarrak ofizioen arabera bizi ziran.

Tiwanakotarren kosmobisinoak hiru maila eukazan. Lehenengoa, Alajpacha: goiko mundua, eguzkia, iretargia, izarrak eta justuria egozan lekua. Bigarrena, Akapacha: gizakiaren eta inguruzten dauen naturearen mundua. Eta, hirugarrena, Mankhapa-

cha: beheko mundua, azpimunduko izakiaren lekua, lur azpian egoan eta ugalkortasunari lotutako izakiak bizi ziran. Naturea gurtzen eben, eta begirunez hartzen mendiak, Achachilas-en (arbasoen) eta Apusen (jainkoen) bizilekua zan-eta.

Eraikinak egiten ebezanez perfekzinoa eben helburu. Perfekzinoa eta transzendentzia. Arkitekturea eta ingeniari-tza buztartu ebezanez, eta herri txikien eta uriburuaren artean bideak egin. Artearen bitartez, “Andeetako betiko uria” eregi eben; izan be, hare-entzat, herria Andeetako munduaren erdigunea zan. Taypicala izena eukan.

Tiwanakotarrak astronomian adituak ziran. Baekien eguzki urteak 365,24 egun daukazana. Behatoki astronomikoa bere eregi eben: Kolosawa tenplua, hau da, “Harri geldien tenplua”. Horren barruan “Eguzkiaren atea” altzau eben, eta horren bidez Andeetako egutegia zehaztu eben. Tenpluak, jauregiak eta piramideak altzetako neurri zehatzak erabilten ebezanez, zehatz-mehatz planifikauak.

Tiwanakotarrek aimaraz egiten eben, eta gaur egun aimaratarrek hasierako idea sinbolikoak gordeten dabez, iragan handiko kulturearen ondare diran neurrian.

Kanpora urten dogu, eta barriro ikusi dogu ingurua harrizkoa dala. Itsasotik bi mila metrotik gora dago. Orain gatxa da bizi-modua egitea, eta lehen antzera. Nekazaritzako baliabideak urri-urriak ziran. Ortuari- en trukea garatzeko bide sare zabala eratu eben. Ubideak be egin ebezanez eta garrantzitsuak izan ziran nekazaritza garatzeko orduan, ureztatzeko sistema handiak eregi, eta nekazaritzarako pisu ekologikoak altzau ebezanez. Lurrak harriak baino ez dauzala sortzen badirudi be, tiwanakotarrek 300 patata mota inguru euki ebezanez. Ureztatzeko sistemak asmau eta pisu ekologikoak eregi ebezanez.

Titikakan Eguzkiaren ugartean tiwanakotarren aztarnak ikusi genduzan. Herrialde handia izan zan hareena: 600.000 kilometro koadruko inperioa. Eta astronomian eukan jakinduriaren adierazgarri da Titikakan Justuriaren Harria aurkitu dabela.



Zati bat iparraldean dago, Perun; eta bestea, hegoaldean, Bolivian.

Ustea da tiwanakotarrek sikate luzeak jasan eta gero gainbehera etorri zala, konkistatzaileak hona ailegau aurretik. Halanda be, mitoak irauin egin dau.

Bueltako bidean La Pazera ailegetean ikusgarria izan da inetsiak zelan inguratu gaituan. Goitik behera egin dau, zerua hustu beharrean jarri da. Zurituta geratu dira kaleak bost minutuko tartean. Inetasia lodi-lodia izan da. Jenteak kaleetatik alde egin dau, eta hutsik itxi dau dana. Espaloietan makinatxu bat saltoki egoten da, eta dan-danak atoaan desagertu dira. Kanean dagozan postuetakoek plastikoak atera eta aterpean imini dabe salgai eukiena. Gitxi batzuk dendetan eta aterpeetan ikusi doguz. Laster bideak erreka bihurtu dira.

Atertukeran, jenteak barrero kalea hartu dau, leku guztietatik agertu da eta kaleek ostera be erritmo bizia hartu dabe. Jentea gora eta behera, gauzak eroaten batetik bestera, patata prijiduak eta izozkiak saltzen dabezan gurditxuak lekuz aldatu dabez, txolitek, zama eta guzti, kolorez bete dabez kaleak. Atzera kaleak ohiko bizimodua hartu dabe, beharbada, alaiago, biziago.

La Pazeko erdialdean daukagu ostatua, eta handik paraje postetxea dago, bertara joan gara pakete bat eta kartak botateko. Postetxearen inguruan ofizinak dagoz. La Pazen zuri gitxi dagoz, baina dagozanak ofizinetatik hur ikusi doguz. Eskuko telefonoa ez da ugaria. Gitxi-gitxi batzuek baino ez daukie. Halanda ze, telefono-kabina mobikorrak dagoz: persona batek, kolore argiko petoagaz, kate bati lotutako telefonoa dauka, eta segundoka kobretan dau.

Inguruan umeak eta gazteak be badagoz. Burua estalita daukie, zapatisten jarraitzaileak emoten dabe. Begiak baino ez jakez ikusten. Zurtu, harritu egiten zara, arpegiari begiratu eta begiak baino ikusi ez. Bihotz erdiragarria da. Eskuan zapatak garbitzekoa daroe. Zapatak garbitzekoa sano txarra da: hobe ez arnastea. Eta horregaitik daukie arpegia babestuta. Umeak, neskatoak eta

mutikoak dira. Ekaitzek esan deust sarri gurasoek ez daukiela seme-alabek egiten dabenaren barri, umeek euren beharrianetarako erabilten dabela irabazten dabena. Taldeetan antolatu eta beharlekuak gordeta izaten dabez. Bizimodu gogorra daukie, hontzak egon, benenoa arnastu eta pozik-edo inoren zapatak garbitu eta dirua boltsikoan sartzearren. Batzuek GKE baten babesean egiten dabe behar. Hareei emoten deutsee irabazitakoa, eta gero GKEk dirua banatzen deutsee beharrianak daukiezanean, dirua aurreztu eta kudeatzeko.

Uriburu berezia da La Paz. Ibili garan auzoetan pobrezia zabal dabil. Andrak umeakaz eskatzen ikusten doguz, hostaletik urteten dogunean. Aberatsenen auzoak ez doguz ikusi eta ez daki-gu zelakoak izango diran.

Usain zehazbakoa dario inguruari. Danak beharrea dabilz, baktotxa bere bizimodua egiten, zeregina beteten. Ez dago harrokeriarik, diran moduan agertzen dira. Beharrea, behar egin behar danean, manifestazinoetan zeozer aldarrikatu edo defendidu behar danean, eta parkean, alkarri maitasuna adierazoteko. Bada zeozer, guk ikusi ez arren, gizarteak eratu eta eragiten daue-na.

## KOKEA, BOLIVIAKO IKURRA

Bolivian hiru hizkuntza dagoz: aimara, kitxua eta gaztelania. Hizkuntza nagusiak aimara eta kitxua dira. Titikakatik Boliviara sartu ginanetik aimaraz entzun dogu eten barik. Euren ama-hizkuntza da, gugaz gaztelaniaz egiten daben arren. Kitxua sano zabalduta dago eta gaztelaniaz baino gehiago entzuten da. Hizkuntzeak taldeak banatzen dauz, eta langileen sindikatuak be horren arabera dagoz bananduta. Aimatarrak gehiago dira eta indar handiagoa daukie.

Gobernuaren kontra altzau diranean, ikusi ahal izan dogu sindikatuek indar itzela daukiela. Boliviarrak sano trankilak, berba gitxikoak eta apalak badira be, badakie bidebagakeriaren kontra altzetan. Euren bizimoduan nasaiak dira, baina era berean gogorrak, eta argi daukiez zein diran euren eskubideak. Harrigarria da zein gogorra dan euren bizimodua, batez be Boliviako alderdi batzuetan. Baina horrek ez deutse trabarik egiten, ez bidebagakerien kontra burruka egiteko ezta euren duintasuna agertzeko be. Hemen egon garan bitartean hainbat manifestazino egin dabez: ikasleak, funtzionarioak, koka-landaren nekazariak...; andre, umeak eta gizonek bat egin dabe bizimodu hobea eskatzeko eta boliviarentzako kaltegarriak diran erabagiak bertan behera ixteko exijiduteko orduan.

Kokea Boliviako historiaren zati bat da, bizimoduan sartuta egon dana eta dagoana. La Pazen koka-orrien museora joan gara. Han jakin dogu, hemengo kontakizunen arabera, inkek Mamako-



Koka-landareen nekazarien manifestazioa, La Paz (Bolivia).

ka euren sorburutzat hartzen dabela. Sindin Loka lehenengo inkea izan zan eta Mama Coca izeneko andreagaz ezkondu zanean, Cuzco konkistau eta inken inperioa hasi zan.

Kokea ikur nagusia da: arbasoai eta Pachamamari erregaluak egiterakoan, uzta ona eskertzerakoan, osasuna eskatzerakoan... Landara sakratua da. European ardaoa erabilten dan lez (mezatan, lagunartean, familian...), hemen kokea erabilten dabe. Eguneroko bizimoduan be sano inportantea da. Han kafea. Hemen, bazkaldu ostean, kokea mastiketetan da. Eraginak be badaukaz: ahoan anestesia modukoa, alaitasuna, adimena zabaltzen dauelako eta gorputzak indar gehiago daukalako sentsazioa, eta abar. Mastiketako orriari zanak kendu behar jakoz, gero ahoan sartu eta haginka egin. Apur bat baino ez; gero, ahoaren eskina baten itxi eta txistuagaz nahastetan danean, urak urteten dau. Hamarhamabost minutuko eragina dauka; gero, orri gehiago sartu behar dira. Egin eta esandako guztia halan dala igarri dogu.

Kokea mastiketea kaltegarria barik onuragarria da. Ikerketen arabera, egunero koka mastiketeak mineralak eta bitaminak emoten dauz. Koka-mastikatzaileen artean ez dago desnutrizinorik. Andeetako jentearentzat onurak ez dira horreek bakarrik: behar egiteko gaitasuna handitzen jake; arnabideak zabaldu, oxigenazioa handiagoa da (eta hori inportantea da altueran); enboliak eukiteko arrisku txikiagoa daukie; glukosea hobeto hartzen dabe... Kokea inportantea da eta mendez mende hemengo bizimoduari egokitzen lagundu deutse.

Guri, historiak, baina, bestelako ikuspuntua emon deusku. Konkistatzaileak hona etorri ziranean, kokea galazo egin eben. Gero koka-mastikatzaileek behar gehiago egiten ebela jaubetu ziranean, kokearen ganeko debekua kendu eta zergea ezarri eutsen. 1950ean Howard Fondak Nazino Batuetan hau esan eban: "...koka mastiketea da Andeetako herrietan dagoan adimen-atzerapenaren eta probreziaren erantzulea". Halan ba, arazoa orain dala urte asko hasi zan. Bolivian, ostera, koka-orria merkaduetan saltzen da eta Andeetako jentearen bizimoduaren parte da. Guk holan ikusi dogu.



## UYUNIKO GATZ-LAUTADEA

La Pazetik urten dogu. Atzean itxi dogu uri handia, Bolivia-ko uririk jentetsuena. Autobusez joan gara Oruroraino, eta handik, trenez. Trenbide gitxi dago Bolivian. Gustura hartu dogu tren: leku gehiago daukagu, gitxiago mogiduten da eta bentanak zabalagoak dira. Kanpoan, dana da marroia, harria, hatxa eta hautsa. Hiru mila eta bostehun metrotik gora gagoz, berdeguneak sano txikiak dira eta arbolak be ez dira handiak. Trenetik lehenengo urmaelak ikusi doguzanean, alde sikuak ahaztu eta poztu egin gara. Indar handia dauka urak: poztasuna dakar beragaz.

Gauetz ailegau gara Uyunira, gatz-lautadako herririk handienara. Herria erabat aldatu da aspaldion. Lehen lautadako gatza zan bertokoen ogibidea. Turista eta bidaiari gitxi etorten zan, gatz-lautadara gidariagaz sartzea sano karua izaten zan-eta (500 dolar inguru), eta bi-hiru agentzia egozan. Gaur egun, 62 agentzia dagoz, eta gatz-lautadan ibilteko hiru-lau bajeak 55 eta 100 dolar bitartekoak dira. Trenetik bajatu eta hainbat persona hurre ratzen jatzuz agentziak eskaintzen. Egoerea estresagarria da, autortu behar dot. Agentziakoak etorten jatzuz onenak dirala esanaz, baina gatxa da bat aukeratzea. Dana eskaintzen deusue: jatordu beroa, kotxe ona, gidari ona.... baina gero, esan deuskue nez, arazoak sortzen dira: jeepa aberietan da, otorduak eskasak dira... Hori da entzun doguna behintzat. Gauzak holan dirala, senaz fitea da onena. Hurrengo egunean bederatzi eta erdietara-

ko erabagi dogu nogaz joango garan, eta handik ordubetera jarri gara martxan.

Sukaldaria, gidaria eta zazpi lagun joan gara: Ingalaterrako bi, Belgikako bat, Herbeheretako bat, Alemaniako bat, nebea eta biok. Danok prest gagoz hurrengo lau egunetan inguruez gozeta-ko. Izan be, ezagutu izan doguzan bidaiariak hau Hego Ameriketako parajerik ederrena edo ederrenetarikoa dala esan deuskue.

Uyuniko gatz-lautadea lau mila eta bostehun metrotik gora dagoan eremua da. 180 kilometro daukaz luzeran, eta 95 zabaleran. Gatzeko desertua dala esan geinke, zuri-zuria. Esnez egindako itsasoa dirudi, baina politagoa, askoz be politagoa. Zerumugan mendiak dagoz eta ganerako guztia zuria da. Urrinean zeru urdina eta gatz-lautadako zuritasuna baino ez dogu ikusten, eta zirraragarria da.

Inguruko jentea gatz-lautadeari esker bizi da. Lautadatik gatz ateraten dabe. Eskuz gatz pilo txikiak egiten dabez, hamabost bat zentimetroko altuerakoak. Zazpi egunez holan daukie gatz sikatzen, eta gero batu egiten dabe. Handik, lantegira eroan eta iodoagaz nahastetan dabe. Gatz-lautadako produkzioaren ardurera kooperatiba batena da eta Gobernuagaz egiten dabe behar. Bolivian bakarrik erabiltekoa da, hau da, ez dabe kanpoko herrialdeetara gatzik saltzen.

Gatzez egindako hotela bisitau dogu. Hormak, oheak, jesarlekuak, mahaiak, behearen gana..., dana gatzez egina da. Han lo egitea ez da biguna izango, baina seguru aparteko esperientzia dana.

Horren ostean, Arrantzalearen Islara joan gara. Esnezko itsasoaren erdian dagoan ugarte da. Kaktusez beterik dago. Batzuk sano zaharrak. Eureratiko batek hamabi mila urte ei daukaz: urtero zentimetro bat hazten da eta 12 metro daukaz. Lekuari Arrantzalearen Islea esaten deusie, isleak, antza, arrain itxurea daukalako. Lehenengo jatordua han egin dogu, sukaldaria ezin hobea da, gustura iruntsi dogu preparau deuskuna.

Alkar ezagutzeko astia be euki dogu, jatorrak danak. Euretako bik gatzelaniaz egiten ez dabenez, guk aukera polita euki dogu





Ekaitz eta Iratxe, Uyuni (Bolivia).

ingelesez egiteko, gordeta geunkana atera eta hizkuntzea berreskuratzeko. Taldekideen artean, Hego Ameriketara etorteko euki dabezan arrazoiak desbardinak dira. Batzuk gaztelania ikasten etorri dira, eta eskoletara joan dira. Beste batzuek doan egin dabe behar GKE baten eta horren truke gaztelania ikasten ibili dira. Herbeheretako mutila hainbat lekutan egon da. Ez dau ingelesez askorik egiten, eta gaztelaniaz gitxiago, baina hori ez da arazoa izan batetik bestera ibilteko. Ingalaterrako mutilak ez dau egiten gaztelaniaz berba bakarra be. Abenturea maite dau, eta antza horren barruan sartzen da hizkuntzea ez jakitea. Batzuk lekuak ikusten joaten dira, han bizi dan jentea ia kontuan hartu barik. Beste batzuek interes handiago daukie lekuan lekuko jentea eza-gutzeko eta eurakaz berba egiteko.

Batzukaz ikasi egiten dozu, berba egiten dozu. Beste batzuk, ostera, zure ondotik pasetan dira haize korronte baten antzean, hotzikarea eraginez; beste batzukaz berba egikeran, ostera, zeozer berezia igarten deutsezu eta ahaztu ezinezko hartu-emona sortu.



# UYUNIKO GATZ-LAUTADEAREN INGURUAK

Gatz-lautadatik urten dogu eta inguruan dagoan basamortuan sartu gara, lau mila metrotik gora. Basamortua, ostera, ez da kolore edo tonu bakarrekoa. Gorritik beilegira eta marroira artean dagozan kolore guztiak topau zeinkez bertan. Harrigarria egiten jaku naturearen handitasuna, eta zoragarria da lurra, bera bakarrik, zenbat forma eta kolore sortzeko kapaz dan. Harrigarria, benetan, eta gehiago hondino begien aurrean ikustea. Izan



Harrizko arbolea, Uyuni (Bolivia).

be, munduan badakigu hainbat gauza harrigarri dagoana, baina zoragarriena norberaren begiakaz ikustea da. Hori da leku bat berezi egiten dauena, baita pozik sentidu eragiten deusuna be.

Harea, harria eta mendia ez dira ikusi ditugun gauza bakar-rak. Lakuak be badagoz, kolore askotakoak: gorriak, berdeak, urdinak... Laku gorrietan flamenkoak dagoz. Flamenkoek jaten dabezan animaliatxuak gorriak dira, eta horrexek emoten deutse lumai kolorea, baita lakuari be. Flamenkoak migratzaileak dira, baina batzuk hemen geratzen dira, eta askotan neguko hotzaren hotzaz hil egiten dira. Zerk eragingo ete dau holako leku baten lotzea?

Laku Gorrira iluntzean ailegau gara eta hotza gero eta nabari-riagoa da. Etxe gitxi dago lakuaren inguruan. Kanpoan zeruko izar guzti-guztiak ikusi ahal izan doguz. Dan-danak. Zerua argi txikerrez beteta dago. Hain altu egonda, zeru osoa ikusi dogu. Hurrago dagoala emoten dau. Luzaroan egon gara ha guztia ede-rresten, behatzak hotzitu arte. Barrura sartu baino arinago gizon bat hurreratu jaku, Uyuniko parkearen sarrerako behargina. Luzaroan egon gara beragaz berbetan. Ordu asko igaroten dauz bakarrik, eta barriketarako gogoa euki dau. Parkeko ganerako zaindariak parkean zehar ibiltzen badira be, bera ez da sarreratik mobiduten. Bulegotxuan egoten da, eta ingurua polita izan arren, gogor egiten jako hileko egun guztietan han egon beharra, hamar eguneko oporrak noz ailegauko itxaroten. Hango edertasuna kar-tzela bihurtzen jakola esan deusku. Kontu kontari ekin deusku. Behin loak hartu ezinik ebilela-ta, goizeko ordu txikietan zeozer beroa hartzeko altzau ei zan. Etxean, kandlearen eta ura bero-tzeko suaren argitasuna baino ez. Halako baten kanpoan argia ikusi ei eban. Argia garbia ei zan, izpiak indartsuak eta argiaren erdigunea batetik bestera mogiduten ei zan. Bildurra sartu ei jakon gorputzean, asmau ezinik ha zer ete zan. Argiorrek erakarri egiten ei eban. Zer zan inoz ez dauela jakin esan deusku, baina gogoratzen jakon bakotxean zirrara batek gorputza erdibitzen deusala autortu deusku.

Hurrengo goizean goizetik izartu gara: lau eta erdietan. Ingelesak termometroa atera dau kotxeko bentanatik: hamar gradu zero petik! Hotzaren hotzaz ezin izan dau euki luzaroago kanpoko benetako tenperatura jakiteko. Gorputza gogortuta daukagu, baina geiserrak ikusteko gertu. Ia bost mila metrora, irakiten dagozan putzu handiak dira geiserrak: berrehun gradu-tik gora.

Geiser inguruetan ibili gara, ia alkar ikusi barik, ateraten daben lurruna hain da zarratua. Kontuz ibili behar gara putzu grisetara ez jausteko, bestela gureak egin dau. Zirrargarria da. Esan leiteke geiserretako likidoak munduaren bihotzetik urteten dauela, bor-bor. Heriotzea hamabost bat zentimetrora daukagu. Erraza da. Eta horrek ederrago egiten dau ingurua. Benetakoa ez balitz lez, danak amesetea dirudi: personen itzalak, lurrunetik urteten eta sartzen, espirituak balira lez. Eguzkia urtetako dago: sorgin orduetan herio akelarrea izan leiteke.

Kotxean sartu garanean, gitxika-gitxika eguzkia isilik berbetan hasi jaku. Barruan epelago gagoz, eta gustura egon gara alkarren ondoan. Handik apur batera ur berodun putzuetara ailegau gara. Hotz egiten dau, baina erropak kendu eta han sartu gara, epeletan. Zoragarria! Diran berba guztien artean zein aukeratu lei ba? Zoragarria. Hau gozotasuna! Kanpoko hotza ez da ia igarten, ezta urten eta armozutako ogi eta tearen bila joan garanean be. Bikote bat ikusi dogu euren kanpin dendea batzen eta bizikletakaz ibilbidea hasten. Hau bai gatxa! Gau osoa hotzetan pasau eta lau mila metrotik gora pedalai eragiten hastea. Eta gu, bien bitartean, munduko balneariorik onenean. Kanpoan zero gradu, ondoko putzuak leia dauka, eta gu, 37 gradutan!

Hurrengo geltokia Laku Berdea izan da. Izenak dinoan moduan, lakua berde-berdea da, orlegia. Haizeak nondik jo, uraren kolorea halakoa: turkesatik berde-berdera aldatzen da. Lakuak boroa dauka eta horrexek eragiten deutso kolorea. Er-tzak zuriak daukaz, bitsez inguratuta dago-eta. Bitsera joan, eta, zer eta, bitsa gogortuta dago, hotzaren hotzaz.

Handik Txileko mugara joan gara. Ingalaterrako neskea Atakamara joan da eta pena apur bat hartu dogu. Guretzat, barriz, bueltako biajea hasi da.

Bidean llamak ikusi doguz, libre. Ingurua sikua izan arren, aurrera egiteko zer erein asmau dabe: kinua. Leku siku eta hotzetan hazten dan zereala. Hemengoek beti erein izan dabe, nahiz eta orain arrozadiak eta pastak gehiago ikusten diran. Arroza hazten erreza da, eta, pasteagaz batera, produktu merkea da bertokoenzat.

Azken gaua heldu da eta egin doguzan egun zoragarriak ondo ospatu doguz: rona, barre-algarak...

## ARGENTINA: AHOTS DOINU GOZOEN HERRIA ETE DA?

Boliviatik urten eta Argentinan sartu gara, oinez ostera be. Bolivian azken orduetan ez dogu euki boliviano bat bera be. Eta gose izan arren, ahoa berba egiteko baino ezin izan dogu zabaldu.

Mugak batzuetan benetakoak dira, eta egia esan asko igarri dogu Bolivia eta Argentinaren artean dagoan aldea, hau Argentinako alderdirik txiroena izan arren. Aberastasuna, edo pobrezia gitxiago, ikusi dogu: etxeetan, parkeetan, soinekoetan, oinetakoetan... Eta harrotasuna ikusi dogu, baita harrokeria be.

Argentinara sartu garanean, egin dogun lehenengo gauzea: dirua atera. Eta gero, tabernara jaten joan. Argentinan gagoz eta igarten da, hemengo okelea handiagoa eta lodiagoa da. Ederra izan da jatekoa. Aspaldiko partez jan dogun okelarik handiena. Plateraren besteko okelea. Gero autobusa hartu eta Saltara jo dogu. Barrero be hamaika ordu autobusean.

Saltan Argentinako bizimoduaz gozau dogu: pizzak, izozkiak, pastak, okelea eta zinea. Zinera joan garan gauean, jente gitxi ibili da, eta sarrerak erozerakoan esan deuskue bakarrak garala, eta beste persona bi behar dabezala pelikulea erakusteko. Itxaroten egon gara baten bat noz etorriko: neska bi etorri dira.

Bolivian eta Perun hostaletan ibili izan gara, baina Argentinan gazteen aterpetheen sarea sano zabala da eta haretariko baten egin dogu lo. Ekaitz logela baten egon da, eta ni, beste baten. Pentsau izan dot neskena dala bakarrik, eta dutxatik urten

eta gero, nasai-nasai egon naz janzten, logelako mutil batek atea zabaldu dauen arte. Eta orduantxe jakin dot: mutilentzat bere badala.

Jente jatorra topau dogu aterpetxean. AEBetan bizi dan ingeles bat, Esloveniako mutil bi, Hegoafrikako mutil bat... Japoniako berrogeta bost urteko gizon bat be ezagutu dogu, ingeles gitxi egiten dau, baina alkarri ulertu deutsagu. Beharra galdu eban, dana itxi eta motorrez Amerika goitik behera zeharkatzen dabil.

Giro polita sortu da hostalean beharginen eta bidaiarien artean. Aterpetxeak, herriak berak be ez dauka zerikusirik Boliviagaz, Europa dakarsku gehiago akordura. Perugaz eta Boliviagaz dagoan alde handia da eta horrek harritu gaitu. Gauez be urten dogu dantzalekuetara-eta. Dakiguna ikusi dogu: musikea bardin antzekoa dala.

Aterpetxean parrilladea egin dabe: okelea, txorizoa eta odolostea, saiheskia... okelea pizza moduan eginda, *matahambres* esaten deutsiena. *Chinchulin* be badaukie: hestearen azken zatia-gaz egindakoa... Eta ardaoa... Antza, Argentinan ohiko-ohikoa da parrilladea, eta esan deuskue behin baino gehiagotan jango dogula. Txarto, sikeran Argentinan, ez dogu jango.

Alderdi bi dagoz, egiten daben ardaogaitik ezagunak diranak: Mendoza eta Salta. Mendozan gehiago egiten dabe eta ezagunagoa be bada. Christian ingelesak, Ekaitzek eta hirurok autobusa hartu dogu Saltatik Cafayatera joateko: ardaoa egiten daben herrietariko bat. Bentanatik bestaldean izan dogun parajea polita izan da: lurraren gorria eta haizeak eta urak lurrazalean sortutako molde ikusgarriak. Cafayaten egun osorako bizikletak hartu doguz. Eguna ondo hasteko ardaoz egindako izozkia jan dogu. Ardao baltzagaz eta zuriagaz egindakoak aukeratu doguz. Izoziaren alkohola igarri dogu, sargori pean pedalai eragitean. Ez gagoz sasoian, edo ni behintzat, ez nago eta erraz nekatzen izan naz. Eguzkiak bere izpi guztiak gudan ipini dauz eta haizearen laztanak be igarri doguz, baina gu kementsu ibili gara. Herria mahastiz inguratuta dago. Christianek ardaogintzan behar egin



eban Kalifornian, eta esan deusku ingurua Kaliforniaren antzekoa dala. Pedalai eragiten ibili eta gero jaten joan gara atsedean hartzeko. Bero itzela egiten izan dau, eta pentsau dogu aurrera egin baino lehen hoba dala eguerdiko berotasunetik babestea.

Barriro be pedalai ekin deutsegu eta upategietara joan gara. Lehenengoak Echart dauka izena; antza, Ipar Euskal Herritik hona etorritako batek zabaldu eban, bertoko indigenai lurrak kendu ostean. Museoa be bada eta sasoi bateko makinak ikusi doguz. Hiru klasetako ardaoak emon deuskuez, onak danak be. Gero gogorrago egiten izan jaku hondino bizikleteari eragitea.

Barriro be bizikletan, eguzkiak ez dau errukirik izan: munduko hodei bako zero bakarra Cafayaten dago. Dana dala, guk eutsi egin deusagu eta summelier izateko lehen pausuak egin doguz, herri inguruan dagozan upategietan.



## IGUAZUKO UR-JAUZIETAN

Saltan pentsau izan dogun baino egun gehiago egin dogu, gustura egon gara-eta hango giroagaz. Barrero be orduak eta orduak, eta horren ostean be orduak egin doguz autobusean Puerto Iguazura joateko, paisaje ederra lagun dogula. Autobus bi hartu doguz bidea egiteko. Autobusak Resistencia herrian aldatu doguz: izen ona herri batentzat! Goizeko zortziretan ailegau gara, eta ordurako jentetxea ibili da geltokiko tabernetan. Telebisinoan: Bocca Juniorsek eta Milanek Munduko txapelketea daukie jokoan. Tabernak beterik egon dira: zaharrak eta gazteak, ia danak gizonetzkoak. Bocca Juniorsek partidua irabazi dauenean, haren poza! Goizeko zortzirak baino ez dira izan, baina gauekoen antza eduki dabe.

Bide luzea egin dogu autobusean. Bentanearen bestaldeko paisajea aldatuz joan jaku: bedarra gero eta berdeagoa, ugariagoa; zugatzxuak zugatz egin dira, zugatzek eurek gero eta errama gehiago, gero eta orri gehiago. Landarak gero eta ugariagoak. Lurraren kolorea be gero eta biziagoa, gorri bihurtu dan arte. Bizi-bizirik dira koloreak. Egun osoa izan dogu paisajea ederresteko. Hunduta heldu gara Puerto Iguazura. Autobusetik urten eta hezetasuna azalean igarri dogu, arnasa egiterakoan: baso subtropikalean gagoz.

Aterpetxea egurrezkoa da, kanpoaldean hiru-lau arbola, hamakak, mahai luze bat eta bankuak, berdetasunak ingurua beteten dauela. Goian izarrez beteriko zerua dogu. Gauez igarri

dogu zer dan baso subtropikala: sastadak eten barik igarri doguz gau osoan, azala zulotzen, odola ateraten eta azkurea ixten ibili dira eulitxuak. Gozo, antza.

Goiz-goizetik autobusa hartu eta Iguazuko ur-jauziak dagozan parkera joan naz. Iguazu ez da Amazonia, baina landaratzea ugaria da, emonkorra, berde-berdea. Lurra landaraz estalita dago. Brasiletik datozen Parana eta Iguazu erreka zabalek bat egiten dabe ur-jauzietan, eta batera doaz Rio de la Plataraino. Iguazuk tupi-guaraniz ur handiak esan gura dau, eta halan da, izan be.

Balkoiak eregi dabez ur-jauzien ganean eta ez dago metro bat baino gehiago hanketatik uretaraino; bildurgarria eta erakargarria, aldi berean. Urak liluratu egiten zaitu, hipnotizau. Beragaz batera eroango zaituala pentsau lei, barneak oihu txikiak sortzen dauz, haregaz inguruagaz, bat egiteko garrasika.

Bideak beheko aldera eroaten zaitu, sorgindurik, bideak erakutsiko deutsuna ederra dana jakinda. Hormigoia zapaltzen dozu baina izadia hur sentiduten dozu. Ur-jauziaren ondoan balkoi bat eregi dabe eta jausten dan uragaz busti egiten zara. Azalean eta barruan sortzen deutsun sentsazioa itzela da, poztasuna. Erreaktik datorren euriak doinu ikaragarria dakar beragaz. Mela-mela eginda, aurrera segidu dot, tximeleten artean.

Oinez pare bat kilometro egin ostean, hirugarren ibilbidera ailegau naz. Kilometro eta erdi dago errekearen bazterretik Deabruaren Eztarria deituriko ur-jauziraino. Ugarterik ugarte, zubirik zubi joan naz, ur haren guztiaren ganetik. Ailegetean, itzela, aparta: ha da ur-jauzirik handiena! Urak itzelezko zaratea sortzen dau: brrrrmm, brrmm, brrrrmm, eten barik. Eguzkia egiten dau eta uragaz batzean etenbako ostarkua sortu dau. Uraren indarra handia dala dirudien arren, harrituta ikusi dot txoriek ur-jauziko arroketan habiak daukiezala. Ura eten barik joan doa beherantz. Beheko ura jotean lurruna sortzen dau: lainoa, uragaz batera. Lurrunak, urak eta zarateak hartu eta inguratu egiten zaitue, eta beste mundu batera eroan be egiten zaitue. Benetakoa ez dan

mundu bat, danik eta liluragarriena. Guaranien jainkoen munduak ederra izan behar eban, eurona beste. Ipuin baten arabera, tupi-guaraniak urtero neska gazte bat eskaintzen eutsien uraren jainkoari. Behin, beste tribu bateko mutil bat etorri ei zan eta urte haretako neskeagaz maitemindu. Neskearen zorigatzeko etorkizunaren jakitun, neskea bahitu ei eban. Uraren jainkoa haserratu eta biak atrapau ebazan. Neskea eta mutila alkarrengandik banandu eta ur-jauziak sortu ebazan, bata goian eta bestea behean. Uraren jainkoa, barriz, Deabruaren Eztarrian bizi zan. Neskea eta mutila betiko bananduta eukiteko amesa eban. Ostarkua sortzen danean, oster, neskea eta mutila batu egiten dira.

Suntsitu genduan mundu ha, eta bertan bizi diranena suntsituten gabilz. Orain irudimena behar dogu, baita adimen praktikoa be ha dana ezereztu ez daiten. XXI. mendeko guaraniek gure lilura baino gehiago beharko dabe danon begirunea.

Deabruaren eztarriaren ahoan egon eta gero, txalupatxu bat hartu eta errekan behera joan gara. Ikuspegia berezia da, beragaz maitemindu be egin zein tekez. Albo bietan landarak uretaraino ailegetan dira, ura marroi-marroia da; ezinbestean “Afrikako erregina” pelikuleagaz akordau naz.

Iguazuko amesetatik urten dot, benetako munduan tupi-guaraniek eskulanak saltzen dabez, eta diruagaz ordaindu dot erositakoa.

Gauean, afaria euki dogu: okela errea eta ardaoa. Aterpetxe-ko guztiak batu gara, aterpetxe-ko behargin baten aitaren aitita euskalduna zala-ta berbetan egon gara. Beragaz egon gara berbetan, haren aitita euskalduna zan-eta. Faroe ugarteetako mutil bi be ezagutu doguz, jatorrak: Gora Faroe independentea!

Alemaniko mutil bat be ondoan izan dogu afarian. Ebanjelista da, jainkoaren berbea zabaltzeko Brasilera etorritakoa, argia erakusteko, nahikoa ez balebe lez. Halako jente nahikotxu dabil bazterrotan, estadubatuarrak eta europarrak.

Puerto Iguazutik Cordobara joan gara, eta pare bat egun egin dogu han. Handik Rosariora. Bidaiari gitxi joaten da Rosariora,

baina guk gogoia izan dogu joateko. Ez dago aterpetxerik eta hostal baten egon gara. Logelea nahiko merkea izan da, kontuan hartuta bentaneak barruko patioa erakusten dauela, eskailerearen ondoan, beheko solairuan.

Herria bera nahiko polita da. Parana ibaiaren ondoan dago, eta portua bere badauka. Kanean jatetxe bila gabilzala, mutil bat hurreratu jaku. Prest agertu da guri laguntzeko, Euskal Herrian be egonda dagoala-ta; izan dogu zeren ganera berba egin. Argentina be berbabide izan dogu. XIX. eta XX. mendean liluratuta egon ziran Parisegaz eta Frantziako kultureagaz. Handik ekarri ebezan plataneroak eta artatxoriak. Diferentzia da hemen bitzuak bere bi bider handiagoak dirala, artatxoriak barik usoak dirudie.

## BUENOS AIRES, HAIZE KORRONTEAK

Buenos Airesera etorri gara. San Telmo auzo zaharrean hartu dogu ostatua, konbentu izandako etxe baten. Konbentuak etxebizitza txikietan egozan bananduta, barruko patiora begira. Bertan aloger merkeagaz bizi ziran beharginak, txiroak, pobreak. Auzoa ederra da, harriz egindako kaleak, etxe zaharrak. Eta astegoienetan, merkadua egiten dabe: tango dantzariak, txotxongiloak (benetan onak!), gauza zaharrak saltzen... Giro ederra dago.

Buenos Aires handia da, eta uri gehienetan pasetan dan moduan, jentea priesaz, denporearen kontra. Kotxeak be abiadura handian. Ezin izan dogu jakin zein dan abiadura mugea, edo dagoanik be! Kotxeak eta autobusak arin-arin doaz, baita taxiak be. Hutsik badoaz, baina, astiroago joaten dira, oinezkoak bezero izan leitekez. Bidea alde batetik bestera edo zebra-bidetik pasetea abenturea be izan leiteke. Batzuetan esan lei ikusten zaituenean arinago be badoazela, eta mamu baten moduan zure atzetik etorriko dirala atrapau arte. Ez da harritzekoa Buenos Airesen baka-rrik urtean lauhun persona kotxe istripuetan hiltea.

Buenos Aireseko auzoetan banatzen dira jentea eta bizimoduak. Recoleta auzoa, esaterako, aberatsena da. Joan dan XIX. mendean uria gaixotasunen menpe egon zanean, aberatsak goiko alderdira joan ziran, gaixoengandik igesi. Etxe dotoreak dagoz, halan ba. Eta bertan egiten dabe Argentina osoan ezaguna dan azokea: Frantzia plazako azokea. Hainbat eta hainbat artisau etortzen dira hona euren beharrak saltzen. Ez da erraza azokan

postu bat izatea. Esan deuskuenez, artisauek antolatzaileen onespena behar dabe plazan saltzeko. Baina ez dira artisauak plazan dagozan bakarrak, izan be, jatekoa be saltzen dabe. Ganera, astrologoak, eskua irakurten dakienak, gorputzaren energia aztertzen dabenak be badagoz, gura beste.

Beste auzo bat Palermo da. Azkenengo urteotan hara joan dira diseinatzaileak euren dendak edegiten. Auzoari diseinu sormena dario. Taberna eta jatetxe ugari dago, janari berezia eta gaueko bizimodua eskaintzen dabezanak batez be.

Obeliskoa, uriko ikurra. Corrientes kalearen ondoan dago, eta kalean bertan uriko zineak, antzokiak eta kultura arloko tabernak dagoz. Kultura mogimentua handia izan da beti, eta oraindino be bada. Tradizino handia dago zinera eta antzerkera eta kultureagaz eta arteagaz loturiko ikuskizunetara joateko, eta krisiak jo badau be, goi eta erdi mailako klaseek tradizinoari eusten deustie.

Corrientes kalea beti egon da idazleai lotuta. Cortazar be kaleonetan batzen zan lagunakaz. Artisten eta intelektuaren korronteen bizileku eta eztabaida tokia izan da. Bertan dago Buenos Aireseko kaferik zaharrena, idazleen batzartokia, eta gaur egun irratsaio baten beharlekua. Hormai begiratzean ehun urte atzera egin zeinke eta mendea barrutik begiratu, sasoiko bentanaka ikusi: artisen argazkiak, andrak, gizonak, aspaldiko bizimodua... Eta taberneak berak oraindino giro horri eusten deutso. Kalea ezaguna da Argentina osoan, bertan antzezten dira musikalak eta antzezlanak-eta. Lanik onenek bide luzea egiten dabe hemen agertu baino lehen. Zineak be ezagunak dira, eurretan Argentinako filmak, Hollywoodekoak zein Europakoak emoten dabez-ta. Buenos Airesen egon garan bitartean, Frantziako zineari eskainitako ziklo bat ikusi dogu, Argentinako pelikulak eta dokumentalak, eta Europako hainbat pelikula be bai. Hau ez da Hollywoodeko inperioa. Arteak be badauka lekua: erakusketak, artisen monografikoak. Badago zer ikusi.

Corrientes kalean dago kulturearen inguruko bizimodua. Kalean liburu-dendak inon baino ugariagoak dira, papera eta



kartoiak ideiak zabaltzeko, munduak sortzeko. Gauetan, kalean kartoneroak batzen dira, ideien atzetik barik, jatekoaren atzetik. Buenos Airesen kanpoaldeetatik etorten dira eta zaztar boltsak zabaldu eta barruan beste batzuek baztertu dabena topetan ibiltzen dira. Izan be, pobrezian bizi diranak gitxienez % 40 dira. Ez da gitxi, ez. Gauez datoz eta gauez joaten dira, trenez, autobusez edota bizikletaz. Batzuek dendetako gurdiak daukiez batzen dabena eroateko eta hurrengo egunean saltzeko. Egunez, kalean jentea eskatzen ikusi izan dogu, umeak, amak, gazteak...; ume batzuek soinu txiki bat hartu eta daukazan botoi apurrai sakatzen emoten dabe egun osoa.

Peruko Colca zintzurrean ikusi genduan lez, eta gero Bolivian eta Argentinan be, AEBetatik eta Europatik etorten dira bertokoen arimak salbau guran. Gau aldera batzarrak egiten dabez, mezak. Gaur be batzarra izan ei dabe, kanpoaldean ikusi dodaz zinetik urten dodanean. Handik hur, aldean tangea eta sostena baino ez daukiezan neskak, tabernako barraren barruan, edariak serbiduten deutsez gizonai. Tabernea txikia da, nesken gorputzak ia biluzik dagoz.

Eta dana Corrientes kalean dago. Korronteena da kalea.



## URUGUAI: ABENTURATXU BAT

Goizeko zortziretan txiripaz izartu gara, iratzargailua zazpiretarako imini bai, baina “on” botoitxuari sakatu barik. Ferrya bederatziretan da! Altzau, dutxau, jantzi eta armozua jan, prezioan sartuta dago-ta. Kalera urten, taxi baten bila. Taxi-gidaria sano jatorra izan da, euskaldunak garala-ta, baietz ahalik eta ari-nen joango garala. Bederatzirak bost gitxiagotan ailegau gara. Zein ondo! Pozik sartu gara terminalean, txartela erosten joan garanean irribarrea handiagoa egin jaku: ezin dogu txartela erosi, zarratuta dago. Hurrengo ferry merkeak gaueko hamabi eta erdietan urtengo dau. Bazter bat geuretu eta itxaron: lo egin, liburua irakurri, dendako aldizkariak eta egunkariak dendan irakurri, Interneten sartu, berba egin, barre egin, jentea ikusi, janari merke eta sano *osasuntsua* jan... Eta gaueko hamabi eta erdietan, ferryra sartu. Bi jesarleku handi hartu, eta pelikulea hasi danerako loak hartu gaitu. Handik hiru ordura, Uruguaira ailegau gara, Colonia de Sacramentora. Lauretan portuko terminala zarratu dabe. Hur dagoan autobus geltokira joan gara, motxilak itxi doguz eta herria ikusten joan gara; polita da: harrizko kaleak, kolore askotako etxetuak, eta goizeko seiretan nasaitasunaren nasaitasuna. Ez dogu euki dirurik, eta kutxa automatiko baten bila ibili gara, eta aurkitu doguz... diru barik. Astelehena da eta antza astegoienean egon dan diru guztia hustu dabe. Hain goizetik izanda, dana itxita dago. Gose naz, Ekaitz ia ez da gose. Berak gosearena nahiko ondo eroaten dau. Niri aszeta alderdi hori ez jat

heldu. Gorputzean zeozer sartu baino lehen orduak pasauko dirala ikusita, hareatza baten bila joan gara. Etxun, eta begiak itxi orduko loak hartu gaitu. Ordu bi egin dogu lo, txakur bi etorri diran arte guri usain egiten, nondik gatozan jakin guran-edo.

Kutxa automatikoak hutsik egon dira goizeko bederatziretan be. Udan ordutegi benetan berezia daukie hemengo bankuek: arratsaldeko ordu batetatik lau eta erdiak arte. Dendara joan gara zer edo zer jateko.

Eguna ondo baino hobeto pasau dogu: urrinen dagoan hareatzara joan gara, geure senari jarraituta. Rio de la Plata aurrean, eta atzean arbolak, palmondoak, bedarra eta musika ona daukan taberna. Hareatza nasaia da, harea ia zuria da, eta erreka ura gorri kolorekoa, baina garbi dago.

Arratsaldean Montevideora joan gara. Colonia lar karua da. Montevideoko autobus geltokiko turismo bulegoan sartu eta leku merke bat topau dogu. Windsor dauka izena, aristokratikoa. Hoteleko argazkiak ikusi doguz: etxe zaharra eta polita. Ganera, Mario Benedetti bizi dan kalean dago! Ea ikusteko erarik daukagun! Hotelera ailegau, eta etxe zahar-zahar bat ikusi dogu. Kuartuan ohe bi; ohean jesarterakoan jakin dogu koltxoi zaharra zer dan. Koltxan orbanak dagoz, garbituta be kendu ezin diranak (hori pentsau gura dogu). Komuna pisuko ganerakoakaz batera daukagu. Kuartuan konketea dogu... ur barik. Bentanea be badaukagu, aspaldion ez dogu izan kalera joten dauen bentanarik. Eta holan gauean gozau egin dogu trafikoaren soinuaz, altu berba egiten dabenen berbakera gozoaz. Luxu bat.

Benedettik esan ebanez, Montevideo ezin lei esan herrialde bateko uriburua danik, herri handi bat dala esan lei. Jentea ez dabil arin-aringa, eta kotxeak be ez. Alde handia dago Buenos Airesegaz. Eguerdian portuko merkadura joan gara, ezaguna da egiten daberen jatekoagaitik. Biderik luzeena hartu dogu: galdu egin gara eta portu osoa ikusi dogu.

Merkadua ederra da, egurrez eginda. Prezioa be horren neurrikoa da; kartereak agintzen dauenez, karutxua eretxi deusagu.

Eta beste leku baten bila joan gara. Bat topau dogu: merkea, eta jentea jaten. Ganera, arraina be badaukie, lebatza. Zein ondo! Ekarrri, eta jan dogun arte. Lebatzaren erdia ez da egon lar txarto, beste erdia platerean eta zapian itxi dogu. Handik urten eta izozki bategaz ospatu dogu otordua.

Windsorreko gauak bereziak izan dira: gauero eulitxu txikien zitzadakaz izartu izan naz. Eulitxuak txiki-txikiak dira, harik eta odola ateraten deutsuen arte. Gero loditxuak dira: ez dakit zelan egiten daben hegaz! Akorduan izateko granotxu bat ixten deutsue, itzezlezko azkurea emoten deutsuna, kremea emon arte. Ekaitzek aszeta sena landu dau. Berak azkureari aurre egiten deutso. Ordu erdiz ez badozu granotxuai ikutzen, ez dozu ia azkurarik. Ahalegindu naz, baina ezin izan dot autokontrolik lortu.

Montevideo ederra da. Ederra eta berezia. Apalak dira urugaitarrak. Herri handi biren erdian bizi dira: Brasil eta Argentina. Eta eurek eurenari eutsi deutse. Jentea kalean, autobusetan, ikusten dozu, eta atrapau ezineko zeozer daukie. Euren jazkerek, ibilkerek, gorputzek eta berbakerek zeozer daukie, berezia. Samurra dana, gozoa. Matea eskuetan, matea boltsetan, horretarako beren-beregi egindako narruzko boltsak, trajez jantzitakoak, jesarrita dagozanak. Matea edatea, jatekoa baino inportanteagoa ei da. Bolivian koka orria, Uruguain mate bedarra.

Egunez, Montevideon hareatzetara joan gara, eguzkitan egon, Rio de la Platan bainau. Jan ondo eta merke egin dogu. Eta jente jatorra eta apala topau dogu, benetan atsegina. Irribarreak berbakaz batera urteten deutse.



## DI-DA BATEN HIPPY BARRIEN MUNDURA

Montevideotik iparraldera joan gara, esan deuskue sano polita dala. Han natureari ahal dan kalterik gitxien egiten saiatu dira: bide asko asfaltau barik dagoz, gauaz ez dago argindarrrik, eta etxe gitxi dago.

Gaueko bederatziretan ailegau gara neo-hippyen mundura, dana sano guai. Aterpetxean ez dabe izan lekurik, eta baserrietan daukien prezioa hotel garesti batena da. Lozakuak daukaguz eta, dendarik euki ez arren, kanpinera joan gara. Dana sano naturala da: komun-ontzia lurrean dago sartuta, ez dauka hankarik. Ondo apainduta dago komuna, aurrekoek itxitako gomutagarriakaz. Kanpoan western pelikuletako dutxea dago, ateraten dan ura hari fin baten modukoa da. Lekua hartu dogu, motxilak eta lozakuak itxi doguz eta dendara joan gara gosea kentzeko amesagaz. Ogia, tomatea, erraz zabaltzeko atun latea eta ardao botilea erosi doguz. Inoz ez dot egin lo izarpean, eta ardaoagaz ospatu dogu nire lehenengo gaua. Halan jakin dogu zelakoa dan hemengo ardao nuklearra.

Lotara joan garanean, Euskal Herriko lagun batek itxitako lozakua zabaldu dot. Berak erabili bakoa. Esan eustan ondo jago-teko, berezi-berezia zala. Jaubea ez da txikia, baina lozakua “xs” bat da. Bularrerraino ailegetan jat, eta makurtuta ia lepo osoa sartu neike. Zein ondo! Handik gitxira loak hartu gaitu. Harik eta kolpetxu bat igarri dodan arte: ez daukat gogorik altzetako, gaua

da oraindino. Beste kolpe bat, eta: “Altzau, euria da-ta!” Ordurako tanta batzuk igarri dodaz eta horren ostean gehiago. Tanta guztiak arrapaladan etorri jakuz. Dana ahal izan dogun moduan batu, eta kanpineko sarrerara joan gara aterpe bila. Fraka luzeak eta jertsea imini doguz, ez dau berorik egiten eta.

Aterpean hiru mahai dagoz, “xs” neurrikoak honeek be, eta sei banku mahai lotuta, neurri berekoak. Beste bikote bi dagoz, eta, antza, nahikoa leku dogu seirontzat. Motxilak mahai ganean itxi doguz, behearen ganea ur eske dabilela esan lei-ta. Goizaldeko ordu biak izan dira: lau ordu, eguna argitu arte. Ekaitz izarri-rik geldituko ei da, ez da logura-ta. Ekaitzen bernen ganean imini dot burua, baina ez, ezin dot lorik egin. Bankuan jesarrita egon gara, eta haizea dabil, freskotxu; bernen ganean “xs” neurriko lozakua imini dogu, eta burua haizetatik babesteko Ekaitzen lozakua erabili dogu. Ekaitzek nahikoa izan dau horregaz, handik hamar minutura loak hartu dau-ta. Baina nik ez deusat ixten lo-ri ni hartzen, ez, ez. Beste bikote biak be lo dagoz. Urduri parau naz, eta altzau egin behar izan naz. Euria eta haizea, haizea eta euria. Aterpean bost pausu baino ezin dodaz egin: bost aurrera, bost atzera. Liburua hartu dot, eta irakurteari ekin. Bost pausuko ibilaldi asko eta asko egin dot liburua eskuetan dodala. Seiretan Ekaitz izartu dot. Euria egiten segidu dau, bihar gauean ezin izango dogu kanpoan lo egin, lozakuak bustita egongo dira-ta. Handik alde egitea erabagi dogu. Geltokian bi orduz itxaroten egon eta gero, geltokia zabaldu dabenean esan deuskue hurrengo autobusak eguerdian urtengo dauela.

Gose izan gara, eta dendan zeozer jateko erosi eta gero, zabalik dagoan tabernara joan gara. Apur bat lohi dago, apur bat baino gehiago: sano. Barraren bestaldean topau dogun gizonak berrogeta hamar urte baino gehiago eukiko dauz, eta beste horrenbeste kilo sobran; alkondara barik egon da-ta kiloak ikusteko aukera parebakoa izan dogu. Bizarra be oraindino egin barik. Tabernea eta komuna ez, baina kafea ondo egon da. Armo-zuaren ondoren, hondartzara. Polita benetan. Bedarra eta arbo-



lak, hondartzaraino. Aurrez aurre Itsaso Atlantikoa dogu. Olatuak indarrez jotzen dabe, Euskal Herria dogu gogoan. Hareatzaren inguruan ez dago ia etxerik, eta dagozanak egurrezkoak. Pozik egon gara, eta hats antojugarri bategaz be disfrutau dogu. Antza, handik kilometro batera itsaslehoi bat dago, hilda.

Eguerdian Montevideora, eta gero Coloniara. Gauaz gozau dogu, batetik bestera ibili gara. Hamarretan gasolindegiko denda-tabernea itxi dabe; hamabietan, autobus geltokia itxi dabe. Kanpoan, kalean geratu gara. Goizaldeko lauretan portua zabaldu dabe. Eta primeran pasau dogu kale txakur bigaz: gure ondo-ondoan gura izan dabe burrukan egin, zaunken artean. Txartela erosi dogu, eta mugako poliziak papertxu bat eskatu deusku. Zein? Geuk be, Laboaren harria biltzen eban papera lez, bota egin dogu. Zein ondo!, eta isuna pagau dogu. Eskerrak peso uruguaitarrak dirana!



## TXOBERNE, BUENOS AIRESEN

Buenos Airesen gagoz osterara be. Ama eta ahiztearen bila joan gara aireportura. Hau poza! Amak eta Agurtzanek ez dabe ikusi Ekaitz urtebetean. Pozarren alkar ikusteko, osterara alkarregaz egoteko.

Betiko moduan ikusi doguz aireportuko ateak zeharkatu dabezanean: eder. Poza dakarre arpegian. Aspalde, eta, aldi berean, atzo bertan ikusi doguzala esan lei. Berbeteari ekin eta Bakio eta Txoberne bertan doguz, Buenos Airesen. Asago egiten jaku hango egunerokoa, hango bizimodua. Txobernetarrok batera Buenos Airesen! Badogu zer kontau, baina guk entzun egin gura dogu ea zer jazo dan Euskal Herrian, etxean, Bakion.

Sinisteko gatx egiten jaku Buenos Airesen alkarregaz egotea. Motxilero biajea eten dogu. Orain oporretan gagoz. Uria beste begi batzukaz ikusi dogu. Boltsikoan dirua daukagu orain. Jatetxeetan jan eta leku turistikoetara joan.

Ama, aita itsasontzi kapitana zala, orain dala hogeta hamar urte Buenos Airesen egon zan eta kontu kontari ibili jaku, aspaldiko gauzen ganean. Zirrargarria izan behar dau, horrenbeste denpora igaro eta gero, leku berera bueltetea. Orain dala hogeta hamar urte Ekaitz eta biok jaio barik, bere bizitzaren erdia egin barik. Eta orain atzera begiratu seme-alabak ondoan dozuzala, orduko geroa ondoan dozula... Eta zoriontsu izan.

Buenos Aires be beste era batera ikusi dogu. Boca auzoan etxeak ikusi izan doguz Ekaitzek eta biok. Oraingoan, baina,

jatetxe baten jan eta tango ikuskizuna ikusi dogu, baita dantzan egin be. Nik ez dakit, baina tangoan inportanteena mutilari segidutea da, eta horixe egin dot, eta ondo pasau be. Amak badaki dantzan eta igarri da, dotore, inork baino eleganteago.

Argentinarek sormena ez dabe musikan eta zinean bakarrik lantzen, kanpoan ikusi eta entzuten dogunez. Diseinuzko erropen eta altzarien dendaz josita dago Palermo auzoa. Jatetxeak dotore-dotore apainduta dagoz. Eta jatetxeen eta denden artean krisiaren ondoren sortutako jantoki publikoak ikusi doguz, aldarrikapenez jantzita. Ez da ahaztu behar.

Ederra izan da hau dana ama eta ahizteagaz egitea, alkarregaz egotea: barre egin, jardun eta alkarregaz disfratau.

Ama dantza ikastarora joan izan da egunero. Non Buenos Airesen baino hobeto tangoa hobetzeko! Zapatu gauetan *porteño*-ak tangoa dantzetako batzen dira. Gu irakaslea joaten dan dantzalekura etorri gara. Eurak lez geu be dotore. Afaldu eta gero, dantzaldia. Adin guztietakoak, dantzarako prest, eta musikea joten hasi diranean, liluratuta ikusi doguz bikoteak zapatak arrastaka eroaten, pasinoa barruan dabela, arpegira ia urten guran. Halako baten alkarri mosuka edo negarrez hasi beharrean, arpegian erdi erakusten. Tangoaren edertasuna.

## UDATIARREN ANTZEAN

Buenos Airesetik Uruguaira joan gara, Colonia de Sacramento, hara joaten da-ta Buenos Airesetik urteten dauen ferrya. Oraingoan dirua ez da izan inportantea, eta bertan hiru egun emon doguz hareatzan, eta herria, Giza Ondare Historikoa dana, barrero ederresten. Sacramenton etxe gozo baten egon gara, La Posada de los Poetas izenekoan. Etxeko bikoteak hilebete bi lehe-



Gizona matea edaten (Uruguai).

nago idegi dau. Montevideo atzean itxi eta bizimodu barri bati ekiteko etorri dira, alabeagaz batera. Etxean ederto baten egon, eta ondo baino hobeto jan dogu. Gustura laurok be.

Matea da Uruguaiako pasinoa. Mate bedarra guaraniek edaten eben infusinoa da, eta Paraguain, Argentinan eta Uruguain asko edaten dabe, baita Brasil hegoaldean be. Zeremonia bat be bada. Matea egiteko hauxe behar da: mate bedarra, ur beroa, tutu txiki bat eta edalontzi berezi bat. Berez edalontzia kalabazaz egindakoa da, baina gaur egun danetarik dago: metalezkoak, zurezkoak, adarrezkoak, kristalezkoak... Basua ia bete arte bota behar da bedarra, eta gero gitxi-gitxika ura. Zaporea nahiko garratza da, baina ohitu eta gero, gozoa be bada. Ez da etxean bakarrik edaten, kalean be edaten da. Narruzko boltsa bereziak be badaukiez Uruguain, eta han gordetan dabe mate bedarra, termoa, basoa eta tututxua. Uruguaitar batek esan deuskunez, altzetan danean egiten dauen lehenengo beharra matea preparau eta edatea da; hortik aurrera hasten da eguna. Bakarrik barik, lagun artean edaten dabe. Parkean bulegoetako gizonak eta andrak ikusi daikezuz matea edaten, hareatzan oinak uretan eta itsasoari begira matea edaten, kotxean argi gorria noz biztuko zain dagoanak be matea dauka esku artean...

Itsaso Atlantikoko kostaldera joan gara, La Palomara, ahizteak eta amak hondartzea gura dabela-ta. Hareatzatik bi minutura dagoan etxe baten egon gara, eta bizikletaz herrian ibili. Gure artean berba eta berba egon gara, aspaldiko kontuen ganera jarduten.

Sasai baten Brasileko mugen barruan egon zan Uruguai, eta esan leiteke aztarna berezia itxi ebela bertan. Ezagun eta lagunakaz egotea sano inportantea da eurentzat, Buenos Airesen ezagutu genduan uruguaitar batek esan euskunez. Esaterako bidean topetan dabezan lagun eta ezagunakaz berba egiteko astia izateko, ordubete lehenago urteten dabe; hau da, hamarretan medikuarenean egon behar badabe eta hogei minutuko ibilalditxua

badaukie, bederatziak lauren gitxiagotan urteten dabe. Pozik ego-  
teko be astia hartzen dabe.

Herrialde txikia da Uruguai, hiru bat miloa eta erdi biztanle  
baino ez. Montevideon oraindino baltzak badagoz, ez dabezalako  
danak hil, Argentinan egin eben legez. Tangoa dantzetan dabe, eta  
euren berbakerearen doinua be gozoa da. Apalak eta jatorrak,  
holan ikusi doguz uruguaitarrak, harrokeria bakoak.

Hego Ameriketean edozeinek esan deikezu egiarik handiena,  
poesiarik ederrena, ahoa zabaldu eta barruan daukien magia ate-  
rata. Hori era ederrean agertu izan deusku Galeanok bere libu-  
ruetan. Eta Benedettiren testu eta poesiai be edertasuna darie:

Claro eran otros tiempos y Montevideo  
Era una capital linda provinciana  
Sin capital a la que referirse  
Y con ese trauma no hay terapia posible  
Eso deja huellas en las plazoletas...  
Siempre estabamos llenos de exiliados  
Ahora en cambio somos exiliados  
Pero la diferencia no reside en la i.





## PATAGONIA: HONDARTZEA, ZINEA ETA UR BAKO PORTUA

Buenos Aires eta Uruguai atzean itxi, eta pozik hartu dogu Patagoniarako bidea. Hegoaldeko hotzean sartu baino lehen, kostaldeko herri batera joan gara, Las Grutasera. Argentinako sindikatuak profesinoen araberakoak dira, eta herrian kideentzako kanpalekuak dagoz. Gu postarien sindikatuarenera joan gara. Patagoniako familia asko hona etorten da udea pasetan. Hondartzako giro ederrean, familiak eguzkitakoaren inguruan batzen dira. Aulkiak ekarten dabez, eta egun osoa bertan emoteko behar daben guztia. Ekaitz eta biok eguzkiaren jainkoaren azpian gogozan bitartean, familiak olgetan dabilz: petankan, boleibolean, futbolean, kartetan... Etxunda eta jesarrita baino denpora gehiago emoten dabe olgetan eta lehiaketan: familia bat beste baten kontra, nagusiak gazteen kontra... Mobimentu handia dabil hara eta hona. Jatekoa saltzen dabilzanak be ez dira gitxi: izozkiak, gaztaia, txurroak... Gurariari ezin izan deusagu ezetz esan, eta hondartzan emon doguzan egunetan danetarik probau dogu.

Hango eta hemengo hondartzak bardin antzekoak dira. Hemen be umeak galdu egiten dira. Halakorik jazo ezkeru, baten batek umea lepoan jarri eta txaloka hasten da, eta beragaz batera inguruan dagozanak. Hondartzan gora eta beheara, umeagaz joango da, txaloak beragaz batera doazala, familia topau arte.

Gauetz be girotxua dago herrian. Artisauak agertzen dira eta merkadu txiki eta polita egiten dabe kalean. Umeentzako kale-

antzerkia be badago; eta tabernetan, kontzertuak. Zinea be izan dogu hondartzan eta Argentinako film pare bat ikusi dogu. Bertokoak ondo antolatuta etorten dira zinera: jesarlekuak eta mantak ekarten dabez. Baina hori ez da izan nahikoa, bigarren gauean euria hasi danean. Lehenengo pelikulea ikusi eta gero, handik joan egin behar izan gara. Etixerako bidean Patagoniako garagar-daoa probau dogu, eta geure onespena emon deutsagu.

Autobusean sartu gara ostera be Puerto Madrynera joateko, Valdes peninsulearen ondoan. Autobusetik ikusi dogun paisajea lau-laua da, ez dago mendirik. Zerua inoz baino handiagoa da eta kupula baten moduan babesten gaitu. Ez dago hodeirik eta eguzkiak kupulatik bazter guztiak argitzen dauz. Puerto Madryn izena Galeseko herri batena da. Orain dala ehun eta berrogei urte inguru galestarrek ituna sinatu eben Argentinako Gobernuagaz; izan be, Argentinako Gobernuak hegoaldea Ipar Europako jenteagaz bete gura eban. Hainbat galestar etorri ziran hona ingelesengandik igesi, hemen euren aberri barria egin guran. Eurotariko askok ez eben topau amesetako lurra eta atzera Galesera joan ziran. Geratu ziranek hemengo lurrai Galesko izenak imini, eta hartu-emonak izan ebezan indigenakaz. Indigenek asko lagundu eutseen hasieran, bertoko eguraldia benetan gogorra da-ta. Gaur egun be, galestarrek ohitura batzuei eutsi deutsee: tea eta gozogintzea; eta galesez be irakasten dabe orain-dinokarren.

Izenak adierazoten dauen lez, Puerto Madryn portu bat da. Charles Darwin munduko bazterrak aztertzen ibili zanean, hementik igaro eta leku egokia eretxi eutsan portua eregiteko, kostaldekak herria itsasotik babestuko ebalakoan. Eta halan altzau eben herria, errekarik ez izan arren. Puerto Madrynek ez dauka ur gazirik, eta kanpotik ekarri behar dabe erabilten daben ura. Herria arrantzaleena be bada, eta arrain ona dago eta ondo preparamu dabe arrantzaleen alkarteko jatetxera joan eta ederto afaldu dogunean. Hondartza ondoan, itsasoko olatuen doinua lagun, eta iretargiaren eite bereziak argitxua eskainita.

Udea da eta hemen be, Las Grutasen antzera, ekitaldiak antolatzen dabez, ikuskizunak egiten dabez bertoko eta kanpotarrentzat. Guk Fito Paez ikusteko aukerea izan dogu, hondartza ondoran. Jentetzea batu gara bertan, gazteak, gaztetxuak, nagusiak, umeak, bikoteak, danak adi, kantetan.

Valdes peninsulea ezaguna da hona urtero-urtero datozen animaliakaitik: izurdeak, pinguinoak, itsas lehoiak, orkak, itsas elefanteak eta baleak. Orain ez da baleak batzen diran sasoia. Antza ikusgarria da kostaldetik hogeta hamar bat metrora baleak zelan alkartzen diran bikoteka, eta gero emeek kumeakaz daukiezan hartu-emon estuak ikustea. Hori hurrengo baterako itxi beharko dogu. Itxas lehoiak, pinguinoak eta itxas elefanteak ikusi doguz, euren benetako bizilekuan. Euren berezko giroan eta tokian, hondartzan eta uretan. Eta pentsau dodana baino ikusgarriago eta zirrara garriagoa izan da. Hur sentiduten dozuz, eta haren izakerearen alderdi bat begien aurrean ikustean, barrua be bete egiten jatzu.



## ITSASOKO PIZTI ZORAGARRIAK

Txalupaz itsasoan sartu gara izurdeak ikusteko. Bidean fokak be ikusi doguz. Zorionekoak izan gara, fokek ia denpora guztia, % 90 baino gehiago, urpean emoten dabe-ta. Hemengo izurdeak be ikusi doguz: beheko aldea zuria daukie, eta goikoa iluna. Politak. Itsasoa bare-bare egon da, eta ezin urdinago, zerua lez, hodei bat bera be ez da egon. Nahiz eta txalupea jentez beterik egon, disfrutau egin dogu, animaliak horren paraje ikusten.



Pinguinoa Valdes peninsulan  
(Argentina).

Handik Tombo puntara joan gara. Kontinentean dagoan pinguino koloniarik handiena da: miloa bat baino gehiago. Uri handi bat lakoa. Pinguinoek habia egiten dabe, euren alortxua, eta ondo babestu be. Eta personen moduan, edo geu hareen antzean, dabilz atzera eta aurrera, uretan sartzen, paseoa egiten. Nik neuk lehenengo aldiz ikusi dot horrenbeste animalia batera eta berezko lekuan. Eta egia esan, ikusmoldea aldatu egiten jatzu. Animaliak beste begi batzukaz ikusi dodaz. Orain arte, animaliak (etxeo katuaz aparte) nigandik berezita bizi diran izakiak izan dira. Bai, neuk bere ETB 1eko dokumentalak ikusi izan dodaz, eta gustukoak dodaz. Halanda be, inoz ez dodaz basapiztiak hain paraje izan, eta zentimetro gehiago daukaguzala ikusi dot, buruan be, baina ikusi dot antzekoak be bagarala. Banatzen gaituana ez da horrenbeste be. Animaliak hain hur izateak barrena irauli egin deust. Desbardin sentidu eta ikusi dodaz. Eta hori liluragarria izan da.

Pinguinoek lur eremu handia daukie eta hona etorten dira urtero kumeak egiteko eta azala aldatzeko. Lehenengo arrak etorten dira aurreko urtekoa txukuntzeko, eta hasibarriak, habia egiteko. Lurrean zuloa egiten dabe, normalean zuhaixka baten babesean. Gero emeak etorten dira, bikotekideagaz batzeko eta txitak egiteko.

Era guztietako pinguinoak ikusi doguz: txitak aitagaz edo amagaz, gazteak lumak aldatzen, zaharrak lumak aldatzen, gazteak gazteen koadriletan... Pinguinoak harro-harro pasetan dira zure aurretik, kulunka, bilin-bolo, baina harro. Edo, sikeran, horren antza hartu deutsegu. Uretara sartzeko etxun eta laban egiten dabe. Eta uretan, olatuakaz batera dabilz atzera eta aurrera. Uretatik urtetea egiten jake gatzen, olaturik txikerrenak be hurrera botaten dauz. Danetarik egiten ikusi doguz: azala txukuntzen, jaten, txitai jaten emoten, lotan, eguzkitan, etxunda, ibiltzen, uger egiten, uretara sartzen, uretatik urteten... Zoragarria da horrenbeste animalia euren bizimodua egiten ikustea, diran moduan ikustea. Zelan ez dogu ikusiko, ba, gure antzekoak dirala.

Hildakoak be ikusi doguz. Normala ei da, pinguinoen bizilekua danez, zaindarien ez deutse ezeri ikutzen. Kolonia hau sano handia da, beharbada lar handia. Pinguinoak beste leku baten bila be joan izan dira. Batzuk Valdes peninsulara joan dira. Kostaldetik hur, arrantzaleak ibiltzen dira antxoan eta bestelako arrainen bila, eta pinguinoek horren eragina be igarri dabe. Orain urri-nago joan behar dabe jateko bila.

Valdes peninsulea sano garrantzitsua da munduko alderdi honetako animalia migratzaileentzat. Baleak, pinguinoak, itsas lehoiak eta itsas elefanteak hona etortzen dira urtero ernaltzen, eta azala edo lumak aldatzen. Valdesen itxas lehoiak be ikusi doguz, eta benetan ikusgarriak dira. Goitik ikusi doguz hareatzan daben kolonian. Taldean ar nagusi bat dago, eta emeak ehun be izan leitez. Danak estalten saiatzen da, gatx dauka, jakina; eta bazterrean dagozan arrak emeak estali guran ibiltzen dira. Surfa egitea be gustukoa dabe, eta olatuak hartzen dabez hareatzaraino. Beste batzuk, osterak, uragaz olgetan dabilz: sartzen, urtetzen... Hareatzan orroaka ibiltzen dira, eta goitik itzelezko zaratea entzuten izan dogu.

Itsas elefanteak be ikusi doguz. Itzelak dira, handiak, erraldoiak... arrak zazpi tona ingurukoak izaten dira. Inoz ikusi dodan pizirik handienak dira. Azala aldatzen dagozanez, ez dabe ezer jaten, eta ia mobidu barik hareatzan dagoz. Animaliena barik arroken antza daukie.

Hauze izan da animalia basatiak euren erara ikusi dodazan lehenengo aldia. Lehenagotik zirkuetan eta zooetan ikusi izan dodaz, baina ez dauka zer ikusirik. Han ez dagoz euren bizilekuan, euren bizimodua egiten. Eta gehienetan nahiko negargarria izaten da zelan dagozan han. Basapiztiak euren bizilekuan ikustea bizitza ikustea da, dan modukoa, eta animaliez bestelako ikuspegi emoten deustu. Hurrago sentiduten dodaz orain. Gorputzean zirrada berezia itxi deuste. Esperientzia betegarria izan da. Desbardinak gara, baina beharbada ez guk pentsetan dogun beste.





## USHUAIARANTZ

Puerto Madrynen beste hiru egun egin behar izan doguz itxaroten, autobusez joan ahal izateko. Argentinarrak oporretan dagoz, eta jente asko dabil. Hegazkinez joateko erea izan dogu: lehenengo klasean. Baina pentsau dogu gurago dogula autobusez joan eta hemengo harriak hogeta sei orduz gure eperdian sentidutea. Hori bai bada lujua!

Patagonia lau-laua da. Sikua, hemendik dabilen haizeak dana eroaten dau beragaz. Landaredia, ezinbestean, txikia, neurri apalekoa da. Arbolatxuak zuhaixkak dira. Hemengo handitasuna zeruan datza. Zerua da Patagonian jaun eta jaube, berak hartzen dauz bere baitan parajeak, zabala da. Edonora begiratzen dozula, zerua agiri jatzu: harro. Ikusgarriak izan dira iluntzeak. Luzeak, luze-luzeak. Eguzkia gitxika-gitxika doa bestaldera. Eta handik behetik argi egiten segiduten dau, luzaroan, munduko beste alderdi bateri eguna dakartson bitartean. Hodeiak doazala, mehetuz doaz, lerro bihurtzen arineketan eguzkirantz doazala dirudi. Eguzkiak indar berezi bat eukiko baleu lez, hodeiak eta lainoak bereganatzeko.

Patagonia izenak be badauka bere historia. Magallanes eta Elkano munduaren bueltea egiten ebiltzala, hemen lehorreratu ziran. Bertakoak sano handiak ziran: 1,80 eta 1,90 metro inguru-koak. Sasoi haretan European baegoan liburu bat, sano ezaguna zana. Liburuaren protagonistea heroi bat zan, handia, eta Patagon izena eukan. Eta hortik ei dator Patagonia izena.

Rio Gallegosera ailegau gara, baina ez daukagu txartelik hurrengo egunera arte. Egunean autobus bakarra dago Ushuaia-  
ra joateko. Rio Gallegos kontinenteko azken herria da Suaren Lurraldeko islara sartu baino lehen. Hemen geratzea ez zan izan-  
go txarra, polita izan balitz. Motza da, baina.

Aterpetxera joan gara: leku berezia zelanbait. Tinbrea jo eta musika-kaxako doinutxua atera jaku. Musika-kaxako musikearen antzera, luzaroan jo dau tinbreak. Gizon batek zabaldu deusku atea, uleagaz hartu-emon berezia daukana: gitxitan nahastetan ei dau ulea, eskuak, txanpua eta ura. Kuartura eroan gaitu. Kuartuko horma-papera marraduna da, eta esan lei munduko marra guztiak bertan dagozala: berdea, zuria, berdea, zuria, berdea, zuria, berdea, zuria...

Herrian osteratxua egiten joan gara. Autobus barruan hainbeste denpora jesarrita emon eta gero, gustura sentidu dogu haizea. Ganera, haizeak polito joten dau herrian. Etxerako bidean kitanu batzuk ezagutu doguz: ea nondik gatozan, ea zer egiten gabilzan... Euren arbasoak Hungariatik etorri ziran eta oraindinarren hizkuntzea gordetan dabe. Andrek gona luzeak daukiez kolore argikoak, eta ule luzea txirikordetan batuta, eta arrakada luzeak, zidar landuagaz eginda. Gustura egon naz andrakaz berbetan. Bitartean, gizona Ekaitzeri kotxe handi bat saldu guran ibili jako: bidaiatzen bagabilz, hobe dogula kotxea erostea...

Hurrengo egunean hostaleko ugazabandregaz egon gara. Aterpetxean era guztietako elefanteak daukiez: tronpea gora daukiela, behera daukiela, gorriak, berdeak, ilunak, urdinak, berdeak, txikiak, handiak... Elefanteen ganera itaundu, eta esan deusku elefante guztiengan sinisten dauela. Kontau deusku orain dala urte asko, Alfonsin agintean egoala, berak eta gizonak beharra galdu ebela. Diru gitxigaz ibili ei ziran: jateko gitxi, eta edozelako beharretan diru apur bat egiteko. Halako egun baten pakete bat jaso ei eben. Paketea zabaldu eta elefante bat aurkitu ei eben. Paketea Buenos Airesetik bialdu eutseen. Baina inoz ez dabe jakin

nork bialdua zan. Elefantea etxeko apal baten imini ostean, familiaren zoria aldatzen hasi ei zan: diru gehiago, eta hobeto ibili ziran. Ordutik andreak urtero-urtero elefante bat erosten dau. Biajeren bat egiten dauenean be, ez da inoz etxera etorten elefante bat ekarri barik.



## SUAREN LURRALDEAREN GANEAN

Rio Gallegoseko autobus geltokian egon gara goizeko bederlatzi eta erdietan, esan deuskuen moduan. Egunero dagoan autobus bakarra hamarretan urtetekoa da. Orduategiak eta orduak ez dabe bat egin, eta hamabi eta erdietan urten dogu. Kontinentea amaitu dan lekuan gelditu da autobusa. Autobusetik bajatu eta edurtzatik ei datorren haizea sentidu dogu gorputzetik igaroten. Hotz izan gara eta kafe bat hartzen joan gara. Tabernatik itsasoa ikusi dogu, eta bestaldean, islea. Gozo sentidu gara. Barkuan itsasoa ikusi dogu gure ondo-ondoan: hotza, urdina, gogorra, ikaragarria eta zoragarria.

Ushuaiara joateko Txilen sartu gara apur baten. Askotan lez, astiro-astiro joan da dana. Mugak igarotea ez da izaten erraza, edo hobeto esanda ez dabe erraz egiten. Itxarotea izaten da gauzarik normalena. Gaueko hamabi eta erdietan ailegau gara. Autobusetik bajatu eta aterpetxekoak etorri jakuz euronera joateko. Izartu baino lehen euren kotxean sartu gara. Ondo, ez dogu izan eta aterpetheen izenik, ez ezer.

Hurrengo egunean munduaren *amaieran* izartu gara. Leku ederra, benetan ederra. Argi berezia dauka lekuak, eguzkiak beste era batera botaten dauz izpiak, gozoago, argiago, eta dagoan argitasuna berezi-berezia da.

Ushuaiatik paraje Parke Nazional bat dago. Hara joan gara gure bernai naturan ibilteko aukerea emoteko edo. Paisaje glaziarrekoa da ingurua: makina bat laku eta erreka, mendi ugarien

artean. Leku askotan, lakuaren ertzak mendien altzoan dagoz: paraje zoragarria sortu dabe. Ibilbidean laku ilun bat ikusi dogu, ura ia baltza dauka. Lakuaren inguruan eremu bat dago, “turbera” izenekoa, bertan goroldio berezi bat hazten da, iluna dana, eta ur asko hartzen dauena. Ikusgarria.

Hemen natureak berak badauka zeozer, bakea, gelditasuna, nasaitasuna. Gatxa da jakiten zehatz-mehatz zer dan, baina desbardina da. Hurrengo egunean beste ibilalditxu bat egin dogu. Roca lakuaren bazterretik joan gara Txileko mugaraino, arbolon artetik joan gara: batzuk apurtuta, beste batzuk lurrian botata, inoz kendu bakoak. Txilen hamaiketakoa jan dogu eta buelta. Lakuari begira jesarri gara, turkesa koloreko uraren ondoan.

Argentinarrak beti gustau izan jake bertan ez dagoana kanpotik ekartea. Erbia, musketa-arratoia, Kanadako kastoreak ekarri ebezan, guretzat argitu bako arrazoiren bategaitik. Kastoreek egin dabezan dikeak benetan ikusgarriak dira. Dikeak egiteko, baina, inguruko arbolak botaten dabez. Kastore lar daukie, eta lurrian be eurak botatako arbola lar dago. Ganera, dikeak egikeran, inguru urez beteten dabe, eta arbolak ito. Kastoreak leku batzuetatik kendu, hil egin behar izan dabez. Guk ez dogu kastorerik ikusi, gauez ibiltzen dira-ta. Eguneko txoriak eta piztiak ikusi doguz: lukiak, erbiak...

Munduaren amaieran ei gagoz. Halan esaten deutsie. Bat hona etorten da eta gura barik, gauzak aldatuz doaz, barrenak bat egiten dau lekuagaz. Nebeak eta biok luzaro egin dogu berba. Bijaiek horretarako erea emoten deutsu eten barik. Munduari, bizitzari, bizimoduari buelta emon deutsegu, goitik behera begiratu, behetik gora, ezkerretik, eskoitik, begiak zabalik, begiak itxita. Buruz behera gagoz hemen, Europatik begiratuta eta bihotza burura etorri jaku, eta burua oinetara joan jaku. Iparra hegoan dogu.

Ezinbestean, hau inflexino puntua izango da. Bueltakeo bidea hasiko jaku, gorantz, iparralderantz. Atzera begiratu dogu, betiko itaunak. Nondik gatozan eta nora goazan argi euki barik. Etxea

urrin dogu, beharreko bizimodua. Dana. Gauzai neurria hartzen ibili gara. Ez deutso ardura zer egiten dozun, gogotik ez badozu egiten. Berton hil geintekoz, eta... leku polit baten hilko ginatke. Eta ez dago, dakigunetik, ezer gehiago. Bizimodua, norberak egiten dauena. Topikoz beteten nabil lerrook. Badakit. Baina ez da igual jakitea eta sentidutea, pentsetea eta bihotzak leher egitea. Ez, ez da igual. Inflexinoa.

Ushuaia kostaldean dago, eta portua be badauka. Hemendik urteten dabe Antartikara joaten diran barku askok. Polita izango litzateke barkua hartu eta hara joatea. Lar karua da, eta amesa ames izan daiten itxiko dogu. Portura joan gara, momentuz Antartikora joango ez garan arren. Islaz inguraturik dagoan itsasoan sartu gara. Ederra da Ushuaia itsasotik ikusita be, koloredun etxeak mendiaren altzoan kontu handiz iminita egongo balira lez. Barkutik isla txikietan bizi diran animaliak ikusi doguz: itsas lehoiak, pinguinoak eta hegaztiak. Polita izan da barrero animaliak euren bizilekuan ikustea. Denporea euren gorputzek neurtzen dabe. Mantsoak dirala pentsau lei, baina baten bat beste baten lekua hartzen ahalegintzen bada, orduan orroaka eta txioka hasten dira.

Atzean piztiak itxita, sasoi baten hegoren egoan itsasargira joan gara. Orain dala ehun bat urte, Europatik barku bat jentez beterik etorri zan hemen behar egiteko. Itsasargitik paraje hondoratu egin zan, isla baten ondoan. Kapitaina izan ezik, danak bizerik urten eben barkutik. Kapitainak bat egin eban barkuagaz, bere buruaz beste.





## SUAREN LURRALDEAREN BARRUAN

Ushuaian etxeak, danak, desbardinak dira: egurrez eginda, adreiluz eginda, harriz eginda. Hormetan eta bentanetan kolore biziak agiri ditue. Etxeetako teilatuek hamaika forma hartzen dabe, eta teilen kolorea be aldatuz doa teilaturik teilatu. Itsasoren bazter baten egurrezko etxeak ikusi doguz, pentsau leiteke bat Finlandian dagoela. Argitasuna, itsaso barea eta etxetxuak antzekoak dira. Udea da eta ez dau hotz handirik egiten, baina mendietan edurra ikusten da. Glaziarrak zuri-zuri ikusten dira herritik. Arbolak berde ilunak dira, ia baltzak. Lurra be iluna da, eta edurrak are zuriago emoten dau. Suaren Lurraldea islaz inguraturik dago, itsasoa eta isletako mendiak ikusi doguz bazter honetatik, eta ikuspegia ederra da euki doguna. Argi berezia eta benetan ederra sortzen dau eguzkiak. Badago zer edo zer gorputzean sartzen dana eta ondo sentidu arazoten deutsuna. Poztasun antzekoa, indarra be dana. Egia esan, ezingo geunke zehaztu, baina badabil zeozer gure gorputzean eta eragin gozoa dauka.

Munduko alderdi eder honetara be europarrak etorri ziran bertakoak “zibilizau” guran. Lehenengo ingelesak, kristautasuna munduan zabaltzeko amesagaz hemen lurreratu ziran. Gaixotasunak erregaiteaz gan, erropak emon eta jantzi eragin eutseezan. Bertokoak ez egozan ohituta erropak eroaten, eta euriak erropak busti eta gero kendu barik ibiltzen ebezan. Halanda ze, hainbat eta hainbat hil ziran.

XX. mendea hasita egoanean, Yamanatarren artean mutil gazte bat aukeratu eben. Jemmy Button izena imini eta Ingalaterrara eroan eben, hango zibilizazinora egiteko. Suaren Lurraldera atzera joan zanean, ikasitakoa Yamanatarren alde jarri eban: Yamanatarren kulturaren ganean liburu bat argitaratu eban. Yamanatarren inguruan liburu gitxi dagoz, eta horreetariko bat berak idatzitakoa da. Gaur egun ez dago Yamanatar bat bera be bizirik.

Suaren Lurraldea. Izen poetikoa. Esaten dabe hemendik igaroten ziran barkuko marinelek su txikiak ikusten ebezala. Bertan bizi ziranen suak ziran hareek. Eta esaten dabe hortik datorrela izena. Orain, su txiki hareek barik, hemen luzaroan bizi ziranak barik lotu da islea. Izena lotu jako.

Yamanatarren ganeko museoa dago Ushuaian, eta hainbat gauza ikasteko erea izan dogu. Antza danez, kontinenteko hainbat leku jendeztatu eta gero, hau izan zan azken geltokia. Nomadak ziran, batetik bestera ibiltzen ziran. Txabolak hiru-lau egunerako egiten ebezan. Arrantzan eta ehizan egiten eben, eta frutak batu. Bateletan joaten ziranean, bakoetak behar bat eukan. Andrek arrantzan egiten eben, gizonak fokak arrantzatzen ebezan, eta umeek bateletik ura atera eta sua jagoten eben. Andrak ziran uger egiten ekien bakarrak. Arrantzan eta ehizan harrapautakoa danen artean jaten eben: norik egin eban kontuan hartu barik, sexuen artean ez eben egiten desbardintasunik. Andrak eta gizonak maila berean bizi ziran. Inoz balearen bat mobidu ezinik hareatzan geratzen bazan, danen artean hil eta jaten eben, eta ondoko taldeai deitzen eutseen hareek be jan egien.

Hotz handia egin izan dau beti hemen; batez be neguan. Hogeia gradu zero petik baino gehiago be egin izan dauz. Hezetasuna be handia da, euri asko egiten dau-ta. Ez eben eroaten erro-parik: erraz bustiten zan eta gatxa zan sikatzen. Azalean fokearen koipea iminten eben, gorputzaren berotasunari eusteko. Bustiten ziranean, erraz sikatzen ziran. Jantzita ibiltzen ziran andra-gizonak, era berezi baten: gorputza pintetan eben, euren burua

apaintzeko. Zelan sentiduten ziran adierazteko be erabilten eben pinturea. Duda barik, pentsetan hasita, horrek asko erraztuko ebazan hartu-emonak.


Yamana berbeak bizirik egotea esan gura dau. Yamana berbea ahoz barik idatziz azaltzen hasi zanean, hasi zan berbea bere esangurea galtzen.



## IZOTZAREN BERBAROA

Suaren lurra itxi behar dogu, diruaren menpe be bizi gara-ta. Bestela geratuko ginan, zelan ez! Eta giro berezi hau apur bat sakonago barneratu, munduko mustur honezaz gehiago disfrutau. Bankuko kontuak ezetz esan deusku.

Zerura joatea erabagi dogu, harrizko bideak behean itxi eta lainoen artean ibili. Islak uraren ganean eta mendietako edurra ikustea polita izan da. Ordubete egin dogu eta Andeetara ailegau gara. Calafatera etorri gara Perito Moreno glaziarra ikusteko.



Perito Moreno glaziarra (Argentina).

Abioitik bajatu, eta taxiz glaziarrentz joan gara Ushuaian eza-  
gututako Belgikako mutil bat, Ekaitz eta hirurok. Ailegau baino  
lehen taxisteak esan deusku: “Burra honeri *zizpuruen kurbea* esa-  
ten deutse”. Eta bai, halan izan da, buelta hartu eta “ai!” esan  
dogu. Jakitun izan arren, ezin izan deusagu eutsi.

Aurre-aurrean izan dogunean... ez dago barbarik azaltzeko  
ikusi doguna. Mendien artean izotzeko errekea, 32 kilometro  
guztira. Horreetatik 14 uraren ganean, glaziarrak Argentina laku-  
raino ailegetan da. Uraren ganean 50-55 metro arteko izotz hor-  
mea. Zabalerea, sei-zazpi kilometrokoa. Glaziarrak metro bi  
aurrera egiten dau egunero-egunero, eta edurra galtzen ez dauen  
kontinenteko glaziar bakarra da. Edurra egiten dauenean, ingu-  
ruko mendietan eta glaziarrean ezarten da, eta gero gitxi-gitxika  
beherantz egiten dau, glaziarragaz bat eginez. Glaziarrak aurrera  
egiten dau, uraren ganean lurragaz topo egin arte. Orduan glazia-  
rra lurrean ezarri eta handik gitxira, apurtu egiten da. Gitxi gora-  
behera hamasei urterik behin gertatzen da hori. Eta aurten da  
hamaseigarrena.

Gatxa da ha zelakoa dan esatea. Erraza da glaziarren neu-  
rriak emotea, baina ezin dabe adierazo zeinen zirraragarria dan.  
Isil-isilik egon gara ... eta glaziarrak entzun dogu berbetan. Berba-  
ro berezia dauka: trumoi antzeko soinuak, uretan zeozer jausten  
danaren zaratea, burrunbea entzun dogu asago, eta beste bat hori  
baino urrinago... Berba jariora etenbakoa da. Ez dago isilik, ez.

Lehenengo-lehenengo, glaziarrak goitik ikusi dogu: mendiak  
atzean eta ibar guztia hartzen dauela ikusi dogu. Edurra da, izo-  
tza da, baina dana ez da zuria: baltz-unadak be badagoz, honda-  
rrenak. Eta zuritasuna hain zuria danez, urdin be egiten da. Han  
egon zeintekez luzaroan besterik egin barik: begiratu, entzun,  
egon. Begiratu eta begiratu begiak kantsau barik.

Seinaleek dinoe ez hurreratzeko. Izotz zatiak jausten dira ure-  
tara eta zati txikiren batek jo ezker, hil zaitezke. Azken 20 urte-  
otan 32 persona hil dira. Zati bat jausten ikustea izugarria da.  
Lehenengo, zatia hormatik banatzen da. Gero kamara geldian

izango balitz lez, jausi eta uraren kontra joten dau, eta zatirik handiena uraren azpian geratzen da. Eta orduantxe zaratea entzuten dozu. Zarata handia, ikaragarria. Trumoi itzel baten modukoa. Burrrrun!

Ingurua be polita da, arbola asko dago eta orriak kolorez aldatzen hasi diranez, berton doguz: berdea, marroia, okrea, beilegia, horia, laranja... Lakuak be kolore indartsua dauka, urdina, eta kontraste polita egiten dau glaziarragaz eta arboletako orrien koloreakaz.

Glaziarrari agur esan, eta taxian herrira joan gara, gau egiten dan bitartean. Bidean, kotxeko argiaren aurrean erbi batek urten deusku. Europako erbia da, beste gauza batzuen artean hona ekarria. Taxi gidariak esan deusku gaur egun erbiak ehizatzen dabezala. Ehiztariak sei peso ordaindu behar dauz bala bakotxeko, eta bala kopuru jakin bat emoten deuskie. Erbikia Japoniara bialtzen dabe, eta han txakur eta katuentzako jatekoa egiten dabe.

Francisco Moreno peritoaren izena imini deuskie glaziarrari, herri bati eta hainbat lekuri. Aurretik izenak izango ebezan lekuai. Halan ba, begiratzen eta itauntzen ibili gara gizon hori nor izan zan. Jakin izan dogunez, Francisco Moreno 1852an jaio zan, eta 1919an hil. Argentinako gobernuak kontratau eban Patagoniara joan eta hango lurak aztertzeke. Izan be, Txile eta Argentinaren artean arazoak eta gerrak bizten ziran, mugea zala eta ez zala. Moreno perittoa Patagoniara joan, eta hango indigenen laguntzeagaz lurraldearen ganeko informazinoa batu eban: lakuak, errekek, mendiak, bideak... Eta paperean jarri. Gobernuak informazino hori eskuetan eukita, erraz izan eban luren jaube egitea, eta militarrek indigenen kontrako erasoak egitea. Informazino horri esker Moreno perittoa izen handiko gizona bihurtu zan. Informazino horri esker indigenak hil ebezan. 1880ko hamarkadan Txileko eta Argentinako ejerzitoak maputxeen kontra egiteko batu ziran. Indigenai lurak kendu, kulturea ezereztu eta euren bizimodua eraldatu eben.





## ANDEETAKO MENDIETAN BARRENA

Gauean lekurik merkeenean egin dogu lo. Logela txikia, lau litera sartzeko beste leku, ohe-mahai txiki bat, eta bentana txiki-txu bat. Besterik ez, armairuak kanpoan dagoz. Ohe bana daukagu, eta laugarrena, motxilak ixteko. Etxunda ondo, hirurok zutunik ezin.

Hurrengo egunean Calafatetik Chaltenera. Autobusetik mendi bat ikusi dogu. Paisajea lau-laua da, eta lurraren ganean iminitako mendia dirudi. Kapelea dirudien mendia da. Eta "Printze Txikia" liburuko kapeleagaz akordau gara. Ez dogu barruan dagoan elefantea ikusi, eta, beraren antzean, elefantea imajinau dogu.

Chalten ez dago asago, Andeetan bertan dago, baina bidea asfaltau barik dago. Txarrena, baina, ez da autobusa eta indargatzaile zaharrak izatea, eta kilometro gitxi ordu askotan egin beharra. Autobus barruan sartzen dan hautsa da txarren-txarrena. Ito egin behar zarala be pentsau lei. Chaltenera goizaldeko ordu batetan heldu gara. Guk hautsa euki dogu, baina motxilek kolorea be galdu dabe. Ohean etxun eta zorionsu sentidu gara segundo batez. Hurrengoan, loak hartu gaitu.

Chalten herria 1985ean sortu eben, hemeretzi urte baino ez daukaz. Lehenago maputxeak-eta be ibiliko ziran, lurra eta amesak eurenak ziranean. Hasieran mendizale gitxi batzuk baino ez ziran etorten. Baina urteak aurrera joan ahala, mendizale gehiago etorri ziran, eta herria sortu eben horreei guztiai lo egiteko lekuak

eta zerbitzuak eskainiz. Halan ba, etxeak nahiko barriak dira, gehienak egurrezkoak, lurrezko bideakaz loturik. Herri ondotik errekea igaroten da, horma mendia lagun dauela. Ingurua aproposa da kanpinean lo egiteko, baina ez daukagu dendarik, eta Uruguain baino hotz handiagoa egiten dau.

Ibilaldi ederra, inguruan mendiak, arbolak... Eta lau orduz ibili eta gero, ederra baino ederragoa izan da begien aurrean izan doguna. Merezidu izan dau. Hornea lako mendiak, altzoan edurra daukiela, eta glaziar txikitxua, lakuan musturra sartuta. Lakua berde kolorekoa da, eta bazterrean, urtu bako izotz zatiak, eguzkiak eta urak sortutako irudiez apaindurik. Baketan egon gara, hari guztiari begiratzen. Dana isilik. Uretan sartu, eta oinek eskertu deuskue, hotz-hotz egon arren. Eguzkiak handik goitik laztandu gaitu, behar genduan berotasuna emonda. Ha dana begietan sartu eta gero, bueltarako bidea errazago egin jaku.



Chalten mendia (Argentina).

Bigarren egunean Fitz Roy mendia ikusten joan gara. Chalten esan beharko geunke, baina. Maputxeek Chalten izena imini eutsen mendiari: kea darion mendia esan gura dau izen horrek. Lainoak mendia, estaldu barik, inguratu egiten dau, mendi tontorretik gora. Esan lei ze, mendiak berak botaten dauela kea.

Bost ordu gogor ibiltzen egin eta gero, ailegau gara mendiaren altzora. Eta ordurako mendizale be sentidu gara! Aurrean izan doguna zoragarria da. Mendiak, edurra, glaziarrak eta esmeralda koloreko lakutzua. Aurreko egunekoa baino ederragoa, harrigarriagoa, ikusgarriagoa. Ibilbidearen azken ordua gogorra izan da, aldats gora izan da, eta arnasea be estu izan dot. Merezidu izan dau. Bai! Eder berbeak adierazoten dauen guztia, hementxe, aurrez aurre.

Otartekoa inoz baino gozoago egin jaku. Osteratxu bat egin, eta ondoan dagoan glaziar eta lakutzura. Eder-ederra. Zoragarria. Zortea izan dogu, eta Chalten laino barik ikusi dogu. Urriari Italiako eskalatazaila talde bat etorri zan. Gabonila arte egon ziran itxaroten, zerua noz garbituko. Atzera Italiara joan ziran mendira igon barik. Segiduan hiru egunez garbi egon behar dau mendira igoteko.

Mendirako bidea ederra da, baita bueltakoa be: errekea, arbolak, zuhaixkak, erreka harriak... Oinez igaroteko zubi txikiak, bidetxuak. Ibar osoa begietatik sartu jaku. Hau oparia! Ganera, jente gitxi dabil. Menditxu baten ganera igon, eta goitik ikusi doguz: lakuak, mendiak, errekek.

Chaltenen jakin dogu maputxeek kontetan dabela euren artean printze bat egoala, urregorria eukana. Espainiako konkistatzaileek horren barri jakin, eta printzearen bila joan ziran. Printzeak hegoalderantz iges egin eban, baina, halanda be, harrapau egin eban. Konkistatzaileek hil baino lehen, printzeak bere jainkoari laguntzeko eskatu eutsan. Jainkoak haizea bialdu eban mezulari, printzea ekarteko. Baina haizeak ezin izan eban printzea aurkitu, eta ordutik bila eta bila dabil, atsedean hartu barik, Patagoniako bazter guztietatik. Haizea hemen ez da inoz gelditzen.



## AITITA DIRAN ARBOLAK

Chaltenetik Esquelera joateko egun bi egin behar izan doguz. Mapan begiratu ezkerre, biak Andeetan dagoz. Chalten, hegoaldean, eta Esquel, iparraldean. Biak asfaltu bako 40 bidean dagoz, baina ez dago autobus zerbitzurik. Batetik bestera joateko modu bakarra kotxea da. Guk ez daukagu.

Berrogeta zortzi ordu, halan ba, Chaltenetik Esquelera joateko. Kostalderaino joan behar izan gara, eta handik iparralderantz. Hegoalderantz etorri ginaran bidetik iparralderantz egin dogu, eta barrero be Andeetan sartu gara.

Bidean Argentinako lekurik motzenetan geratu behar izan gara: Rio Gallegosen eta Comodoro Rivadavian. Rio Gallegosen egonda gagoz. Comodoro Rivadavia barria izan da, baina bestearen antzera: motza. Martin Rivadavia 1891n hona etorri zan arrantza kalen bila. Beraren atzetik beste batzuk etorri ziran. Herrian ez egoan urik, eta ur bila ebilzala petrolio aurkitu eben. Gaur egun hemen ateraten da Argentinako petrolio gehiena: Comodoro Rivadavia herri industrialia da. Haizeak gogor jotzen dau, politik ez diran etxeen artean. Hamalau orduko itxaronaldia, herria ikusteko. Herrian osteratxua egin, eta taberna baten sartu gara: irakurri, idatzi eta jardun. Pentsetan egon gara zein gogorra izan behar dan hemen bizitea, egunak hamalau ordu baino gehiago daukaz-ta.

Egun bi, eta ailegau gara Esquelera! Neke-neke eginda. Des-kantsua hartu doguna! Alartzeetako Parke Nazionalaren alboan

dago. Sano handia da, lakuak, errekek, glaziarrak, mendiak eta basoak hartzen dauz. Osterea egin dogu: lakuaren inguruak politak dira, mendiz inguratuta dago, eta arbolaz beterik. Honeek glaziarrok ez dira hemen egongo luzaroan. Lurreko temperatureak gora egin ahala, glaziarrak urtu eta desagertuko dira hemendik berrogeta hamar urtera, gidariaren esanetan. Parkea hiru zatitan dago bananduta. Badago alderdi bat, jentearentzat zabalik dagoana. Beste alderdi bat zientzialarientzat baino ez da. Eta, azkenik, badago beste alderdi bat zapaldu bakoa, gerora ikertzeko, zatirik handiena. Orain dala gitxi aurkitu dabe marsupial bat, hamar bat zentimetrokoa. Hego Ameriketan ez dabe jakin izan marsupialik dagoanik, munduan ez dago besterik.

Parkean barkutik bajatu, eta gidariagaz basoan sartu gara. Basoan kainabera artean ibili gara. Kainaberok berrogei urterik behin loratzen dira, eta lorakaz batera frutu txiki bat. Frutok lurrera jaustean, saguak etorten dira, moltsoka. Almidoia daukie frutok, saguek jatean, frutea barruan hazi, eta hil egiten dira. Lurrerako ongarrri dira saguok, bestela nahikoa pobrea da lurra.

Parkean milaka urte daukazan arbolak be badagoz. Zuriek Europako alartzeen antza topau eutseen, eta alartze izena imini. Maputxeek, ostera, *lahuan* esaten deutsee, hau da, aitita. Ikusgarriak dira aitita arbolak. Urtero apur bat baino ez dira hazten. Klimaren arabera, gehiago edo gitxiago. Ikusi dogun zaharrenak 2.600 urte euki dauz! Egurra on-ona daukie, pisu gitxikoa, kolore gorriduna, lantzeko erraza eta ez da bustiten. Hormak zein teillatuak egiteko erabili izan dabe. Urteetan makina bat arbola bota izan dabe. Gaur egun galazota dago, baina Txilen oraindino ez. Han igartuta dagozan arbolak erabili lekiez, legez. Halan, basoan sartu eta arbolari zauri bat egiten deutsie. Handik hile batzuetara, igartuta dagozanean, egurra batzen dabe. Hainbeste urte daukan arbola ezin da hazi arin, eta ia ezinezkoa da barrero halako arbolarik haztea.

Arbolen inguruan, laku berdeak, harri artetik agertzen diran ur-jauziak... Basoan *arrayan* izeneko arbolea be badago. Polita

da, kanela kolorekoa. Enbor bat baino gehiago daukaz. Beste arbola batek errotzeko gaitasuna dauka: bere baitan beste baten sustraiak hartzen dauz. Ederrak dira zugatz bien artean sortzen dabezan formak: enborrak, adarrak eta koloreak nahastaurik. Alkarri besarkatuta bizi dira.

Parketik urten eta autobusari begira egon garanean, gizon bategaz egon gara. Hirurogei bat urte izango dauz. Italiako iparraldekoa da, eta gustukoa dau batetik bestera ibiltea. Italian dagoanean sarri trenea hartu eta Bartzelonara joaten ei da. Euskaldunak garala esan deusagunean, hauxe itaundu deusku: autonomiazaleak ala idenpendientziazaleak?!





## MAPUTXEAK. HIPPIYAK ETA ARTISAUAK

Esqueletik Bolsonera etorri gara. Andeetako mendi artean dago. Leku trankila eta ederra. Orain dala hogeï-hogeta hamar urte, orduko hippyak, artisauak, artistak eta bestelako bizimoduaren bila ebilzanak hona etorri ziran. Ezaguna da Argentina osoan. Oraindino be kultur arloko jentea etorten da berton biziten zein aste batzuk igaroten.

Kalean ezagutu dogun andra baten etxea aukeratu dogu lo egiteko. Etxeko andrea orain dala urteak etorri zan naturatik paraje biziteko, eta bizimodu nasaiagoa egiteko. Gauean hotza kanpotik, egurren artetik, sartzen jaku geuri lagun egiten, eta mantai babeska eskatu behar izaten deutsegu. Etxea erreka ondolan dago, musturretan eskegita egurrez eta sokaz egindako zubia- ren bestaldean. Egurrezkoa da etxea, ia dana andreak egina. Dendara jatekoa erosten joan garanean, kontuz pasau gara zubitik, haizeak gogor jo izan dau-ta. Halako baten haizeak gogorrago jo eta makal bat errotik bota dau. Beste lau ilaran egon dira, baina zutunik irauñ dabe. Jausterakoan, txabola baten teilatua apurtu eta hormen eta mahaien artean geratu da arbolea. Adi-adi geratu gara gu eta etxeetatik urten dabenak, ahoa ezin itxi.

Etxean bikote bat dago, artisauak: neskea Kanadakoa, eta mutila (ez dakigu nongoa). Bolsonera etorri dira herriko artisau- tza azokara, ezaguna da-ta. Argentinan artisau azoka franko dago, herri askotan astero egoten da. Argentinatik kanpo be makina bat argentinar ibiltzen ei da artisau azoketan. Orain dala

hiru urte Kanadatik urten eban bikoteak, eta ordutik bidaiatzen dabilz. Amerikaren erdialdean eta hegoaldean ibili dira eskubeharrrak saltzen. Jardunean egon gara eurakaz. Esan deuskuenez, artisauen artean baina, dana ez da bizimodua jentegandik aparte egitea. Badagoz artisautzea lantzen dabenak, gauza barriak egiten saiatzen diranak. Beste batzuk, ostera, dirua atera gura dabe biajean ibilteko, eta artisautzea bidea da. Eta, azkenik, badagoz batzuk dirua bizimodu nasaian, eta, batez be, jai-giroan emoteko erabilten dabenak. Danetarik ei dago.

Mendira joateko gogoia oraindino barruan dogu eta etxeo ugazabandregaz ibilalditxu bat egin dogu. Mendi txiki bat igon dogu, eta bestaldean dagoan ibarra ikusi. Ibarrak perfektua dirudi: mendiak, ibarra eta sigi-saga doan errekea, eta errekearen amaieran, laku bat. Mendien beste aldean Txile dogu, hurrehurre. Gorago igon eta ikusi dogu zelan haizeak, euriak eta urak persona baten arpegia zizelkatu daben arroketan, indigena batena dala dinoe.

Indigenek jatorrizko herria deitzen deutsie euren herriei. Mendeak dira zuriek jatorrizko herriai lurak kentzen hasi ziraneetik. Lurraz gan, kulturea eta hizkuntzea. Eta kentzeaz gan, kentzen ez deutseenai mespretxu egin deutsee, eta hori da galzorian iminteko erarik iraunkorrena. Izan be, horren bidez kanpotarrek ez dabe ezer behartzen. Menpean sentiduten diran herriak, mespretxua ez jasoteko, euren kulturari eta hizkuntzari uko egingo deutsee. Batzuetan, baina, ez dago mespretxurik be, jakin-min eza baino. Zuriek ez dabe jakin nahi nor ziran hemen bizi ziranak, edo euren odolik daukien. Holan, herria isiltasunean gordetan dabe, eta gordeta dagoana ez bada ateraten ahaztu egiten da. Eta hori pasau da leku askotan. Iraun daben gauzak gitxi dira, gehiagorik dira gauzak eta gitxiago talde memoria, edo kultura bere osotasunean.

Asko dira erroak galdu dabegan maputxeak, batzuk mendialdean bizi dira eta beste batzuk urietara joan dira bizimodu hobearen bila; azkenik, badagoz batzuk euren identidadeari eutsi, eta

lurrak bereganatu nahi dabezanak. Zeregin gatxa daukie. Hemengo jentea gehiago kezkatzen da euren Europako arbasoetz, nondik etorri ziran eta zer egin eben. Beti lurralde honetan bizi izan diranek ez dabe bizten halako jakin-minik. Argentinarek atzera begiratzen dabenean, Europako arbasoai begiratzen deutsee, jatorrizko herriai baino gehiago.

Okupatzaileak orain kanpotik datoz, lehenengo mundutik. Benetton eta Hard Rock Cafe enpresetako jaubeek eremu handiak erosi dabez: erreka, mendi eta guzti. Bestaldean, maputxeak dagoz, lur barik geratu diranak, nahiz eta “mapu” berbeak lurra esan gura dauen, eta “txe” berbeak, personea, jentea. Jakin izan dogunez, Benetton enpresearen jaubeak erosi dauen lurraren zati bat maputxeena da. Maputxeek lurra aldarrikatu dabe. Halan be, kontraesana sortzen dauen jazoera gertatu da. Argentinan maputxeen ganera dagoan museorik zabal eta handiena Benettonen lurrean dago. Halan, maputxeek salatu dabe enpresearen eskuak garbitzeko erabili dabela museoa.

Ester Bolsoneko etxeko ugazabandreak, esan deusku orain dala gitxira arte Argentina eta Txileren artean arazoak egon izan dirala mugea dala-ta. Izan be, Argentinako gobernuak beti gura izan dau argentinarrak zuriak inguruan bizitea. Patagonian maputxeek-eta aparte, jente gitxi bizi zan. Hemengo eguraldia gogorra da, haizeak gogor jotzen dau eta neguan hotz itzela egiten dau. Halanda ze, jente gitxi etorten zan hona. Gobernuak zuriek lurrak okupetea gura eban, mugen ganean arazo gitxiago izateko. Orain dala gitxira arte, Patagonia aldera etorten ziranek lurra hartu eta okupau eikien, ezer ordaindu barik. Eta halan okupau dabe alderdi handi hau. Esterrek berak be holan egin eban, eta orain lurra berarena da.

Bolson izango da Ekaitz eta biok alkarregaz egongo garan azken lekua. Lau hilebete alkarregaz egin doguz: zenbatgura berba egin dogu. Uste dot gai guztien ganera jardun dogula. Bidelagun ezin hobeia izan dot. Etorri aurretik ia urtebete emon genduan alkar ikusi barik, eta makinatxu bat kontu genduan alkarri esate-

ko. Zoragarria izan da beragaz batetik bestera ibiltea, eta asko ikasi dot. Azken egunetan Bolsonen gure bialeak bestelako norabidea hartu dau. Zeozer amaitzen danean, zarratu beharra dago, eta horretan ibili gara.

Bolsonen egin dogun azken gauean Eduardo Galeano kultura etxera joan gara. Orain dala hogeta hamar urte hippyak-eta hona kultura arloko jentea etorten hasi ziranetik, eragina izan dabe herriko kultura giroan. Galeano kultur etxea horren adierazgarri da. Orain hiru urte zabaldu eben kultur etxea eta Eduardo Galeano bera be etorri zan inaugurazinora. Gaur andrak hartu dabez aztergai, eta hainbat ikuskizun antolau dabez gaiaren inguruan: antzerkia, dantzea, musikea... Eta zelan jorratu daben gaia be era askotakoak egon dira: ironikoak, barregarriak, ederrak, erromantikoak...

Hiru ordu baino gitxiago lo egin, eta autobusa hartzeko jagi gara. Kalera urten dogunean gaua izan da. Kanean inor ez. Isiltasun gozoa izan dogu lagun. Atzo iretargia urteten ikusi genduan, eta goizaldean sartzen. Iretargi betea ganera. Eta ederra izan da.

## ANDEETAKO SUITZA TXIKIA

Autobusean San Carlos de Barilochera joan gara. Hemendik aurrera bakarrik jarraituko dot. Hego Ameriketara etorri nintzanean lau hilebeterako izan zan. Bete dot epea. Pentsau dodan baino diru gitxiago gastauta, jarraitzeko modua daukat. Esperientzia itzela da, eta ezin dot aukerea alde batera itxi. Pozarren nago, nebea faltan izango dodala jakin arren. Argentinan azken egunak egin eta gero, iparralderantz joango naz, Brasil aldera...

Ekaitz Buenos Airesera joan da, eta nik neure bideari ekingo deusat. Ez dakit noz ikusiko dodan osterara be. Gatxa egin jat berari agur esan beharra. Malkoek itsasoko olatuak lez urten deuste. Hutsune handi bat baino gehiago sentiduten dot.

Autobusa joan danean, herrira joan naz. Bariloche pentsau izan dodan baino askoz be politagoa da. Lakuaren bazterrean dago. Lakua handi-handia da, urdina eta mendiz inguratutik. Zerua urdin-urdin dago, eta hodeiak, zuri-zuriak, algodoia lakoak. Etxeek Suitzako etxeen antza dauke; izan be, Barilocheri Suitza txikia esaten deusie.

Aterpetxea be polita da. Alaskako gizon bategaz egin dot berba: sei hilebete lanean eta beste sei bidaiatzen emoten dau. Hori bai, lanean dagoanean, gogor ekiten deutso: hamabi ordu asteko zazpi egunetan.

Jente piloia batu gara aterpetxean, eta gauean mahai inguruan egon gara hainbat herritako jentea. Baten batek esan dau: Viva España. Eta danak nire adi geratu dira, neuk be viva esateko. Ez,

esan deutset, euskalduna naz, ez naz espainiarra. Sutean isiltasuna zabaldu da.

Mendira joatea seriotzat-edo hartu dot eta mendira joan naz, aterpetxean ezagutu dodazan Italiako mutil bategaz eta Alemaniako bategaz. Herrian autobusa hartu dogu. Bidean egurrezko etxe asko ikusi doguz, zein baino zein politagoak. Neguan eski-estazinoa izaten dan herri txikitxura joan gara. Etxeak eta inguruak Europakoen antzekoak dira. Neguan herria argentinarez eta brasildarrez beterik egoten da, eskietan etorrita. Guk herrian hasi dogu zortzi orduko ibilaldia. Basoan sartu baino lehenago Barilochen ezagutu dodan gizon bategaz akordau naz. Sarri mendira joaten da, eta baso batera sartu baino lehen basoari baimena eskatzen deutso.

Nahuel Huapi Parke Nazionala da eta ez dabez jausitako arbolak jasoten. Basoa guztiz polita da: lurrean arbolak, adarrak, orriak eta gorantz doazan arbola handiak, kainaberak, tropikoko paisajea gogora dakarskuenak. Alderdi bat orain dala urte batzuk erre zan. Arbolek zutunik diraue, igartuta, siku baina tente. Eta egia esan, ingurua edertu egiten dabe. Zugatzak grisak dira, argiak, ia zuriak. Fantasiatzko paisajea osotzen dabe. Txoriak eta hegaztiak batetik bestera ikusten dira arboletan eta han goian hegaz egiten. Eta lurrean, aldiz, berdea da bedarra, landara barrien berde argia, oraindik gazte. Basoan arrayan arbolea be badago, Esquelen ikusi izan dogunetik. Polita da, kanela kolorekoa, hainbat enborregaz. Beste arbola baten sustraiak hartzeko gaitasuna daukanez, ederrak dira bien artean sortzen dabezan formak. Enborrak, adarrak eta koloreak nahastau egiten dabez, era ezin ederrago baten. Alkarri oratuta, alkarri lagunduta bizi dira.

Lau ordu edo gehiago ibiltzen emon eta gero, helmugara ailegau gara. Mendizale bigaz joan naz eta kostau jat. Ez nago horren ohituta, eta baten baino gehiagotan itxaron behar izan deuste. Helmugea ederra da, mendi bat dago, eta eskalatzaile bi ikusi doguz horman gora. Aurrez aurre lakutxu bat be badogu, handik

sortzen da bide osoan entzun eta ikusi dogun errekea. Aterpetxean pizza gozoa jan eta beherako bidea hartu dogu.

Patagoniara, eta Argentina osora, baita Paraguai, Uruguai, Bolivia, Txile eta Hego Amerika osora, nazi asko etorri zan. Barilochera be etorri ziran. Bigarren Mundu Gerra amaitu zanean, naziek iges egin eben Alemaniatik eta epaitegietatik. Hemen babesa izan eben, Bariloche horregaitik be ezaguna da. Ondo bizi ziran handik lapurtutako diruagaz hemen beste izen bat hartuta. Gitxi batzuk harrapau eta epaitu ebezan. Hareetatik asko gaur egun hilik egongo dira, baina ez euren seme-alabak.

Lau egun pasau dira Ekaitz joan zanetik, eta benetan faltan izan dot: beragaz berba egin, alkarregaz lekuak ikusi... Bakarrik egonda jente gehiago ezagutzen dozu bai aterpetxean bai kalean. Alde hori benetan ederra da: normalean ezagutuko ez zeunkean jentegaz berba egiteko aukerea. Bakarrik egonda jente gehiago hurreratzen jatzu kalean. Ganera, batzuetan, gatxa da bertokoen etxurea ez hartzea, eta jenteak gogoa dauka atzerritarrakaz jarduteko, eta gaztelaniaz jakinda errazagoa da. Bakarrik egotea pentsau dodan baino errazago egin jat; nahiz eta batzuetan bakar-bakarrik sentidu, gustura egon naz. Uste izan dodan baino laguntasun handiagoa izan dot. Bakean egon naz. Barilochen lakuak giro berezia emoten deutso herriari, eta nasai egoteko abagunea eskaintzen deutsu, eta nik ez deusatz ezetz esan.





## AZKEN EGUNAK, *CHE!*

Era guztietako autobusetan eta bideetan ibili gara daborduko: ohedunak, ohe-butakadunak, ohe bakoak, barriak, zaharrak, atzera botaten diran jesarlekuak, ia mogidu be ezin diranak, pisu biko autobusak, batekoak, bingoan jokatu dogu, bideoak ikusi doguz, bideo bakoetan be ibili gara, komundunak, komun bakoak, jatekoa emoten dabenak, ezer emoten ez dabenak. Danetarik. Orduak eta orduak. Berba egin, lo egin, larritu, leidu, geure artean olgau, jenteagaz berba egin. Eta paisajeaz gozau.

Barilochetik San Martin de los Andesera joateko bide bi dagoz, eta bien artean politena aukeratu dot. Herri bien bitartean dagozan zazpi lakuen bazterretatik joan naz autobusez, inguruaz gozetan. Lakuek mendien arteko arroa hartzen dabe, eta koloreak bitan banatzen dira: berdea eta urdina. Gelditasuna da begien ninietatik sartzen jatzuna. Berezko gelditasuna da, ura ez da-eta geldirik egotekoa, baina baretasuna sortzeko gaitasuna dauka.

San Martin be sano polita da, txikia, lakuaren bazterrean. Hondartzatxu bat dauka, eta etxe gehienak egurrez eginda dagoz, tabernak eta dendak egurrezkoak dira. Etxeen izenak be egurrean landuta. Umeen olgeta lekua egurrez eginda dago, kaleen izenak be egurrez eginda. Giro berezia sortzen dau egurrak, benetakoa ez balitz lez, benetako herria ez balitz lez. Ipuietan azaltzen jakuzan herritsuak akordura ekarten dauz. Hostalean Esquelen ezagutu genduan mutil bat ikusi dot, Kataluniakoa. Halakoak be gertatzen dira, bidaiari gehienak leku jakin

batzuetara joaten dira-eta, eta ez da gatxa bidean jente bera barriro topetea.

San Martinen jente atsegina topau dot. Bikote bategaz egon naz jardunean. Kontau deustie Menem agintean egon zanean, eurek baekiela eukien bizi-maila lar altua zana. Izan be, pesoak dolar bat balio eban. Azkenengo urteetan pobrezia zabaldu zan. Eurak erdiko klasekoak ziran eta irabazten eben diruagaz atzerriara biajau ahal eben: Europara eta AEBetara. Argentina barruan ibiltea askoz be karuagoa zan; eurontzako, ezinezkoa. Egia ez dala badirudi be, merkeagoa zan AEBetara joatea, Patagoniara baino; eta AEBetan erropak erostea, Buenos Airesen bertan baino. Krisiaren ostean, gauzak asko aldatu dira, dolarra hiru pesotan dago gitxi gorabehera. Bizi-mailak behera egin dau gizarte osoan: erdiko klasekoek gitxiago daukie, eta langileek, lehen baino askoz gitxiago. Pobrezia ikaragarri zabaldu da herrialde osoan. Gaur egun Buenos Aires Argentinako beharrik gehien dagoan lekua izan arren, askok handik Patagoniara eta beste probintziatara joan behar izan dabe behar bila. Gauza asko aldatu jakez urte gitxian argentinarrai, eta oraindino be egokitze prozesuan dabilz.

San Martin ederra izan arren, eguna han igaro eta barriro autobusa hartu dot. Biaje berezia izan dogu. Autobusa eguerdiko ordu batetan etortekoa zan, baina matxuraren bat izan dau eta laurak arte itxaron behar izan dogu. Ez naz egon bakarrik itxaroten, AEBetako bikote bat eta mutil bat, eta Danimarkako neska bat be itxaroten egon dira neure lez Mendozara joateko. Joan garan autobusa ederra izan da, benetan: jesarleku handiak, otordu bi izan doguz... Gaueko hamarretan Neuquenera ailegau ganean, autobusetik bajatu eta beste baten sartu gara. Aurrekoa Buenos Airesera joatekoa da. Autobus barria, bai, baina ez da barria. Jesarlekuak estu-estuak dira. Zortea izan dot eta jesarleku bi hartu ahal izan dodaz neuretzat, hobeto eta nasaiago lo egiteko. Afaria gozo-gozoa emon deuskue, eta ordubete egin baino lehenago loak hartu nau.

Gauean lo sakonean nagoala baten bat etorri jat, eta AEBeta-ko ingelesez eskatu deust ea nire ondoan jesarri ahal dan, itoginak daukazala. Autobusa zaharra zana jakin dot, baina horren zaharrik ez! Zorionez edo, nire inguruan ez jat suertau itoginik. Goizean haserre-haserre itxi dodaz AEBetako hirurak eta Danimarkakoa, salaketa bat gura izan dabe imini.

Aterpetxean hiru ordu itxaron behar izan dodaz logelan sartzeko, beterik egon da-ta. Mendoza herri handia da. Inguran mahastiak ditu, eta hemen egiten daben ardao sano ezaguna da bai Argentinan bai atzerrian. Probauta daukadaz, eta onak benetan; batez be, Malbec erakoak.

Mendozara sano nekatuta ailegau naz. Ez bakarrik bidea luzea izan dalako. Osterantzean be, kantsauta nago. Herria ikusi dot, baina ez naz joan upategietara. Plazetan-ta ibili eta egon naz. Bertan, banku baten nagoala, gizon bat etorri jat eta bere burua idazle izandakotzat lez aurkeztu dau. Idaztearen ganean jardun dogu, berbek daben indarraren ganean.

Mendozatik urteterakoan miseria ikusi dot: txabolak, erropak tarratada eta zuloakaz, umeak oinetako barik... Argentinan ibili garanean, Buenos Airesetik aparte, ez dot ikusi inon miseriarik. Eta horrek harrituta euki nau. Arraroa bada be, orain arte ez dot ikusi pobrezia hain era gordinean. Eta hori izan da harritu nauana. Jakinda txirotasuna zabaldua dagoala herrian, ibili doguzan bideetatik ez dot ikusi Mendozan ikusi dodan pobrezia.

Buenos Airesera joan naz Mendozatik. Ekaitz Buenos Airesen dago, handik Ingalaterrara joango da, eta pare bat egun daukagu alkarregaz egoteko.

Barilothen agur esan neutsanean, izugarrizko bakardadea sentidu neban. Baina gogoz ekin neutsan bideari. Neure burua bakarrik zelan moldatuko neban gura neban ikusi. Hasieran pentsautakoa baino errezagoa egin jat.

Ondo egin deust Ekaitzegaz barriri egoteak, batez be agur esateak. Barrena nasaitu deust. Urteak dira herri arrotz baten egon ez nazana, eta egunotan aspaldiko gomutak etorri jataz

barrero be, Ingalaterran egon nintzaneakoak. Barruan artxua sentidu dot, herri arrotz baten bakarrik ibilteko gogotsu. Ostera be bihotzean irribarre zabala, eta urduria, ezarri jat. Inguruan eta aurrean dodana argiago ikusten dot, lainoa ez dago urduritasunagaz loturik. Lainoa, ikusten ez dodana, ezagutuko dodana da.

## BRASIL: *ASPIRANDO AS CATARATAS*

Bero itzela igarri dot autobusetik bajatu nazanean. Bidea luze-luzea izan da Puerto de Iguazuraino. Hezetasuna Buenos Airesen baino handiagoa da, basoa berton dago eta azalean geratzen jatzu. Barrero ikusi dodaz lur gorriak, eta arbolen eta basoaren berdea. Kolore biziak, indartsuak. Landarearen berdeak udabarriko berdea dakarst gogora, baina hemen ugariagoa. Dana hartzen dau. Oparoa da. Eta berdearen azpian gorria datza, gorriaren gorria. Kontraste ederra osotzen dabe. Ez daukat gidarik. Hasieran bat erostekotan egon nintzan. Bakarrik bidaiatzeko errazago izango zan. Ekaitzek liburu barik biajau eban nigaz alkartu baino lehen. Eta gero be liburu barik ibili gara. Beragaz jardun eta neu be liburu barik ibiliko naz. Halan ba, herriak berak zer sortzen deustan sentidu, eta gogoaren arabera jokatu dot, liburuetakoa ikusteko eta entzuteko beharizana izan barik. Brasildarrek eta bidaiariek Brasilen ganera zer esaten daben izango dot gogoan. Nik neuk zer sentiduten dodan izango da hemendik eroango dodana.

Foz do Iguaçura heldu naz, Brasilen nago!! Beharbada, herrien arteko mugek metro batzuk barik kilometroak eukiezanean, herri biren arteko desbardintasunak ez ziran izango hain ikusgarriak. Laugarren biderrez zeharkatu dot muga bat. Eta laugarren biderrez sentidu dot herrien arteko desbardintasuna. Agiri-agirikoa da. Brasil, o Brasil. Hamaika arraza, hamaika azal, hamaika kolore sensualidadez jantzirik. Baltzak, zuriak, indige-

nak, arabiarrak. Argentinan zuriak ez diranak indigenak dira, oraintsu joan diran afrikar gitxi batzuk izan ezik. Brasil, barriz, koloretan bizi da. Euron hizkuntza ikasteko gogoia biztu deust. Autobus geltokiko informazino bulegoan motxilea itxi, eta dirua ateraten joan naz. Ez daukat erreal bat be! Eguerdia da, eta sargoria, itzelezkoa. Asko kostauta aurkitu dot bankua dirua ateratako, eta orain zeozer jan eta edateko moduan nago.

Ekaitz aurretik hemen egonda dago eta berak esandako aterpetxera joan naz. Uritik nahiko asago dago, baina ur-jauzietatik nahiko hur. Uritik aterpetxera doan bidea aldatuz doa: autobidea lehenengo, gero asfaltautako bidea, eta azkenik asfaltu bakoia; eta horregaz batera, lehenengo etxe handiak, hainbat pisutakoak, gero etxetxuak ortuagaz, eta azkenean akaburengo geltokian: Paudimar.

Foz de Iguazuraino ikusi ez dodazan motxilero guztiak bertan dagoz: azal zuria, ule argia... Gringitoak. Neure lez. Aterpetxea



Iguazuko ur-jauziak (Argentina eta Brasil).

hotelaren antzekoa da: piszinea, eta ondoan tabernea, arbolak eta bankuak jesarteko, etxetxuak logeletarako, taldeentzako eta familiarrentzako etxetxuak, tenis zelaia, futbol zelaia... Leku ederra oportretan etorteko! Zezeiletik ez naz egon eguzkitan eta gustura egon naz piszinan uger egiten eta eguzkitan, eta ondoan tabernea.

Bigarren egunean ur-jauziak ikusten joan naz, ostera be. Egia da argentinarek ur-jauziak daukiezana, eta brasildarrek, ikuspegia. Pentsau izan dodana baino askoz be politagoa. Lehenengoz parajea ikusi dodanean negar egiteko gogoia sartu jat, hain da handia, ikusgarria. Itzela da. Hamaika ur-jauzi dagoz, eten barik jausten. Eternidadea honen antzekoa izan behar da. Gatx egiten jat aurrean, aurrez aurre izan dodana sinisten. Urrinera begiratu eta zer daukat: zerua, hodei zuri gitxi batzuk, eguzkia eta behean dana da berdea, arbolak eta arbolak, ez dago ezer arbolaz estalduta ez dagoanik, ura baino. Errekak, eta hainbat eta hainbat ur-jauzi. Aurrera joan ahala aldatuz doaz begietatik sartzen jatazan ur-jauziak. Pozarren nago ikuspegi eder honegaitik. Bidean tximeletak ikusi dodaz. Era guztietako tximeletak: handi-handiak eta txiki-txikiak, balzak eta urdinak, zuriak eta balzak alde batetik, eta urdinak eta balzak bestetik, naranja, marroia eta berde argia, loren antza daukie. Tximeletak haizearen ahotik ihesi doazan mosuak dira, Pako Aristik esan ebanez.

Ur-jauziak egiten daben zaratea handia da. Mundu oso bat: zaratea eta ura. Zoragarria izan da, barrero hona etortea eta barreraren indarra ikustea eta sentidutea.

Mundu osoko etorkinak dagoz: Europakoak, Afrikatik ekarritakoen ondorengoak, arabiarrek, indigenak, orientalak... Harri-garria da, eta polita. Munduaren ganera beste ikuspegi bat emoten deustu, aberatsagoa, osoagoa. Jentearen beharrianak jentea ekarri dau, eta ederra eta aberasgarria da ikustea zelan bizi diran euren sorlekuari lotuta, eta, aldi berean, Brasileko krisol honetako parte dira.

Hizkuntzea dakizun herri batetik hizkuntzea ez dakizun herri batera pasatea ez da erraza. Argentinan ez neukan ezelango pro-

blemarik galdetzeko eta erantzuna ulertzeko. Hemen, baina, apur bat bakartuta sentidu naz, *outsider* bat. Kristalezko mugea da, eta beste aldean geratzen jat mundua, batez be belarriagaz lotuta dagoana. Nagoan aldean, badagoz bestelako gauzak: ikusmenagaz eta gustuagaz lotutakoak. Ikusi ikusten dozuz: bazterrak, etxeak, jentea, naturea, jentea zelan mogiduten dan. Eta polita da. Edan egiten dozu: zukuak, frutea, ensaladak, okelea... Eta gozoa da.

Logelan Sao Pauloko neska bat dago eta etsita esan deust arrotz sentiduten dala bere herrian, ingeles gitxi dakiala-ta ezin dauela jente gehienagaz berbarik egin. Brasilen gagozan arren, bera atzerritar sentiduten da. Hostalean jente jatorra topau dot: Indiakoa, Greziakoa, Suitzakoa, Brasilekoa, Hungariakoa... Talde polita egin dogu, eta berba piloa egin dogu geure herrien ganean.

Uritik urrin dago, autobus bi hartu behar dira. Han erosi dot portuges ikasteko liburu bat. Gurako neuke sikeran apur bat ikasi eta berba egin. Ez dakit, baina, lortuko dodan. “Eu sou do Pais Vasco, meu nôme é Iratxe, como está?” eta apurtxu bat gehiago ikasi dot. Azentua ez dot atrapetan eta horrek gatx egiten dau jenteari ulertzea. Hizkuntzea ez da, osterantzean, horren gatxa, eta gaztelaniagaz nahiko lotuta dago.

Foz do Iguaçuko hostalean kapoeira irakasten dabe, doan. Hasieran gorputza nasaitu eta muskuluak luzatzen ibili gara. Gero mogimentuak ikasten bueltak emoten hasi gara, katarak igon, gorputza ezkerretara eta eskoatara... Oinarritzko mogimentuak. Irakasleari begiratuta, errez-erreza dala esan lei. Norbera egiten hasten danean, barriz, konturatuten da zein gatxa dan, orekeari eustea be ez da bape erraza. Hasieran sei neska eta mutil bat egon gara, aurrera joan ahala joan egin dira, eta azkenean, neska bi baino ez gara lotu. Onena, baina, orduantxe hasi da: beragaz kapoeirako mogimentuak egin doguzanean.

Gau baten diskotekara joan gara, hamar bat. Sanba gaua izan da. Talde batek zuzenean jo dau, eta luzaroan egon naz ikusten zelan egiten daben jantzan, neskak eta mutilak. Pentsetan dozu



horreen ondoan ezin dozula jantzan egin, hain sentiduten zara zatar. Eurak gorputz osoa mogiduten dabe, musiken notek euren gorputzean zehar mogiduko balira lez. Niri notak belarri barrura sartu, barruan zer dagoan ikusi eta ia mogidu barik urten egiten deuste.



## PARAGUAI: HIRU EGUN

Foz do Iguaçutik joateko egunean, hostala hain ona danez, pentsau dot egun osoa ugerlekuan emon, eta arratsaldean autobusa hartu eta Sao Paulora joatea. Eguzkia hartzen nagoala aurretik ezagututako lagun bi etorri dira, Indiako sikh mutil bat, Sonal, eta Greziako neska bat, Alexandra; Ingalaterran ezagutu eben alkar eta beste bategaz Hego Ameriketara etorri ziran. Esan deuste ea zergatik ez noan eurokaz Paraguaira. Ez da egon nire plan barruan Paraguaira joatea. Jenteak esan ohi dau hangoez ez dabezala gustuko atzerritarrak, eta bidaiari gitxi joaten dira gatxa ei dalako. Gehiago pentsau barik erropak aldatu eta eurokaz taxian sartu naz. Hamar minutu izan doguz zeozer jateko, eta autobusean sartu gara. Autobus zahar-zahar bat. Bost lagun baino ez gara egon: bikote bat (Brasileko neska bat eta Herbeheretako mutil bat) eta hirurok. Esan deuskue Foz do Iguaçutik Asuncioneraino lau ordu eta erdi baino ez dirala. Ordu bat eta erdietan sartu gara; halan ba, seiretarako han egongo gara.

Autobusean sartu eta hogeit hamar minutura Fozetik urten baino lehenago, autobusa gelditu egin da. Trafiko handia dabil, bueno, dago, ze ibili ez dabil. Handik hamar minutura gidariak esan deusku, portugesez, trafikoa ia lotuta dagoala-ta ez dogula hurrengo autobusa hartuko Ciudad del Esten Asuncionera joateko. Hurrengo autobusa hartuko ei dogu, bostak eta laurenetakoa. Ahal izan dogun moduan ulertu dogu. Geroago, baina, jakin dogu gaztelaniaz egiten dauela, antza Paraguaikoa da. Autobusetik

urten dogu. Bost ilarak ia geldirik dagoz, jenteak kotxeetatik urten dau eta bata besteagaz berbetan dagoz. Jatekoa eta edatekoa saltzen azaldu dira gizonak kotheen artean. Otzarea buruan daroe, zapi bategaz estalita. Tente doaz batetik bestera. Sonalek esan deusku Delhiko kale bat izan eitekeala, trafikoa lotzen danean jentea kanpoan berba egiten, denporea ahal daben moduan emoten ahalegintzen.

Handik ordubetera, astiro-astiro hasi dira kotxeak ibiltzen, eta autobusean sartu gara. Gero, ostabere, bajatu eta Brasiletik urteko pasaporte eta silua. Parana ganetik pasetan dan zubitik igarero, eta barrero bajatu: Paraguaiko silua.

Silua lortu eta gero, Ciudad del Esten sartu gara. Argentina, Brasil eta Paraguaiko mugak alkarren ondoan dagoz, eta Brasileko jente asko Ciudad del Estera joaten da erosketak egiten. Lehen argentinar gehiago be etorten zan; izan be, eremu zergabakoa izanik, elektronikako gauza asko sano merke dira. Uria nahiko motza da, hoge urtean asko hazi da-ta. Arratsaldeko bostak arte irauten dau jentearen joan-etorriak: jentea gora eta beheara aldean daroazan gauzak saltzen, xaflez egindako dendetan, kale nagusian eta inguruan: disk-manik onenak, bideo-kamarak, kamara digitalak, erlojuak, etxeko tresnak. Maletak, boltsak, oinetakoak, soinekoak, nahi dozuna erosi zeinke. Era guztietako karteletz josita dagoz etxeak, barruan daukiena iragarri guran: eskuz pintautakoak, argiz apainduak, burdinazkoak... Danetarik. Etxeetako beheko aldean dendak baino ez dagoz, salgai daukienak denda barruko eta kanpoko aldeak hartzen dauz. Eten barik hurbiltzen dira jentegana, hara hona goazen guztiok bezerogaiak gara. Hona datorrena zeozer erosten dator.

Kotxeak, autobusak, taxiak, bizikletak, jentea... danak batetik bestera dabilz, laino baten moduan inguratzen zaitue. Frutea saltzen dabenak be badagoz: fruta gozoa, zaporeduna.

Ciudad del Esten autobusa aldatu dogu, ia beterik egon da eta sakabanatuta jesarri gara. Kantsauta, loak hartu nau, lantzean behin begia zabaldu eta zerua kolorea zelan aldatuz joan dan iku-

si dot. Polita izan da. Gero iretargia agertu da eta ondo-ondoan, behean, izartxu bat, dir-dir. Asuncionera ailegau garanean izartu egin naz guztiz, eta ondoan izan dodan mutilagaz berba egin dot. Itaundu deusat ea bera be Ciudad del Estetik etorri dan. Eta baietz esan deust, asunciondarra dala. Ciudad del Estera joaten da gauzak merke erosten gero Asuncionen saltzeko. Ingurua polita dala-ta, jardunean egon gara. Hizkuntzen ganean galdetu deusat, beraren ikuspegia jakin guran. Guaranja eta gaztelania ofizialak izan arren eta biak eskolan irakatsi arren, guztiz gatx begitantzen jako guaraniz bakarrik egitea, eta jenteak guarañol egiten dauela. Halanda be, guaraniz jakin ezean, ezinezkoa ei da ulertzea.

Sei orduko bidaia egin dogu, agentzian esan deuskuen lau ordu eta erdi barik. Azkenean autobus geltokira ailegau gara, gaueko hamaiketan. Zorionez, informazino bulegoa zabalik egon da. Hostal merke bat esan deuskue eta taxia hostalak ordainduko dauela-ta joan gara. Joakeran, taxistek esan deusku hotela nahiko karua dala. Hotelean, ostera, informazino bulegoan esan deuskuen ez da egia, prezioan ez da sartzan taxiarena, ezta armozua be, eta ganera BEZa ordaindu behar dogu. Han egon gara Indiakoa, Greziakoa, Brasilekoa, Herbeheretakoa eta bostok ea zer egin behar dogun eztabaidatzen. Taxistek esan deuskue eurok beste leku bat ezagutzen dabela uri barruan. Taxistakaz prezioa adostu eta hara joan gara. Ia gaueko hamabiak hostalera ailegau garaneko. Ez da izan taxistek esan deuskuna... Baina lotu egin gara.

Ibilteko eta zeozer hartzeko gogoia daukagu. Hotelean esan deuskue 12etatik aurrera tabernak legez itxi behar dabezala. Paraje egon dan gasolindegi batera sartu gara. Nik, antza, motxileagaz batera hotelean itxi dot gosea. Autobusean egun osoa emon eta gero, ibilteko gogoia daukagu. Kanean ez dago ia inor, hotelaren aurrean daukagun parkean fruta-postu bat egon da, eta hantxe, gitarrearen eta gizon baten kantakerea entzun dogu, lagunak inguruan dauzala. Etxeak kolonialak dira, eta ikusi doguzan tabernak itxita dagoz; kioskoak, baina, oraindino zabalik dagoz.

Liburuek, aldizkariak eta egunkariak baino leku gehiago hartzen dabe kioskoan. Kanean dagozanak, gitxi, berbetan eta periodikua irakurten dagoz. Ibili eta ibili, eta halako baten, beherantz joateko kalea hartu dogu eta neskak erropa gitxigaz, minigonaz, takoi handiak eta arpegia makilauta ikusi doguz: bizimodua ateraten. Gero erreka aldera joan gara, etxe handiak, dirudunenak ikusi doguz. Eraikin zuri handi baten ondotik pasau gara, eta aurreko bedartzan oina imini orduko, polizia bat etorri jaku esanez ezin garala han ibili. Goizeko bederatziretatik arratsaldeko bostak arte baino ez dago baimenduta han ibiltea. Eta ezer gehiago esan barik alde egin dau. Gero jakin dogu parlamentua dala ondoan dagoan eraikin handia. Diktadurapean, inguruan inor ibili ezker, tiroa botaten eben galdetu baino lehen.

Egun argiz uria ikusten joan gara. Bero itzela egin dau. Erdialdean etxe gehienak ez dira handiak, eta hobeto ikusi doguz atzoko ilunpeko etxe kolonialak. Etxe batek hogeit hamar solairu inguru euki dauz, eta goian zer iminiko eta, BBVA. Dirutzaren jaubeak eraikinik handiena dauka leku guztietan, Bilbon zein Asuncionen. Egunkaria erosi dot, eta bertan leidu dot bolo-bolo dabilena: ustelkeria, legez kanpoko jarduerak eta lapurretak. Ustelkeria haizea lez zabal dabil hemisferio bietan, baina, hemen zabalago eta agirikoagoa da. Hego Ameriketara ahoz aho dabil Paraguaiko presidentek berak be ohostutako kotxea daukala.

Nahikoa plaza dago inguruan, arbolaz beterik eta jentea han eta hemen, jesarrita, berbetan, zutunik, umeakaz ikusten da. Jenteari begira nagoala, aurreko gaueko taxistek esan eustana gogoratu dot. Paraguaian klase biko jentea ei dago: zuriak eta indigenak. Taxian sartu nintzanean pentsau neban bera indigena edo ondorengoa zala, baina argi gura izan eban adierazo bera ez dala indigena, espainolen ondorengoa baino. Guk ikusten doguna eta eurek espiluan ikusten dabena ez datoz bat. Behar bada, errazagoa da guretzat, immigrau barik, hona etorri garrantzat, gure nortasunari eusteko inguruan dogun ahalegina lagun dogula.

Erdialdetik apur bat aldendu gara errekea ikusteko, eta han ikusi dogu ehun metro baino gitxiagoko eremuan: batetik, parlamentua eta trajedun gizonak, eta aurrez aurre, bestetik, txabolak eta neska-mutilak oinutsik. Batetik, agintariak, ustelkeria, diruztea. Bestetik, txabolak, bizimodu gogorra, herritarrak.

Alkarregaz egun bi baino ez badoguz egin be, berba asko egin dogu, batez bere, Sonalek eta biok. Indiakoa da, Sikh erlijinokoa. Aita medikua dau eta munduan zehar ibili izan dira aitaren beharra dala-ta. Saudi Arabian, Suitzan, Ingalaterran, Indian, Kandan eta AEBetan egondakoa da.

Sonalek euren erlijinoaz jardun dau. Jatorriz Indiakoak dira, Punjab alderdikoak. Han XVI. mendean Sikh erlijinoaren lehen profeta jaio zan. Sasoi haretan hindua eta islamismoa ziran nagusi. Lehenengo profeteak erlijino nagusien arteko burrukak ulertu ez, eta erlijinoen sakonean murgildu gura izan eban, desbardintasunak alde batera itxita. Batez be, hinduen kasta sistemea txarretsi eban. Hil baino lehen, beste guru edo profeta bat izentau eban. Horrek beste bat izentau eban hil aurretik. Azkenik, hamargarrenak, XVII. mendearen amaieran, sikh erlijinoa burujabetzat jo eban.

Sonalek esan deust berak orain ez dauala erabilten turbantetik (turbantea ibiltea sikhen beste bost elementuren artean bat da, generakoak: ulea ez moztea, ezpatea, egurrezko orrazia, metalezko besokoa eta barruko erropa berezia), eta ulea labur dauka. Kendu egin ebazan horrenbeste ez nabarmentzeko. Antza, gatx egiten jakozan jentearen begiradea, aurrereretxiak eta ezjakintasuna. Kontau deust zein zaila dan erlijino txiki batekoa izan eta mendebaldean bere nortasunari eustea, inguruko ia guztia bat ez datorrenean zure kultura eta sinismenagaz. Eta, aldi berean, azalaren koloreak ikusiezineko hormak altzetan dauzala.

Hurrengo egunean Asuncionetik urten dot, Alexandra eta Sonal Argentinara joango dira. Agur esan eta bideari ekin deustat. Lau ordu eta erdiko biajea izango dala esan deuste hemen be, baina barrero be sei ordu tardau dot Asuncionetik Ciudad del Este-

raino. Han beste autobus bat mugaraino. Gidariari galdetu deustat ea non bajatu behar nazen Paraguaiko silua iminteko, laster esan deust. Ez dira bost minutu pasau eta “Fronteira do Brasil” ikusi dot, zubian egon gara, galdetu deustat: eta aduana? “Ahaztu egin jat”. Bostak izan dira eta trafiko handia dabil. Zubiaren erdian bajatu behar izan naz, eta kotxeen artean 10 minutu egin. Paraguaiko silua imini eta 15 kilo baino gehiago daukan motxilea atzean daroadala, barrero zubira. Izerdi patsetan. Sargoria itzela da. Brasilen sartu eta aduanakoa eta biok alkar ulertu ezinik ibili gara, errazagoa izan da berak portugesez eta nik ingelesez egin dogunean. Eta silua imini deust.

Foz do Iguaçun zumo bat hartu, txosna antzeko tabernakoari guaraniak errealetan aldatu eta geltokiko autobusa hartu dot, Sao Paulora joateko. Ordu erdi afaltzeko. Autobusean hamalau ordu egin dodaz, hasieran bero eta gero hotz. Zuri bakarra neu izan naz. Ondoan andra lodi bat euki dot, eta mobiduten galarazo deust. Bidea luze egin jat.



## MUNDU OSOA, URI BAKARREAN

Goizaldean ailegau naz Sao Paulora. Bus-geltokia handia da eta jentez beterik dago. Komunera joan naz: arpegia eta haginak garbitu dodaz. Hobeto sentidu naz, garbiago. Informazino bulegoa ez da egon zabalik eta ordubete-edo itxaron behar izan dot. Jenteari begiratzen egon naz, pozik.

Informazino bulegoan aterpetxe bat aukeratu dot. Sarri alkarren artean ezbardintasun handirik ez daukien aterpetxeak dozuz aukeratzeko. Halan ez dago erizpide jakinik batera edo bestera joateko. Jakin barik aukeratzen dozu. Normalean aterpetxeetan bidaiariak egoten dira. Hemen, ostera, ia danak brasildarrak dira. Sao Paulora ikasten edo lan bila etorritakoak, edo ikastaroren bat egiten etorri diranak. Logelan Brasileko neska baten eta Italiako neska baten lagun egin naz. Brasilekoa Sao Paulora etorri da lan bila, eta Italiakoa beharrean dago; psikologia ikasketak amaitu baino lehen hona etorteko erea izan eban, eta lau hilebeterako izan behar zana daborduko sei hilebetekoa da. Brasilegaz maiteminduta dago. Fernanda, Brasileko neskea, sano jatorra da. Gaztelaniazko filologia egin dau, eta eskoletan-eta behar egin izan dau. Sao Paulora etorri da behar bila, baina, antza, nahikoa gatxa da, ama hizkuntza gaztelaniaz dauan jenteak horretan egiten dau behar-ta. Neska alai eta umoretsua da, hile osoak lanik topau barik igarotea gogor egiten jakon arren. Asko lagundu deust Sao Paulon mobiduteko orduan.

18 miloa persona bizi dira Sao Paulon, Euskal Herrian baino sei bider gehiago. Munduko txoko guztietatik etorritako jentea

ikusten dozu kalean: arraza guztiak, eta arrazen arteko nahaske-  
ta ederra. Harrigarria, zoragarria.

Herri ederra da Brasil. Berbakera gozoa daukie. Neuk be aha-  
leginak egiten dodaz euren berba gozoak neuganatzeko. Ikasteko  
liburua erosi nebanetik ekinean nabil.

Sao Paulo ezaguna da daukazan museoakaitik. Eta hori izan  
da hona etorteko arrazoi nagusia. Museoek bilduma onak dau-  
kiez, aro eta estilo guztietakoak. Museo de Sao Paulo ikusi dot  
lehenengo, museoen erreketan murgiltzen hasteko. Batez be, Bra-  
sileko pintore eta eskultoreen lana ikusi dot. Ederra. Arte galerie-  
tan be izan naz, eta Museo de Sao Paulon ikusi nebana barrero  
ikusi dot brasildarren pinturretan: argitasuna.



Memorial da America Latina  
edo Amerika Latinoaren Me-  
moriala, Sao Paulo (Brasil).

Sao Paulotik ezin joan Memorial da America Latinara joan barik. Eta metroa hartuta hara joan naz. Oscar Niemeyer arkitektoak sortu eban eremua da, zortzi eraikinegaz. Niemeyer bera izan zan Brasilia sortu ebana Amazonasen erdian. Memorial da America Latina egiteko idea Darcy Ribeirorena izan zan, Latinamerikako herri guztietako kulturak sustatu, zabaldu eta batzeko. Darcy Ribeiro antropologoa izan zan, eta hainbat ikerketa eta liburu egin eban indigenai buruz. Brasileko hezkuntza sisteman be eragin handia izan eban. Ekimen asko martxan jarri ebazan, Memorialez gan, Brasiliako unibersidadea, esaterako. Idazlea be izan zan, eta politikagintzan be ibili zan: senadore, ministro eta hainbeste kargu bete eban, Partido Democratico Trabalhista ezkerreko alderdiagaz. Brasileko intelektualik garrantzitsuenetakoa da. Memorialean ikuskizunak, erakusketak, dantzaldiak, foroak, mintegiak, ikastaroak eta jaialdiak egiten dabez, doan gehienak. Kulturea sustatu gura dabe alderdi guztietan, ez bakarrik artea, baita Latinoamerikaren ganeko jakituria be, horretarako gogoa biztu gura dabe. Eraikinetako baten Mexiko, Ekuador, Bolivia, Peru, Guatemala eta Brasileko hainbat kultura jaso dabe, musika tresna, jantzi, erreminta eta abarren bidez. Ederra da memoriala, eraikinetako hormak zuriak dira eta formak kurboak dira, gozoak. Baretasuna dario. Di Calvitini pintore brasildarraren koadroak ederretsi dodaz. Di Calvitini maiteminduta egoan Brasilegaz, eta argi erakutsi eban koadroetan. Beraren ustez, neska mulatoak Brasileko ikur ziran, ez ziralako ez zuriak ez baltzak, ezta aberatsak ez txiroak be, jantzan, musikea eta futbola gustetan jaken, brasildarren antzera.

Sao Paulon azokak be badagoz. Eta domekan artisautza azoka batera joan naz. Danetarik egon da han, baina, batez be, pinturak eta pintoreak. Pintore gazteak, zaharrak, baltzak, zuriak, orientalak, andrak, gizonak. Eta estiloak be askotarikoak. Danetarik, batzuk onak, eta beste batzuk, ez horrenbeste. Postuetan: lepokoak, eraztunak, erropak, boltsak, etxeko gauzak. Eta jatekoa. Horretan be batek badauka non eta zer aukeratu: Asiakoa, Brasilekoa, Afrikakoa.

Azokan zehar ibili nazan artean, gizon zahar bat ikusi dot, erropak sitsak janda eta lepoan loroa dauela. Bitxikeria. Aurrera jo dot jente artean, musikea entzun dot eta jesarri egin naz. Plazan dagoz musikariak, brasildarrak ei dira, bossa nova edo joten, inguruan zahar eta gazteak daukiezala. Gero beste talde bat etorri da, perutarrak dirala esan dabe. Entzuleen artean, batzuk joan, beste batzuk etorri. Gizon bat euki dot aurrean, edariak latatan saltzen. Lapiko handi baten izotz zati handi bat izan dau, eta latai izotz ganean eraginda hoztuten ibili da. Alde egin baino lehen, musikaldiak segidu dau, eta perutarrek Paraguaiko talde bati emon deutsie lekukoa.

Uria ikusteko, Sao Paulon dagoan eraikinik handienara joan naz. Metrotik urten eta bidea hartu dot. Aparta izan da metrotik eraikineraino ikusi dodana: eskaleak, eskubehar-saltzaileak, sexshopak, nesken showak eta pelikulak, dendak, eta Sao Pauloko burtsako kanpoaldean gizon gazteak, jaka barik, alkondara zuriak, gorbatak eta taldeka berbetan.

Eraikinean gora egiteko igongailuan sartu naz, eta nigaz batera mormoi bi. Uste dot Euskal Herritik urten nebanetik eurok dirala ikusi dodazan lehenengoak: Sao Paulo Brasileko uririk aberatsena da. Eraikinaren goiko aldetik Sao Paulo ikusi dot. Kutsadura handia dago eta ezin izan dodaz ikusi Sao Paulo inguruan dagozan favelak. Geroago jakin dodanez, poluzinoa hain handia izaten danez, lainoa 500 metrotik gora dago; gaur 450 metrora egon dira gitxi gorabehera-ta.

Handik urten eta japoniarren auzora joan naz. Ingalaterran Sao Pauloko japoniar bat ezagutu neban. Beraren gurasoak lanagaitik hara joanak ziran, eta banekian munduko japoniarren koloniarik handiena Sao Paulon egoana. Auzoan dagoan museoa ikasi dot XX. mendean japoniarrak franko hona etorri zala nekazaritzan behar egiteko, eta Japoniako pobretasunetik igesi. Asko eta asko hemen geratu zan. Metro geltokian nabaria da auzoan nagoala, begiak, ibilkera, ulea eta jazteko era: dana desbardina. Apur baten Japoniako uri bateko auzoa zelakoa izan leiteken ima-

jinan zeinke. Letreroak be bi hizkuntzetan daukiez, eta hainbat jantoki dago. Dendetan Japoniako artisautzea, aldizkariak eta kimonoak saltzen dabez. Japonia txiki bat balitz lez.

Agur esan behar izan deutsat Fernandari. Penea hartu dot. Bera Sao Paulon egon izanak asko lagundu deust, nora joan, zertan eta zelan. Bildur barik ibili naz berari esker. Nahiz eta esan Rio de Janeiro arriskutsua dala eta kontu handiz ibili behar dala, gogotsu joan naz gauez aterpetxetik urten dodanean metroa hartzeko.



## RIO DE JANEIRO, *BELEZA!!!*

Goizaldean ailegau naz Rio de Janeirora. Rioko autobus-geltokia askoz be txikiagoa da, Sao Paulokoa baino. Foz do Iguazun egon nintzanean Frantziako mutil batek hotel oso merke baten helbidea emon eustan. Bertara joan naz. Alde zaharrea dago. Bederatzirak oraindino joteko egon arren, sargori egiten dau, eta hostaleko eskailera ilunak mendi baten aldapa gogorra begitandu jataz. Eskaileretan aspaldi aldatu behar eben zura, erlojua bera be geldituta, eta garbitasuna be lehenean. Mutilak esan eustana baino karuagoa da. Kantsauta nago eta sarreran dagoan gizonagaz luzaroan berba egin eta gero, kuartua merkeago emon deust eta berton geratzea erabagi dot. Batez be, neka-neka eginda nagoalako. Kuartua txiki-txikia da, patio zikin batera jotzen dau bentanetak. Kuartua bera ez dago zikin, baina garbiagoetan egonda nago. Dutxa bat hartu behar dot ezertan pentsau baino lehen. Toallea hartu eta urtetako prest egon nazenean, labazorri bat ikusi dot. Soinean daukadana zikinago sentidu dot. Ekaitzegaz akordau naz. Tarapoton egon ginanean ahalik eta merkeen ordaintzarren, leku sano gogaikarri baten egon ginan. Holako lekuetan zagozanean zikin sentiduten zara. Jakin badakizu jentea holan bizi dana. Baina enpagua gatxa da ganetik kentzea. Norberak muga bat jarri behar dau, eta mugea, jakina, norberarena baino ez da. Dutxan erabagia hartu dot: beste leku bat topau behar dot. Rio arrisku-tsua dala dinoe, baina ezin naz berton geratu. Dutxau eta gero, garbi sentidu naz, baina inguruari begiratzean zikinkeria azalean

inketan jatala igarri dot. Antojugarria benetan. Telebisinoa dagoan gelara joan naz. Pentsau dot bidaiariren bat egongo dala. Gehienetan baten bat egoten da telebisinoari adi. Baina ez da egon inor.

Kalera begira tabernatxu ugari dago Brasilen. Normalean hogeitik gorako aukerea dozu zumoetan, eta jatekoa be emoten dabe. Jan eta gero apur bat hobeto sentidu naz. Alde zaharrear aterpetxe bat dago. Kostauta baina aurkitu dot. Bertakoek jatorren antza daukie, lekua garbia da, baina ez dago ia bentanarik eta nahiko iluna da.

Autobus geltokiaren alderdia sano arriskutsua ei da, baina zeezer gehiago bilatu gura badot hara joan behar naz. Han dago eta motxileroentzako informazino bulegoa. Autobusean favelen ondotik pasau gara. Telebisinoaren bestaldean ikusitakoa bentanaren bestaldean daukat. Informazino bulegoan esan deuste aterpetxeak ia auzo guztietan dagozala. Hotelean sentidu dodan antojua barruraino sartu jat, neure gorputz osotik zabaltzen sentidu dot. Aterpetxerik onenera eta garestienera joatea erabagi dot: Ipanemako aterpetxera. Hiru gauerako lekua hartu dot. Zamea ganetik kendu dot. Barriro autobusa hartu eta atzera alde zaharrrera joan naz. Kaleetan barrena ibili naz, bankuan jesarrita jenteari begira, zaharrek, gazteek zer egiten daben begira. Eguzkia ezkutau danean, hostalera joan naz. Telebisino gelan israeldar talde zaratatsu bat dago. Ea ingurua ahazten dodan, kuartuan liburu irakurteari ekin deusat.

Hurrengo egunean autobusa pozik hartu dot Ipanemara joateko. Auzo aberatsa da eta turistikoa, eta atzerritarra franko dago, eta atarrietan jentea eskatzen. Aterpetxea dotorea da, hotel baten antzekoa. Ahal dodan arinen, izena emon, kuartura joan, bikini jantzi eta hareatzara joan naz.

Agentzietan eskaintzen dabena aurrez aurre daukat. Esaten dabe Rioko persona ederrenak bertan Ipaneman dagozala. Halanda ze, zeregin ederra da jenteari begiratzea hondartzan etxunda zagozala. Hemen sortu eben Tom Jobinek eta Vinicious de Mora-



esek “A garota de Ipanema” kantu ezaguna. Hondartzan, eta neska izanda, laster etorten jatzu mutilen bat berba egiteko, beti dagoz prest ligetako. Egia esanda aukera parebakoa da portugesa ikasteko.

Aterpetxean danetarik dago, baina, batez be, Britainia Handiko, Kanadako eta Australiako jentea. Hau ganerako hostalak baino karuagoa izanda, israeldarrik ez dago. Tartean brasildar bat ezagutu dot, Sidney, oposizinoak egiten etorri da Riora, eta ikasi dodan portugesa apurra beragaz praktiketan ahalegindu naz.

Bigarren egunean be hondartzara. Eguna trankil igaroteko behar dodan guztia daukat: eguzkia, itsasoa eta liburua. Hondartzan danetarik saltzen deusue: erropea, eguzkitako betaurrekoak, eratzunak, lepokoak, pareoak, bikiniak... edatekoa eta jatekoa be.

Luzaro geratuko nintzateke, portugesa ikasi, lan egin eta honegaz guztiagaz gozau. Geratzeko gogoia beste inon baino handiagoa daukat, sano erakargarri egiten jat.

Rion topiko guztiak beteten dira. Pobrezia handia da. Hondartzan zagozala favelak ikusten dozuz mendien altzoan. Hareatzara bajetan diranak gauzak saltzeko etorten dira, baita eguzkitan egoteko be. Ipaneman eta Copacabanan jentea kalean bizi dala ikusten dozu. Gehienak baltzak edota indigenak dira, gitxi dira pobre eta zuriak. Eta horren guztiorren ondoan: denda karuak, jatetxe eleganteak, kotxe handiak eta dirudunak. Eta geu.

Ipanemako aterpetxean ahaztu egin jat esatea egun gehiago lotzeko amesa daukadala, eta ohea hartuta dago. Beharginak ez dira bape jatorrak. Copacabanara joatea erabagi dot, nahiz ta Copacabana Ipanema baino arriskutsuagoa ei dan. Ikusiko dogu.

Copacabanako aterpetxea gozoa da, nasaia goa, ez dago horrenbeste jente. Persona sano jatorrak topau dodaz. Berton behar egiten dauena Parisekoa da eta hainbat lekutan bizi izanda: Londres, Italia, Alemania eta Japonia. Persona trankila da, apala. Mutil australiar bat be ezagutu dot. Japoniara joan zan ingelesa irakatsi eta beste kultura bat ezagutzeko. Hasieran

pentsau baino luzaroago lotu zan. Behin-behineko bizimodua izan dauala begitandu jako. Joan zanean dana barria zan; azken urtean, baina, ezaguna zan dana. Japoniarren bizimodua gogor egin jako, lar arrotza ei da berarentzat. Azkenean, aurrera jarraitu baino lehen, bizimodua eten eta Hego Ameriketara etorri da. Hileak behar ei dauz pentsetako Australian zer bizimodu gura dauan, zelako beharra gura dauan.

Hego Ameriketara etorri dan persona bakotxak arrazoi bat, edo gehiago, dauka hona etorteko. Asko eta asko atsedenaldi bila etorri dira, euren bizitza aldatu gura daben jakiteko, eta aldatzekotan norantz, zer egiteko. Oso jente interesgarria topetan dozu, zugaz alderatuta sano bizimodu diferentea izan dabenak, ibilbide guztiz bestelakoa izan dabenak.

Horrek guztiorrek zer pentsau eragiten deust. Aukerak hain dira zabalak, hainbeste bizimodu, hainbeste bizitza, hainbeste leku, hainbeste kultura, hainbeste persona. Benetan aberasgarria. Norbera zalantzan jartzea ekarten dau horrek, zalantza aberasgarria. Askotan begitantzen jat Euskal Herrian hain gagoz geure munduan sartuta, ahaztu egiten jaku bestelako bizimoduak posible dirala. Posible eta egingarriak. Etxeaz, kotxeaz eta beharraz gaindi badago landa luze eta zabala, askotan ikusi ez arren. Etxe hori, kotxe hori eta behar hori, bera izateko be modu asko dago. Ahaztu egiten jatzuz, benetakoak ez balira lez. Edo jakin arren, asago ikusten doguz.

Copacabanako hondartzara joan naz. Polita da. Ura ezin hobeto dago, eta hemen be jardunean nabil etorten jatazan mutilakaz. Bata gitarra eta guzti etorri jat, eta han egon gara kantetan. Minas Geraisekoa da eta kostaldera etorri da opporretan.

Jatordu ederrak egin zeinkez hondartzan saltzen dabengaz: izozkiak, langostinoak, gaztaia, berotuta eta oreganoz, enpanadak... Beste mutil bat be ezagutu dot, edariak saltzen dabilena. Berak esan deustanez: baltzerandu, jentea ezagutu eta neskakaz ligetako. Hori da hori lana beste modu batera hartzea!

Sao Paulon ez, baina hemen favelak ikusi egiten dira, hainbat mendi txiki dago Rion, eta bertan eregi izan dabez txabolak. Han bizi diranak urira etorten dira eta saltokietan, saltoki ibiltarietan, atezain, garbitzaile eta era horretako beharretan ibiltzen dira.

Riotik ezin lei joan O Cristo Redentor ikusi barik. Autobusa hartu, eta gero taxiz joan naz beste batzuk batera. Brasileko bikote bat, guztiz maiteminduta, eta Suitzian bizi dan austriar bategaz. Mendi txiki baten ganean dago O Cristo Redentor, oinez joan zaitezke, baina bakarrik ez. Favelen parean dago ibilbidea, eta nahiko arriskutsua ei da. Taxiak geldialdia egin dau, gungandik hur, etxeak eta favelak, aberastasuna eta txirotasuna, alkarren ondoan. Gora igon eta gero: O Cristo Redentor. Handia, Art Deco estilokoa. Handik goitik ia uri osoa ikusi dogu: hodeiek estali ez dabena behintzat. Bidean be etxe dotoreak inguruan lursailak daukiezanak, eta ondoan favelak, txabolak eregiteko lursaila baino ez daukienak.

Euskal Herriko lagun baten laguna Rion bizi da. Julie dauka izena eta AEBetako da. Harenera joan naz, han beste neska bi be izan dauz bisitan: Brasileko bat eta Italiako beste bat. Juliek Angolan behar egin eban NBEEn, eta han ezagutu eban Brasileko neskea. Eta, brasildarrak, barriz, Londresen ingelesa ikasten. Brasileko neskeak esan deustanez, Brasilen esklabu ia guztiak baltzak ziran, zuriak esaten eben indigenak alperrak zirala, eta oraintsura arte holan agertu izan da testu liburuetan. Izan be, indigenek ez eben gura zurientzat behar egin.

Laurok hemengo parke batera joan gara. Bertan etxe dotore bat dago, 1920ko hamarkadan eregitakoa. Bikotea etxearen eta inguruaren jaube zan. Andrea, Italiakoa eta opera kantaria, eta gizona, brasildarra. Andrearen gustura eregi eben etxea, XX. mende hasierako arkitektura estiloa erabilia: patioaren erdian ugertoki bat, eta marmola franko. Gaur egun etxea arte ikastetxea da. Parajea ederra da, ingeles batek diseinatu eban lorategia eta bidea. Sasoi baten uria hasi baino lehen lorategi botanikoa be euren eremuan egoan; orain bananduta dago. Lorategian torre bi

dagoz: bata, arroken artean, estalaktikta eta guzti, andrearentza-ko eregia, bere ahotsa entzun eian. Beste torreko beheko aldean zulo bi dagoz, bata hezea eta iluna eta bestea uragaz. Biak esklabuak zigortzeko erabilten ebezan.

Unibersidadean behar egiten dau Juliek, eta han neska bat ezagutu dau, irakaslea, favela baten bizi dana. Esan deuskunez, favelan agintea gitxi batzuen esku dago, eurek ezarten dabez bete beharreko arauak. Behinola Julie eta neskea beste uri batera joan ziran jardunaldietara. Belu ailegau ziran Riora, gaueko hamaikak jota. Neskea ordurako ezin zan favelan sartu, debekatuta ei dago sartzea edo urtetea gaueko hamaikak eta goizeko seirak bitartean.

Bortizkeriagaitik be ezaguna da Rio. Arriskutsua. Baina esan behar dot hamar egunetan ez nazela inoz sentidu ahul edo babes barik. Ez dot izan ezelango problemarik. Are gehiago, dana erraz izan dot. Egia esan, neu be kontuz ibili naz, gaueko ordu txikietan ibili barik. Erropea be zahartuta daukat, bost hilebete pasau eta gero. Erlojurik edo bitxirik ez daukat. Ez daukat ezer ohostuteko. Kamarea be lagunduta baino ez dot ateraten. Halakoetan jenteak dinoana eta batez be senak agintzen dauena bete behar dozu.

Juliegaz Santa Teresa auzora joan naz. Menditxu baten ganean, etxe zahar eta dotorez beterik dago. Han bizi da gaur egun pintore eta artista asko, eta giro berezia sortu dabe. Riotik igoteko aspaldiko funikularra dago, eta ederra da egiten dauen bidea. Joan garan egunean jai izan da, eta kalean antzerkia, konpar-sak... ibili dira. Brasildarren bizipozaz kutsatzeko erarik errazena.

## IPARRALDERANTZ

Riok harrapau egiten zaitu, eta ez zaitu joaten ixten, gozotan hartzen zaitu eta gatxa da alde egiteko erabagia hartzea. Rion eza-gutu dodazanek pentsautakoa baino denpora gehiago emon dabe: hondartzak, jenteak eta giroak sorgintzen zaitue. Dilema bat daukat. Nahi izan ezker, hemen geratu naiteke, eta hemendik Euskal Herrira joan. Neure baitan dago erabagia, gura dodana egin neike. Ez deust ezerk galarazoten hemen geratzea. Bai, halan da. Baina Salvador de Bahia ikusi gura dot. Esaten dabe Brasil zela-koa dan jakiteko beharrezkoa dala hara joatea, Afrikatik ekarri ebenen ondorengoen kulturea, Brasileko kulturea be badana, han dagoala. Aldi berean, Rion uste baino luzaroago geratu naz eta nahiko garestia da. Bigarren arrazoi hori be nahiko garrantzitsua da, kontuan izanda lau hilebeteko dirua seigarrena bete arte luzatu gura dodala. Momentuz miraririk ez dakit egiten, eta daukadan diruagaz moldatu beharko dot.

Ganera, hona barriri etorteko gogoia izango dot gero be. Ez daukat zalantzarik. Beharbada igarotako guztia altxor baten moduan gura dot gorde. Hori izan leiteke hemendik joateko ezkutu arrazoa.

Brasileko azken geltokia Salvador de Bahia izango da. Han hartuko dot abioia etxera joateko. Hara ailegau baino lehen, bidean geratuko naz. Kostaldeko hareatzak sano ezagunak dira: eder-ederak ei dira. Juliegaz ezagutu dodan Brasileko neskeak esan deust Porto Seguro, Troncoso eta Arraial d'Ajuda oso politak dira-

la, eta hareetako batera joateko. Autobusera sartu naz erabagi barik nora joango nazan.

Hurrengo goizean autobusetik bajatu nazenean, Ipar Euskal Herriko mutil bi ezagutu dodaz. Atzerritar bakarrak izan gara eta laster berbetan hasi gara. Motxileagaz hain trankil ikusi nabenean, pentsau dabe badakidala nora eta zelan joan. Lehenengo ingelesez, eta gero nongoak ginan jakinda, euskeraz, bategaz, besteak ez dau-eta euskeraz egiten. Oporretan etorri dira hiru asterako. Alkarregaz hartu dogu hurrengo autobusa: Arraial d'Ajuda.

Herrian errentan hartu dogun lekua zoragarria da: pizsinea, baktxak logela bana dauka, palmondoak, lora ederrak daukiezan landarak, hamakak. Herria be ederra da. Lehen hippyen herria izan zan, eta oraindinokarren badauka kutsu berezia. Etxeak kolore askotakoak dira, txikiak, gehienez pisu bikoak. Arboleak harrizko bideak estaltzen dabez. Bijaie agentzietan saltzen dabena, han paradisua esaten jakona.

Hareatzara joan gara: itsasoa, harea, palmondoak, arbolak, bedar berdea, jente gitxi, kainaberaz eta egurrez egindako tabernak, hamakak, aulkiak eta mahaiak... Hareatzan nire portugesa hobetzen saiatu naz. Izan be, esan lei hizkuntzea ikasteko gurai-zana berez datorrela, leku zoragarriaz eta jente zabalaz inguraturta egonda.

Hotelean geu baino ez gara egon. Behar gitxi dago orain, laster udagoiena izango da-ta. Behargin bi dagoz, neskea eta mutila. Esan deuskue ea *churrasco* bat gura dogun. Baietz. Dirua imini eta eurek preparau dabe dana: ensaladea, okela errea eta zerbezak. Oporretan gagozala dirudi: palmondo azpian hotelean jaten, lantzean behin pizsinara sartzan eta hamakan etxunda.

Herria nasai-nasai dago. Honezkero udatiar gehienak joanda dagoz. Tabernak nahiko hutsik dagoz eta gauez jente gitxi dabil. Arrakadak, lepokoak eta abar saltzen dabezan postuak dagoz gauero herriko plazan. Gau baten Ortzik eta lagunak daukien gida liburuan agertzen dan jatetxe batera joan gara, arraina ondo egiten dabela-ta. Afaldu eta gero, osteratxua egin dogu. Herriko

alderdi baten turistai begira egindako hotelak dagoz. Hotelak, denda txikiak jantzi eta bitxi dotoreakaz, europarrontzat “paradisu” giroko tabernak... Eta adineko gizonak, bertoko neska gazte-gazteakaz.

Argentinako mutil batek esan deust hareatzatik Troncoso herrira joan geintekezala. Eta horixe egin dogu hurrengo egunean. Armozuaren ostean joan gara. Alderdi batean itsaso urdina eta olatu zuriak daukaguz, zeruan ia hodeirik ez, urdin-urdina, oinen azpian harea eta ura, eta beste alderdian hareatza eta egurrezko tabernatxuak, arbolak eta landarak. Ingurua benetan ederra, edonora begiratzen dozula be. Ederra benetan. Ordubete-edo ibilten egin dogunean jentea franko ikusi dogu hareatzan, taberna biren aurrean: etxunda, uretan, berbetan. Eremura ailegau eta eskuetan eskumuturrak ikusi deutseguz. Hartu daben eremu txikia zehar-katu eta aurrera egin dogu.

Erreka sakon bat pasau behar izan dogu. Erropak eta boltsea buruan ipini eta han pasau gara. Azkenean heldu gara: hiru ordu eta erdi ibilten! Aukera bi dagoz: bata ez gagozala sasoian, bestea argentinarraren erlojua txarto egoala. Pentsau dogu bigarrena izango dala, gauzak itxi eta uretara sartu gara. Pozik! Olatuak handiagoak dira alderdi honetan eta surfa be egiten dabilz. Uretatik urten eta koko bat eskatu dogu edateko. Kokoari zulo bat egin eta zuloan plastikozko tututxua sartzen deusie. Edaten dozun lehen kokoaren urari lar gogorra erexten deusazu. Bigarrenetik aurrera gozetan hasten zara. Eguzkitan egon gara, ederto baten.

Gatx egiten jaku hiruron artean berba egitea. Ortziren lagunak ez daki euskeraz, eta gaztelaniaz be gitxi. Nik ez dakit frantsesez. Zatika jarduten dogu. Halanda be, gustura gabilz alkarregaz. Ortzik Euskadiko Orkesta Sinfonikoan bibolina joten dau. Aurretik Espainiako gazte orkestan egon zan, baina Euskadikoan joteko aukerea izan ebanean, hartu egin eban.

Osteratxua egiten joan, eta ederra izan da ikusi dodana: herri-tik datorren erreka nasaia, hareatzan barrena, itsasoko eta erre-

kako urak batzen diran lekuan bertan, hareatzan, egurrezko txabolatxu bat, txiki-txikia, teilatua be egurrezkoa, bentanatu bi eta atarian arkupetxu bat. Ondoan Rastafari izeneko barkua, hau be egurrezkoa. Atzekaldean arbolak, palmondoak eta landara ugari. Hareatzan familiak batera eta bestera joaten, umeak uretan olgetan. Arpegiei eta begiei zoriona darie; momentukoa baino ez bada, ezinezkoa jakitea, ez naz hemen bizi-ta. Baina nik halako poztasun berezia igarten dot barruan, nizaz gan dagoana.

Gauzak hartu eta herrira joan gara, aldapan gora. Troncoso ederra da; egurrezko etxeak, hainbat kolorez pintauta, etxe aurrean jentea trankil berbetan, umeak olgetan, bizikletan. Nasai-nasai. Dutzau eta barrero autobusera Salvadorrera joateko. Hamazazpi ordu: lo gozoan egingo dot.



## AZKEN GELTOKIA: SALVADOR DE BAHIA

Gaua autobusean emon eta gero, Salvadorreko autobus geltokian haginak eta arpegia garbitu dodaz. Uriaren ganeko informazioa lortu eta gero, autobuserantz joan naz. Bidean gizon bat hurreratu jat, taxia eskaini deust. Ezetz esan deustat: autobusa merkeago da. Horren ostean, beste gizon bat, nik ezetz esan ahal, bera prezioa bajatuz joan da. Taxia ez da egon taxi geltokian, eta arraro egin jat. Handik paraje egon da, niri luze egin arren, gasolindegi baten ondoan. Heldu garanean, taxia ez da izan legezko taxia, kotxe normal bat baino. Hari guztiari arraro eretxi, eta alde egin dot autobusera. Okerreko autobusa hartu dot, eta Pelourinhora barik beste leku batera joan naz. Kostauta topau dot behar izan dodan autobusa. Zorionez!

Porturaino joan naz autobusean. Gero igongailua hartu dot. Alde zaharra menditxu baten gainean dago, eta hara joateko igongailua behar da. Peulorihno ederra da, esan izan deustenez. Harrizko kaleak, kolorez pintauteko etxe zaharrak eta eleizak... Praza de Sétik joan naz, eleizen artetik, aldapan behera.

Aterpetxe bila ibili naz. Auzoa aterpetxez eta hotelez josita dago. Aterpetxe bateko beharginak irribarre zabal bategaz onena euren dala esan deustanean, barrea eragin deust eta hara sartu naz.

Kuartuan Ipar Euskal Herriko neska bat, Miren, dago, nire ondoan ganera. Beragaz luzaro egin dot berba: unibersidadea amaitu barri dau eta urtebete egiten Hego Ameriketara etorri da.

Idea ezin hobea. Atzera etxera joaten danean, gurako leuke Ipar Euskal Herrian bizi eta behar egin, baina gatxa da, eta kanpora joango ei da.

Ipar-ekialdea Brasileko alderdirik pobreena da. Pelourinho be nahiko pobrea da, nahiz eta etxeak nahiko ondo dagozan. Salvadorreko udalak orain denporea dala hartutako erabagiaren ondorioa da: alde zaharra barriztau turismoari begira. Brasil da munduko bigarren herria baltzen populazinoari jagokonez. Eta ipar-ekialdean bizi dira gehienak. Halanda ze, zuri bakarrenetakoak kanpotik etorritakoak gara. Kanean rastak dagoz, jantzi zuri tradizionalagaz jantzitako andreak, *bahiana* esaten deutsee, argazkiak aterateko prest; andra horreetariko batzuek mahai bat daukie *aracaju* saltzeko, eguzkitako handi baten pean. Izan be, bero handia egiten dau, baina ez da itogarria, gozoa da. *Aracaju* iparraldeko ohiko janaria da: urin eta uragaz opila egiten dabe, prijidu eta erditik zabaltzen dabe eta hiru-lau saltsa sartzen dabez eta ganbak, eta eskatu ezkeroko pikantea be izan leiteke. Gozogoza da.

Kapoeira be honetatik alderdionetatik zabaldu zan Brasil guztira. Dantza-burruka da, ez dakie ziur non sortu zan Afrikan ala Brasilen, baina argi dagoana da baltzek sortua dala. Hemen esklaboek garatu ei eben igesaldian zuriakandik babesteko. Taldean egiten da, alkarrizketa moduko bat sortzen dabe biren artean: gozoa, erasokorra, elegantea. Bikoteak gura dauena.

Aterpetxean oso giro ona dago. Langileak sano jatorrak dira, beti dagoz prest jenteagaz berba egiteko. Hareetariko bat beti dabil neskakaz berba egin guran eta barre piloa egiten dot beragaz. Ingelesez ikasteko liburu bat dauka, eta ikasteko daukazan esaldien artean: zein polita zaran, nahi dozu zeozer hartu, oso berna ederrak daukazuz, ikusi dodazan begirik politenak daukazuz... Benetan berak gura eta behar dauzan esaldiak dira!! "The pen is on the table" baino gehiago.

Gau baten aterpetxean berbetan gagozala, musikea entzun dogu kanpoan, nahiko altu. Astebarrua da eta ez da martitzena:

ez da jai eguna Pelourinhon. Kanpora urten dogu jakiteko zer pasetan dan, eta apur baten ibili eta gero, kotxe bat ikusi dogu, musikea ozen-ozen daukana. Maitasunaren ganeko kantutik bat da, brasildar batek esan deuskunez. Zerbitzu bat ei da. Antza nahiko zabaldua dago Brasilen, eta neskek zein mutilek egiten dabe. Euskal Herrian lez! Begiakaz be batzuetan ez gara kapaz ezer adierazoteko eta!

Kuartuan Brasileko neska bat dago, Amelia, oposizinoak egiten etorri da Salvadorrera. Morro de Touro alderdira joan gara aspaldiko lagun bat ikusteko amesagaz. Etxea faveletan ikusten diranen antzekoa begitandu jat, bakuna. Laguna ez da egon etxean. Amelia bera be etxe txikitxu baten bizi ei da, ama, aita, izeko, osaba, neba eta ahiztakaz. Gurako leuko oposizinoak gainditu eta behintzat hobeto bizi.

Morro do Touron laku txiki bat dago, eta bertan 12 figura, uretan eta bazterrean. Afrikatik ekarri ebezanean afrikarrek erlijinoa eta kulturea eurakaz ekarri ebezan. Brasilen debekatu egin eben. Katolizismoaren alderdi batzuk eurenagaz nahastau ebezan, sinismenai eusteko. Morro de Touron agiri diran figurak Afrikatik ekarri eben erlijinoarenak dira. Kuban eta Karibeko beste leku askotan lez, sinismenek aurre egin deusie denporeari. Etxerako bidean, koko bat edan dogu. Kokoak saltzen ume bat egon da, esan deuskunez osabarena da dendea, eta berak eskolatik urten eta gero han egiten dau behar gurasoai laguntzeko. Geroago, *aracaju* bat jan dogu, ezin hobek biak be. *Aracaju*-a jan dodan onenatarikoa izan da. Saltzaileagaz jardun dogu. Aurreko gauean egiten dauz *aracaju*-ak, hiru ordu edo behar izaten dauz. Eta goizean danak saldu arte gaur ikusi dogun txokoan egoten da. Ondoan eskolea dagoela-ta, ondo saltzen ei dau.

Gau baten egongelan batu gara Hamsa, aterpetzekoa eta Ingalaterrako mutil bat. Laster zerbezak hasi dira dantzan. Handik gitxira Ingalaterrako neska etorri barri bi batu jakuz. Berbak eta zerbezak alkarren ondolik joan dira, baita barreak be.

Ingalaterrakoak Salvador alboan dagoan Morro de Sao Paulo islara joateko asmoa daukie eta eurakaz batzea erabagi dot. Hamsa be etorriko da, eta Kroaziako mutil bi. Ingelesak egun bi lehenago joan dira Morro de Sao Paulora. Hamsa eta biok martitzenean parrandatxua egiteko gogoia izan dogu eta eguaztenean joatea erabagi dogu.

Ameliagaz urten dot gauean. Martitzena da eta jaiak dogu Pelourinhon. Txosna txikiak iminten dabez, zerbezea eta edariak saltzeko. Txosna batzuetan kaipirinha eta koktel bereziak egiten dabez, eta gozoak ganera. Hurrengo eguna jai-eguna da Brasilen eta inoz baino jente gehiago dabil kalean: danak dotore-dotore. Jai handia hasi orduko kaleetan ibili da danborradea edo batuca-da izenekoa. Jentea atzean doa jantzan. Guk sekula ikasiko ez dogun moduan, duda barik. Iluntzean kalean zeozer jan eta kontzertura. Olodum taldeak jo dau; taldearen 25. urteurrena izan da eta jai ederra egin dogu. Olodum Pelourinhon sortu zan perkusi-noagaz musikea lantzeko. Auzoan eragina izateko asmotan eratu eben taldea, umeai eta gazteai musikea irakasteko eta bide barriak eskaintzeko, pobreziak harago.

## *SAUDADE*

Hurrengo egunean osteagaz izartu gara. Halakoetan norberaren mundua astiroago joaten da. Aurreko egunean eskatutako taxiari itxaroten egon gara. Barkuak urten baino hamabost minutu lehenago jakin dogu ez daukagula taxirik portura joateko. Motxileak inoz baino pisu handiagoa dauka. Hasi naz bueltarako erregaluak erosten eta lepoan igarten dot. Eta, ganera, ajea, eguzkia baino txarragoa da! Arineketan joan gara, igongailua hartu, bajatu, barriro be arineketan eta portura ailegau gara. Azkenengoak gara! Normalean barkuetan larri paretan naz. Ez larritzeko pastilak motxilan dagoz, zulotxuren baten, nik topau ezin izan dodana. Lehenengo ordu erdia ondo egon naz. Hurrengo hogeta hamar minutuan, egon ezinik. Eta horren aurreko ordu eta egunekoa eta aste osoan jan dodanak gorputzetik urten gura izan dau, tamalez, ahotik. Txarto pasau dot. Buruari ezin ondo eutsi, barrukoa gora eta behera, zutunik egoteko ahul. Haizea ez dabil jesarri ahal nazan lekuetan. Kantsauta nago baina ezin naz etxun, gehiago nahastauko nintzateke-ta. Azkenean ailegau gara. Ingalaterrakoak itxaroten doguz.

Morro de Sao Paulo Salvadorren aurrean dagoan isla bat da. Islan motordun ibilgailu bakarra dago. Ez dago bide bat be asfaltauta. Kaian taxiak jatorkuz, orgatilan halan dino: “taxi”. Ez dakit orgatilik norbera eroan ahal dauan! Oraindinokarren nahiko makal nago, erdi zorabiatuta. Hostal bat topau, dutxau eta barriro kalera. Ingalaterrakoek afaria egin dabe: okela errea

eta ensaladea, errentan hartu daben etxean. Barriro martxan. Zumoak eta pattarragaz nahastetan dabez, eta ezin hobea da. Hareatzan egon gara edaten: harea oinen azpian, musika ona, itsasoa.

Hurrengo eguna hareatzan eta uretan emon dot. Lekua nahiko paradisiakoa da: ur urdina, palmondoak, landaratzea, etxe txikiak eta koloretsuak, txalupatxu bat arrantzan. Zeruan hodei zuriak eta eguzki gozoa. Bertokoakaz berba egin, lagunakaz berba egin, irakurri, idatzi eta norberaren buruagaz egon. Isleak horretarako astia emoten deutsu, horretarako lekua be bada: laster Euskal Herrira joan beharko naz.

Rio de Janeiron bueltarako billetea erosi neban, baina Madrilera bakarrik. Morro de Sao Paulon Madriletik Euskal Herrirakoa erosi dot. Poza ez da sentiduten dodana hemendik joan behar nazalako. Hasierako lau hileko joan-etorria sei hilebeteko biae bihurtu jat. Biaejo bizimodura ohitu naz: jentea ezagutu, leku barriak ikusi, batetik bestera ibili iparrorratz barik, bihar-etzi zehatz-mehatz zer egingo dodan jakin barik, jenteari gauza barriak entzun, beste bizimodu batzuk ikusi, hur sentidu.

Bigarren egunean Morro de Sao Paulon bakarrik egoteko behar handia euki dot. Islan hainbat hareatza dago, eta laugarrenaraino joan naz. Egun osoa bakarrik emon dot, pentsetan. Uretan, eguzkitan, nasai egon. Andra bat pasau da umeagaz, eta edateko kokoa erosi deusat. Gero frutea euki dauen bateri: aguakatea limoiagaz eta gatzagaz, eta piñea. Biaeja amaitzear dago. Halan eta guzti be, ezin dot Euskal Herriaz pentsau. Biaearen ganera gogoetea egin behar dot, gatxa da. Emozinoak eta sentimenduak nahastetan jataz.

Aterpetxerako bidean Kroaziako mutilagaz eta Ingalaterrako mutil bategaz topau naz. Apur bat aurrerago Hamsagaz topau eta han geratu naz berbetan luzaroan, bizitzaren ganean... Hau amaitzear dago, eta badaukat barruan moropiloa, Hamsagaz berba egiteak askatzen lagundu deust. Euria goitik behera gogor egi ten hasi dan arte. Hareatzako tabernetan babestu gara.

Hurrengo egunean Salvadorrera joateko txalupa azkarrean joan gara, hogeit bat izan gara. Danak brasildarrak, lau izan ezik. Israeleko bikote bat, neska bat eta neu. Bueltako biajea hasi da niretzat, Morro de Sao Paulo itxi, gero Salvador itxi beharko dot eta horregaz batera Brasil, Hego Amerika eta egiten nabilen biaje zoragarria. Ezin izan deutset eutsi malkoai arpegian irristatzen, ezin. Han joan dira malko gaziak itsasoagaz batera. Zerua urdin egon da, lainoak gero eta gehiago, gero eta ilunago, itsasoak be zeruaren kolorea hartu dau, eta bera be gero eta ilunago. Olatuak gero eta handiagoak dira. Marinelak txubaskeroak banandu dauz. Ez dot gura izan, gurago dot busti eta itsaso eder honen gatza eta ura sentidu. Olatuak handi-handi egin dira, eta txalupatik begiratuta are eta handiagoak dirudie. Zerumuga ikusten ez dodanean, ikaratu egiten naz, ur azpian gagozala esan lei, urpean egon ez arren. Momentuz zerua dogu goian, haizea inguruan. Halanda be, izuak leku bildurgarrietara eroaten zaitu. Helduko ete gara? Normala ete da? Noz, baina noz, ikusiko dogu lurra? Euria dogu lagun. Euritan, uretan eta zeruaren iluna, itsasoarena balztu dauena.

Zorionez azkenean lurra ikusi dogu, aurrean dogu Salvador. Eta, halanda be, luze-luze egin jat portura ailegau arte. Atzerriko neskea eta ni azkenak izan gara, eta berbetan hasi gara. Bera orain dala hiru aste ailegau da Brasilera. Hungariakoa da baina Ingalaterran bizi da, Fanny dauka izena. Gaztelaniaz oso ondo egiten dau. Aurretik egon nintzan hostalera joan gara.

Arratsaldean Fannygaz egon naz. Bere bizitzaren eta familia-ren ganera jardun dogu. Beharrean estresauta egoala-ta etorri da Hego Ameriketara. Buruan eban amesetea beteteko. Lana hile batzuetarako itxi egin dau, eukan bizimoduaren ganean hausnartzeko, zer gura dauan hobeto ikusteko. Hungariarra bada be, Yale-eko unibersidadean ikasi eban, AEBetan behar egin eta gero, Londreseko Cityra joan zan. Budapestera oporretan baino ez ei da joaten. Gurako eban bertan bizi, baina Londreseko bizimodua asko gustetan jako, eta Budapest txiki eta urrin sentiduten dau, aukera gitxiagaz.

Fanny judegua da, baina ez dauka antzik Hego Ameriketean ezagutu izan dodazan israeldarrakaz. Aititaren aitak 20ko hamarkadan abizena aldatu eban, judegu kutsua kendu guran, eta giro antisemiteari bizkar emon guran. Sasoi haretan, gobernuak judeguen kontrako legeak onartu ebazan. Bigarren Mundu Gerran judegu askok erbestetu behar izan eban, asko berez hil, eta beste asko kontzentrazino-esparruetan hil ebezan. Fannyk segidu deust kontetan azken hamarkadotan asko eta asko Israelera joan dirala, euren burua azkarrenetzat daukienak, batez be. Hungarian geratzea, atzean geratzea dalakoan. Beraren berbetan, Hungarian ez dago judeguentzat ia lekurik, eta horrenbeste denpora kanpogan emon eta gero be gatx egiten jako. Israelen ganera be jardun dogu, lurralde okupatuez eta Palestinaz. Gai gatxa dala esan dau, baina ez dau bidezkotzat joten gobernuak egiten dauana.

Azken eguna, azken arrastia. Zortziretan taxia etorri da, Hamsa, Fanny, Mirentxu eta hostalekoai agur esaten ia negarretan hasi naz. Taxian sartu naz eta ezin izan deusatz negarrari eutsi eta goitik behera murgildu naz tristuran, negar tanten itsasosan. Zein gogorra egiten jatan hau dana ixtea. Brasil ez da nire etxea baina beste ezein lekuk baino hobeto sentidu eragin deust. Pelourinhoko Harrizko kaleak, etxe zaharrak, etxe barriztuak. Gero asfaltautako kaleak, etxe barriak, autopistea, kotxe gitxi, anuntzio plakak. Eta konturatu orduko aireportura ailegau gara. Maletak fakturau. Ezagutu dodan jentea buruan pilatuten jat... *Saudade!* Itxaron gelara sartu naz. Ezin dot sinistu banoala hemendik.

Afaldu eta lo. Izartu. Armozau, eta Lisboan nago. Pasaportearena pasau baino lehen, polizia bat hurreratu jat eta beragaz joateko. Gela baten eskuko motxilea edegi behar izan dot, zer daukadan erakusteko. Non egon nazen, zer egin dodan, zenbat diru daukadan... Urduri egon naz. Hamar minutu eta joaten itxi nau. Abioiko atarira joan naz.

Europar nago eta zelaseko aldea dagoan handik hona. Ez da sinisteko be! Jentea zuriagoa da, serioagoa, frustrazino gehiago



daroe arpegietan, begietan eta ezpanetan. Zoriontasuna pelikuletan ikusten daberen zeozer da: “egin behar dot” asko daukie, “gura dodana” gitxi egiten dabe. Hotz egiten ei dau: zapatak, kaltzetinak, fraka luzeak, gonak eta galtzerdiak, alkondarak, nikiak, jerseyak eta jakea. Nik oraindino Brasileko berotasuna daukat: txankletak, minigonea eta tirantedun nikia.

Lehengo polizia barrero be. Ez da etorri bakarrik. Beragaz batera kamaraduna eta kamara, polizia bat eta beste persona bat. Eurokaz joan behar dodala esan deuste, motxilan eta boltsan zer dagoan aztertzeko. Bildurto egin naz hainbeste jentegaz. Eta kamarea zertarako? Zergaitik? Zergaitik etorri dira barrero nigana? Zergaitik hainbeste galdera? Erropa arruntez jantzita dagoan gizonak gaztelaniaz daki. Gizonak azaldu deust telebisionarako programa bat egiten dabilzala; aireportuetan behar egin eta dabilen jentearen ganean. Motxilea eta boltsea zabaldu behar izan dodaz, dana atera. Nezeserreko gauzak atera dauz, txanpua usaindu. Arpegiko krema usaindu... Kamararen begia hor dago, begira. Urduri ez nagoala erakutsi gura dot. Baina ez dakit lortu dodan. Barrero dana sartu, baina ez da kabitzen. Sartzen hainbeste kostau jatana orain ezin sartuta nabil. Dana amaitu danean, lasaitu egin naz. Kamarea eta periodistea han geratu dira, eta polizia nigaz etorri da hegazkineraino.

Bost minutu baino ez dira falta abioian sartzeko. Ordubete baino izan ez dan arren, lo egin dot. Madrilen motxilea hartu. *Eu tenho saudade!* Loak hartu nau. Euskal Herria zerutik ikusi dot: ilun, urdin, euria, kotxeak eta etxeak. Non geratu ete da Brasileko eguzkia, beroa? Aireportuan Agurtzane ahiztea eta Idoia lehenegusina daukadaz itxaroten. *Ainda tenho saudade de Brasil.* Pozgarria da familia barrero ikustea, mosuak emon, entzun, alboan sentidutea. Tabernan ama dago, zein ondo! Ez da ia ezer aldatu. Ama pozik eta eder, betiko moduan. Euskal Herrian, etxean nago eta ezin dot sinistu.



## ETXETIK

Mendebalderako biajea barrurako biajea ei da. Kanpora joaten zara barrura joateko, zeure barnean murgiltzeko. Handik, esan beharra daukat, indartuta etorri nazala, inoz baino handiago, inoz baino neureago. Barruan neukana agirian itxita, landarak ureztuta eta loratzeko prest. Nik halan sentidu dot. Joan zana bes-telako bihurtuta etorri da.

Eta bitartean sei hilebete itsatsita lotu jataz azalean, begietan eta bihotzean. Eta inoz, holan pasetan jat, azaleratu, bat-batean urten egiten deuste kotxeen artean nabilela, zirimiriaren tanten artean. Bilbon hegoamerikarrak ikustean, hangoakaz akordetan naz eta irribarretxu bat zabalduten jat arpegian. Neure buruari esaten deusat: hona etorri dira behar egiten, baina horregaz batera ikasiko dogu zeozer eurakandik nik biajean ikasi dodan moduan. Eraginak noranzko bi daukaz.

Sei hilebete itsatsita daukadaz buruan, gogoan, azalean. Joan-etorri itzela izan da. Limara ailegau eta Salvador de Bahiatik urten. Bilbo izan zan bien arteko lotura. Atzera begiratzean ezer ahaztu ez dodalakoan nago, jente guztiagaz akordetan nazalakoan, paraje guztiak gogoan daukadazalakoan. Orain aldian agertzen jataz.

Herriak asko izan dira: Peru, Bolivia, Argentina, Uruguai, Paraguai eta Brasil. Sei herri eta sei hilebete. Peruk ondoetorria egin eustan. Nebea ia urtebete ikusi barik neukan, eta nik hogeta hamabi urte egiteagaz batera haren irribarre gozo eta zabala ikusi neban.

Berezia izan zan ailegau eta astebete baino lehen Amazonasen izatea: hango handitasuna, berdetasuna geure begi aurrean ikus-tea. Eta sano berezi eta hunkigarria izan zan niretzat nire edade-ko andra bat ezagutzea eta alkarri geure bizimoduen barri emo-tea. Perun Colca arroan egon ginan eta kondorrak ikusi: begieta-tik hamar metrora, handi, eder eta indartsu... barbarik ba ete dago hegazti hareek zer sentidu arazoten daben esateko? Inken inperioaren uriburuan gringitoak nagusi dirala ikusi genduan: ingelesez batzuk, hebreeraz beste batzuk, eta inor ez gaztelaniaz eta gitxiago hondino kitxuaz! Kolonizazio barria. Gero ikusi gen-duan Machu Picchuk badaukala zer eskaini... Eta handik perso-na duinen herrira joan ginan: Bolivia. Titikakan egon ginan: “este lago tiene infinito” poesiaz beteriko berbak entzun geuntsazan bertako bati. Titikakan sortu zan mundua, han dagoz eguzkiaren eta iretargiaren islak. La Pazen kokearen orriek eta herriak zelan egiten daben bat ikasi genduan. Eta andrak herriaren arima iza-teaz gan, herria aurrera eroaten dabenak dirala ikusi genduan. Boliviara joan ginan hemen begi aurrean daukaguna ikusteko.

Etxean behin “Bidaide” programan ikusi neban frantziar bik lana itxi eta bizikletaz Amerika goitik behera ibili zirala. Uyuniko gatz-lautadea zeharkatu eben: hango zuritasuna ikusi neban pan-tailaren bidez... eta begi aurrean neukan... Inoz amesak egia bihurtzen dira. Zin egiten deusuet! Koadrila ederra batu ginan eta barre piloa egin genduan... lau mila metrotik gora.

Handik Argentinara joan ginan: bost mila kilometro baino gehiago, gehienak autobusez... Herri handi bat, dirua izan dauen jentea diru barik ikusi dogu: amorrua ikusi dogu euren berbetan eta begietan. Gura eta ezin. Kanpora begira, Hego Amerikatik kanpo, Hego Amerika bistatik kendu guran edo. Mayoko plazako amamak eta amak, eta ondoan, turistak argazkiak egiten. Uru-guitarrak, jatorrak. Txoberne Buenos Airesen, harri eta guzti. Animaliak aske ikusi genduzan. Lehenengo aldia izan zan niretzat: eta ordutik hona animaliak bestelakoak dira, hurrago dagoz orain, eta gehiago maite dodaz. Ushuaia lurmuturra izan zan,

mugarri. Antartikatik hain paraje... Hurrengo baten. Perito Moreno eta haren berbaroa oraindik be entzuten dodala iruditzen jat. Andeak eta Chalten mendiaren handitasuna. Gorputzak ibiltzen be askatu daitekezala jakin genduan. Gero Ekaitz joan egin zan, eta... bigarren biajea hasi zan, lehen baino barrurago eta aldi berean lehen baino kanporago joan nintzan. Brasildarrek biziteko gogoia eta biziteko beste ikuspuntu bat erakutsi eusten euren hizkuntza gozoaren bidez. *Eu tenho ainda saudade de você, Brasil!* Brasil itsatsita geratu jat, eta ezin dot poza baino agertu herria begien artean ikusten dodanean.

Biajeak denporea eskaintzen deutsu, astia pentsetako, gogo-eta egiteko. Gauzak astiroago pasetan dira, barruak digestinoa egiteko astia dauka, eta gorputzak eskertu egiten deutsu. Sistemea bera aldatzen jatzu. Egunak inportanteak dira, baina denporea ez dozu minututan kontetan, barruko denporan baino. Ordu bi bategaz jarduten, ordubete eta erdi pentsetan, haregaz berbetan, bi jateko leku bat topetan, beste bi lo egiteko lekuaren bila... Denporea ederra egiten jatzu. Lagun dozu biajean, ez da arerioa, ez dozu haren kontra joan behar. Eta denporeak gauza ederrak opesten deusuz: barnean loratuko jatzuzan haziak itxiten deusuz. Eta jenteak be bai. Jente ederra topau zeinke kalean zein ostatuan. Mila eta bat bizimodu. Eta zurea ez da beste bat gehiago baino. Inork entzun ez dauen hizkuntzea egiten dozu, existiduten danik be inork ez dakian herri baten bizi zara. Eta denporea emoten dozu, hemen agirikoa dana azaltzen. Eta zeure gabeziez konturatzen zara, eta handitasuna topetan dozu berben arteko isiltasunean, beste personea zugana ailegau dala sentiduten dozunean. Gehienetan galdera ikurra baino ez itxi arren. Eta hori askotan egin zeinkean gauzarik gorena izan daiteke. Eta pozik zoaz.

Denporea pasau da handik etorri nazanetik. Eta motxilea pre-parauta daukat beste baten be joateko, hara edo beste nonora. Mundua txiki egin jat, eskuan sartzen jat, eta eskuko marrak inoz baino sakonagoak eta misteriotsuagoak dira, marra ikusezinak eta

agirikoak. Marra horreetan noz murgilduko zain. Joan eta etorteko.

Beharbada hasi neban biajea ez zan amaitu... Biajean nabil oraindikarren...

Musu bana hau irakurri dozueno,

Iratxe ormatza imatz.